Euskadiko Jokoaren II. Liburu Zuria

PERTSONA HELBURU

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Argitaraldia: *2015eko urtarrila*

Argitaratzailea: *Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa*

Segurtasun Saila

Argazkiak: *Mikel Arrazola, Maria Santos eta Kristina Jaen*

L. G. : *VI-452-2005*

Badira bost urte Euskadin Jokoari buruzko lehen Liburu Zuria argitaratu zela eta, Jokoaren sektorearen inguruan dagoenaren erradiografia zehatzago eta doiago bat izan nahi badugu, argitalpen hori edizio berri bat eginez eguneratzeko garaia heldu da.

Jokoaren sektoreak azken urte hauetan aldaketa eta eraldaketa sakonei egin die aurre, baita iraultza teknologiko bati ere, eta horrek portaera sozialetan aldaketak eragin ditu, eta eskumenetan zein araudian egokitzapenak.

Aldaketa horiek egin behar izan ditu etorkizuneko erronka berriei aurre egiteko eta sektore honetan, Jokoarenean, eragina izan duen krisi ekonomikoa gainditzeko. Sektore hori garrantzitsua da bai sorrarazten duen jarduera ekonomikoarengatik, baina baita dauden lanpostuengatik eta garapen teknologikoari egiten dion ekarpenarengatik ere.

Jokoari buruzko bigarren Liburu Zuri honekin, Segurtasun Sailak Jokoaren arloan eragina daukaten alderdi guztien eta bakoitzaren ikuspegi global eta integrala eskaini nahi du. Hori dela eta, horretan jasota daude, esaterako, sektoreak mugiarazten dituen alderdi ekonomiko nagusiak, Euskadin jokoa arautzen duen arau-esparrua eta, nola ez, jokoa fenomeno sozial gisa ere aztertzen da.

Kontua da azken urte hauetan on line jokoa agertu dela eta, besteak beste, horrexek behartu dituela, zalantzarik gabe, Administrazioak eta enpresak garai berrietara egokitzera, enpresaren interesen eta gizartearen eskariaren arteko oreka bilatuz, eta joko arduratsua sustatuz, bultzatuz eta bermatuz.

Testuinguru horretan kontzientziazio- eta sentsibilizazio-kanpainak sartzen dira, lehenengo eta behin, adingabekoak menpekotasun-arriskuan jar daitezen eta jokoan ibil daitezen ekiditeko helburua dutenak. Era berean azpimarratu behar dira ludopatak jokoan ibil ez daitezen egindako ahaleginak, eta baita jokoaren aurrean ardura pertsonala eta soziala sustatzeko egindako deiak ere.

Oraingo honetan, Jokoari buruzko Liburu Zuri honetan atal bat eskaini zaio sektorearen enpresen praktika onei, eta jakin badakigu praktika horiek ez direla betebehar gisa hartu behar, kalitate-bereizgarri gisa baizik, enpresek beraiek bilatu eta lortu nahiko dutena.

Irakurle hori, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saileko Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzako argitalpen berri baten aurrean zaude, jokoaren munduaren inguruko alderdi guztien gaur egungo egoerari buruzko datuak, zifrak eta azterketa oso bat ematen dizuna eta, batez ere, Euskadiko jokoaren munduari buruzko ikuspegi global bat eskaintzen dizuna.

Estefanía Beltrán de Heredia Arróniz

Segurtasuneko sailburua

Aurkibidea

A. JOKOAREN SEKTOREA EUSKADIN ***3***

1. Jokoa ikuspegi ekonomikotik **4**

1.1 Sarrera 4

1.2 Jokoen eskaintza Euskadin 4

1.3 Eskariaren kopuru garrantzitsuenak 29

1.4 Sektoreko eragile nagusiak 47

1.5 Zifra makroekonomiko nagusiak 51

2. Jokoa, fenomeno soziala **56**

2.1. Sarrera 56

2.2. Jokorako motibazioa eta iritzia 56

2.3. Ausazko jokoen inguruko ohitura sozialak 58

2.4. Ausazko jokoen bermeak 64

2.5. Administrazioaren esku-hartzea 66

2.6. Publizitatea eta ausazko jokoak 70

3. Euskal Autonomia Erkidegoko araudia **72**

3.1. Sarrera 72

3.2. Eskumenen esparrua 72

3.3. Arau esparrua 75

3.4. Zerga esparrua 95

B. JOKOAREN SEKTOREKO JOERAK ETA JARDUNBIDE EGOKIAK ***105***

1. Joera ekonomikoak eta enpresenak **106**

1.1 Sarrera 106

1.2 Jokoaren kopuruak Europan 106

1.3 Europako joko arautzaileak 109

1.4 Kasinoak eta turismoa erakartzea 110

1.5 Bingoaren modalitate berriak 111

1.6 Makinen azpisektoreko berrikuntzak 111

1.7 Loteria 112

***1.8 Online jokoaren* booma** 113

1.9 Publizitatea jokoan 115

1.10 Joko arduratsua 116

2. Araudi konparatua eta benchmarka **119**

2.1 Sarrera 119

2.2 Lege esparrua 119

2.3 Zerga araubidea 125

C. EUSKADIN JOKOAREN SEKTOREAK DITUEN ERRONKAK **135**
1. Sarrera **136**
2. Euskadin sektoreak dituen erronken xehetasunak **137**
2.1 Araudia 137
2.2 Zergak 137
2.3 Eskaintza: produktuak, zerbitzuak eta berrikuntza 137
2.4 Fabrikatzaileak eta hornitzaileak 138
2.5 Bezeroak 138
2.6 Joko arduratsua eta herritarren babesa 139
2.7 Publizitatea eta marketina 139
D. JOKOAREN SEKTOREKO ENPRESEN JARDUNBIDE EGOKIAK **141**
1. Sarrera 142
2. Gizartearen iritzia hobetzeko 142
3. Operadoreen lehiakortasuna hobetzeko 142
4. Joko arduratsua sustatzeko 143
E. LABURPEN EXEKUTIBOA **144**
1. Jokoaren sektorearen egoera ekonomikoa Euskadin **145**
2. Jokoaren sektorea Euskadin 2013an, begi kolpe batez **147**
3. Euskal herritarren joko ohiturak **148**
4. Jokoaren araudiaren egoera Euskadin **149**
5. Araudien joerak jokoaren esparrua **151**

A. Jokoaren sektorea Euskadin

M.Arrazola/ej-gv

1.Jokoa ikuspegi ekonomikotik

1.1 Sarrera

Jokoaren sektorea Euskadin aisiako sektorearen atal garrantzitsua izan da betidanik.

Tradizio eta historia zabaleko sektorea izan arren, eboluzio handia izan du azken urteotan, bai eskaintzari dagokionez (beste joko modalitate batzuk agertu direlako, online jokoa, besteak beste), bai eskariari dagokionez (jokatzeko ohitura berriak agertu direlako).

Horrek birmoldaketa prozesuari aurre egin beharra ekarri du, sektoreko operatzaileen aldetik ez ezik, araudiaren aldetik ere, sektorea gizarte errealitate berrira egokitzeko.

Gainera, ikuspegi ekonomiko soiletik begiratuta, gaur egun, jokoaren merkatua oso testuinguru ekonomiko konplexuan dago, 2008ko krisi ekonomikoaren ondorioz eskarian gertatu den murrizketak eragina izan baitu sektorean, Euskadiko jarduera ekonomiko guztian gertatu den bezala. Hala eta guztiz ere, aisiako sektorearen atal garrantzitsua da. 2013an, esaterako, Euskadiko herritarrek aisian gastatutako guztiaren % 26 erabili zuten jokoan, eta gaur egun, 881 milioi eurora iritsi da jokatutako kopurua.

Horregatik, sektorea testuinguruan kokatzeko, atal honen lehenengo zatian herritarrek eskura duten joko eskaintza erakutsiko da. Zehazki, jokoen tipologia bakoitzerako, jokalarien eskura dauden jokoak eta zerbitzuak azalduko dira, baita bakoitzaren eboluzio historikoa ere.

Bigarrenik, Euskadiko herritarrek eskatutako joko kantitatea analizatu da: batetik, online jokoaren eta ohiko jokoaren eskaria zehaztuko da; eta, bestetik, joko guztien eskariaren berri emango da modalitateka.

Azkenik, adierazle makroekonomiko nagusiak zehaztuko dira; hau da, sektoreak zer ekarpen egin dien foru aldundiei, Jaurlaritzari eta sektorean jarduten duten enpresei.

1.2 Jokoen eskaintza Euskadin

A. Kasinoetako jokoa[1]

Kasinoen azpisektorea egonkor mantendu da Euskadin, establezimendu kopuruari dagokionez, 1996an Gran Casino Nervión sortu zenetik hona.

Gaur egun, legeak lurralde historiko bakoitzeko kasino bat izateko aukera jasotzen badu ere, bi kasino daude: Donostiako Gran Casino Kursaal eta Bilboko Gran Casino.

Ildo horretatik, azpimarratu behar da 2011n Gran Casino Bilbaok izan zuen aldaketa, antzinako Coliseo Albia zine aretora eraman baitzuten. Kasino berriak 1.800 metro koadro ditu joko eskaintzarako.

Birkokapenaz gain, 2014ko irailean, zuzendaritzan aldaketa izan zuen Gran Casino Bilbaok, akzioen % 70 erosi baitzituen Egasa XXI, S.A. enpresak. Galiziar enpresa taldea 7 herrialdetan dago eta liderra da jokoarekin lotutako entretenimenduko zentroetan, makinen banaketan eta ekipamenduetan. Gran Casino Kursaal ere haien esku dago.

Jabe berriok Bilboko kasinoaren norabidea aldatu nahi dute eta hiriko erreferentziazko entretenimenduko zentro bihurtu nahi dute. Horretarako, inbertsio handia egingo dute: eraikina birmoldatzeaz gain, jatetxe zerbitzua, erabilera anitzeko aretoa eta jokoari erantsitako zerbitzuak ere hobetu nahi dituzte.

Gaur egun, Gran Casino Bilbaok 59 C makina ditu, kirol apustuetarako bi makina eta zaldi-lasterketetan apustu egiteko makina bat; eta Gran Casino Kursaalek 44 C makina ditu, kirol apustuetarako 2 makina eta zaldi-lasterketetan apustu egiteko makina bat. Horrez gain, biek eskaintzen dituzte ohiko jokoak: Black Jacka, erruleta amerikarra eta Pokerra hiru bertsiotan: karta-uzterik gabekoa, Texas Hold´em eta Pai Gow. Azken urteotan, modernizatu egin dute eskaintza

[1] Gran Casino Bilbaok eta Gran Casino Kursaalek emandako datuak, aipatutako kasuetan izan ezik.

eta, teknologia aldetik, eskaintza berritua dute: erruleta elektronikoa, kirol apustuetako makina eta zaldi lasterketetan apustu egiteko makina.

Egiturari begira, gaur egun, antzeko egitura dute: joko areto bat, makina areto bat, zaldi lasterketetako apustuen terminal bat, kirol apustuen terminal bat, erabilera anitzeko areto bat eta txapelketen areto bat. Horiez gain, jatetxea eta taberna dituzte. Desberdintasunen artean, Casino Kursaalen bada kirol eta zaldi lasterketetako apustuen areto bat.

-Aisiako zerbitzuen aukera Euskadiko kasinoetan

Joko eskaintza	*Jatetxea*	*Jarduerak*
· C makinak *· Zaldi lasterketetarako apustu makinak* *· Kirol apustuetarako makinak* *· Pai Gow pokerra* *· Black Jacka* *· Erruleta amerikarra* *· Texas Hold´em pokerra* *· Karta-uzterik gabeko pokerra* *· Sit & Go mahaiak*	*· La Boule jatetxea (Gran Casino Kursaal)* *· Ibaigane jatetxea (Gran Casino Bilbao)* *· CB Café & Bar (Gran Casino Bilbao)*	*· Biltzarrak* *· Koktel ikastaroak* *· Arte erakusketak* *· Topaketak*

Orotara, bi kasinoek 205 enplegatu dituzte joko eta zerbitzu osagarrietarako: 125, Gran Casino Bilbaok; eta 80, Gran Casino Kursaalek. Horiei gehitu behar zaizkie urtean zehar txapelketetarako kontratatzen dituzten 8-10 kanpoko langile.

Bestalde, Euskadiko bi kasinoek zerbitzuak eskaintzeko duten edukiera ez da aldatu hasieratik: guztira, 1220 pertsonarentzako tokia dute.

Bi kasinoek adin nagusiko pertsonentzat baino ez dituzte zabalik ateak, eta dokumentazioa erakutsi behar da sartzeko, Gran Casino Bilbaoren kasuan izan ezik, sarrera librea baita bertan.

Sarrerako kontrola zorrotza da bi kasuetan eta ez zaie sartzen uzten jokoan arduratsu jokatzeko arazoak dituztela-eta debekua duten pertsonei.

Aipa dezagun Euskadin ikusten den egonkortasuna ez dagoela Estatuko kasinoen eskaintzan. Estatuan, azken urteotan bi kasino itxi dituzte Aragoin eta bat Andaluzian, besteak beste aisiako gastua murriztu egin delako erkidego horietan, hain zuzen ere % 6,1 eta 1,6, hurrenez hurren, kasinoak itxi aurreko urtean.

Zortzi kasino berri ere zabaldu dira Madrilen, Valentzian, Kanariar Uharteetan eta Katalunian. Kasino horiek, seguru asko, lurralde horietako turismoari begirakoak dira, turisten gastua gehitu egin baita 2006-2013 bitartean. Hain zuzen ere, igoera hori urtean-urtean % 2,6koa da Madrilen; % 2,6koa, Valentziako Erkidegoan; % 1,3koa, Kanariar Uharteetan; eta % 6,1ekoa, Katalunian.

Horrela, une honetan martxan dauden kasinoen % 26 2008tik aurrera zabaldutakoak dira.

-Kasino kopuruaren eboluzioa Estatuan



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren 2013. urteko txostena eta EINren datuak

-Estatuko kasinoak-



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak eta Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) datuak

Kasinoen dentsitateari erreparatuz gero, Euskadiko Autonomia Erkidegoa Estatuko batez bestekoan kokatzen da, milioi biztanleko 0,9 kasinorekin. Zerrendaren buruan daude Euskadirekin mugakide diren erkidegoak, hala nola Errioxa eta Kantabria, 3,1 eta 1,7 kasino baitituzte milioi biztanleko, hurrenez hurren. Kontrako tokian dugu Nafarroa, ez baitu kasinorik zabalik, mugakide izanik ere.

Azpimarratzekoa da erkidego bakoitzeko populazioaren dentsitateak eta turismo sektorearen garrantziak eragin handia dutela kasinoen dentsitatean.

-Kasino kopurua milioi biztanleko autonomia erkidegoetan



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren 2013. urteko txostena eta EINren datuak

Azken urteotan eraikitako kasinoek eskaintza bereizgarria dute ohiko kasinoen egiturarekin konparatuta. Kasino berrion ikuspegia da entretenimenduko gune bat sortzea, eskaintza nagusia, jokoaz gain, bezeroa aisiako beste esperientzia batzuk bizitzera erakartzea delarik.

B. B motako makinak[1]

B motako makinak dira partida edo jokaldi baten prezioaren truke erabiltzeko edo jokatzeko tarte bat ematen diotenak erabiltzaileari, eta, noizean behin, sari bat.

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak homologatuta egon behar dute makina horiek, egongo diren lokalean instalatu ahal izateko.

B makinak guztira

B makinen kopuruak behera egin du Estatuan, urteko % 2,58, 2006-2013 tartean, batez ere jokalariek modalitate horretan jokatutako kopuruak urtean % 2,8ko beherakada izan duelako. Hala ere, Euskadiren kasuan, jaitsiera hori Estatuan bezainbatekoa izan den arren 2011ra arte (% 2,03koa), 2009tik 2012ra ostalaritzako establezimenduen % 3,4 itxi delako, 2012an eta 2013an pixkanakako igoera nabaritzen da (% 3,68koa) B makinen kopuruan.

(1) B makinei buruzko datuak, Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak emanak

-B makinen parkearen eboluzioa/Estatuko eta Euskadiko biztanleriaren eboluzioa



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak eta EINren datuak

Estatuan jaitsiera izan bada ere, Euskadiko B makinen kopurua egonkor samar mantendu da, eta Espainian seigarren erkidegoa da B makinen zenbatekoan.

Hona hemen Estatuko makinen banaketa, erkidegoen arabera, 2013. urtean:

-B makinen banaketa Estatuan



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren 2013ko urteko txostena

Bestalde, milioi biztanleko B makinen kopuruari begira, Euskadi ez dago jada Estatuko batez bestekoan, milioi biztanleko makinarik gehien duten erkidegoen artean bosgarrena baita, ondorengo grafikoan ikus daitekeenez:

-B makinen kopurua milioi biztanleko autonomia erkidegoetan



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren 2013ko txostena eta EINren datuak.

Euskadin, hainbat motatako B makinak daude. Bakoitzak bere ezaugarriak ditu (orriaren oinean daude zehaztuta) eta lokal mota desberdinetan erabiltzen dira:

- B makinak: Ostalaritzan erabiltzeko.
- BS makinak: joko aretoetan erabiltzeko.
- BS+ makinak: Joko aretoetan erabiltzeko, baina, BS makinetan ez bezala, gehieneko apustua eta sari handiagoa eskaintzen dutelako, taulan ikus daitekeen bezala.
- BG makinak: sari bereziak ematen dituzten jolas makinak, bingo aretoetan erabiltzeko.

Ondoren, makina mota bakoitzaren araberako azterketa ageri da:

B motako makinak - Ostalaritza

B makinetako jokoen eskaintzarik handiena ostalaritzako establezimenduetan dago. Gaur egun, B makina bat baino ezin da eduki ostalaritzako establezimendu bakoitzean.

2013an Euskadin martxan zeuden B makina guztietatik, 11.421 makina, % 80,7 ostalaritzan zeuden kokatuta; eta gainerako % 19,3ak joko aretoetan zeuden.

Esan behar da, gainera, 2012an, Euskadiko ostalaritzako establezimenduen % 67k bazuela B makina bat; 2007an, % 61en zeuden makinak. Hori gertatzeko arrazoia hau da: ostalaritzako establezimenduen kopuruaren murrizketa (% 3,4) handiagoa izan da B makinen kopuruarena baino (% 2,1), 2007-2012 bitartean.

	Itzulera %	Zikloak	Denbora	Bideoa	Gehieneko apustua	Makina bateko gehieneko saria	Interkonektatutako gehieneko saria makina bereziak
B makinak	70%	40.000	5	Bai/Ez	€ 1	€ 500	€ 6.000
BS makinak	70%	40.000	5	Bai/Ez	€ 2	€ 2.000	€ 5.000-15.000
BS+ makinak	82%	40.000	3	Bai/Ez	€ 3	€ 3.000	€ 5.000-15.000
BG makinak	80%	40.000	0	Bai/Ez	€ 6	€ 6.000	-

-B makinak dituzten establezimenduen proportzioa Euskadin



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritza

Bestalde, 2007an gertatzen zen bezala, Euskadin B makinen parkearen fabrikatzaileen merkatua hiru fabrikatzailek dute mendean hartuta, % 96,5 haien esku baitago. Fabrikatzaileak hauek dira: Unidesa, Recreativos Franco eta Gigames.

Gainerako merkatua atomizatuta dago: makinen fabrikatzaile ugari dago baina merkatu kuota txikia dute.

-Euskadin presentzia duten B makinen fabrikatzaile nagusiak



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritza.
Datuak 2014-11-4koak dira.

Euskal fabrikatzaileei dagokienez, kuota txikia dute. Horien artean, azpimarratu beharrekoak dira Kursaal K7 S.A, zeinak 22 B makina dituen; eta Picmatic S.A., zeinak merkatuan 6 makina dituen.

Merkatuaren egoera hori izanik ere, eta 2007an B makinen modelo gutxi bazeuden ere, gaur egun, B makinen hainbat modelo daude Euskadin.

, B makinen 156 modelok osatzen duten merkatu atomizatu horretan, 26 modelok dute merkatuaren % 80.

Ondoren ageri den grafikoan daude Euskadin nagusiki aurkitu daitezkeen 10 modeloak, B makinen parkearen % 50 biltzen dutenak. Horien artean arruntena El Tesoro de Java da, azken urteotan kuota galdu badu ere, gehien saltzen den B makina baita.

-Euskadiko B makina modelo nagusiak



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritza.
Datuak 2014-11-4koak dira.

BS/BS+ motako makinak – Joko aretoak

BS eta BS+ makinak joko aretoetan aurkitu ohi dira.

Joko aretoen banaketa Euskadiko lurraldeetan biztanleriaren proportzionala da; hau da, Bizkaian dago gehien, 83 areto, Euskadiko guztien % 54.

-Joko aretoen banaketa lurralde historikoen arabera



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritza.

Ostalaritzako B makinekin gertatzen den bezala, BS makinen Euskadiko merkatuaren % 85 lau fabrikatzaileren esku dago. Gigames S.L. da presentziarik handiena duena, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden BS makinen % 36rekin.

Hala ere, kontzentrazio hori ez da ostalaritzako B makinetan gertatzen dena bezain estua.

-Euskadin presentzia duten BS makinen fabrikatzaile nagusiak



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritza. Datuak 2014-11-4koak dira.

Bestalde, BS+ makinei gagozkiela, bost enpresa baino ez dira BS+ makinak Euskadin komertzializatu dituztenak; euretatik batek, Bilso S.A. izenekoak, du merkatuaren % 69.

-Euskadin presentzia duten BS+ makinen fabrikatzaile nagusiak



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritza. Datuak 2014-11-4koak dira.

Merkatua hain atomizatuta ez badago ere, BS makinen kasuan gehien saltzen diren modeloen artean, % 31 modelok (20 modelok) osatzen dute Euskadiko BS makinen parkearen % 80. BS makinen modeloen eskaintza zabala dagoela esan behar da.

Hala, hainbat modelo aurkituko ditugu (64 guztira); arruntenak edo Euskadiko joko aretoetan gehien aurkitzen direnak Chiringuito Salón eta Gnomos Salón dira, BS makinen parke guztiaren % 17 eta % 10, hurrenez hurren.

- Euskadiko BS makinen arteko 10 modelo nagusiak



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritza.
Datuak 2014-11-4koak dira.

Bestalde, BS+ makina modelorik arruntenen kasuan, fabrikatzaileen kontzentrazioak eragin du joko areto gehienetan modelo bera egotea, African Buffalo hain zuzen, Euskadin dauden modeloen % 66 halakoak baitira.

Kasu horretan, ondorengo grafikoan ikus daitekeenez, 3 modelok biltzen dute merkatuaren % 80. Hori gertatzen da, lehen aipatu bezala, fabrikatzaile bat delako nagusi eta Euskadin mota horretako makinen kopurua txikia delako.

-BS+ makina modelorik salduenak-



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritza.
Datuak 2014-11-4koak dira.

BG motako jolas makinak – Bingo aretoak

BG makinak B makinen tipologiaren barrukoak dira, baina bereizgarri bat dute: bingo aretoetarako sari berezia ematen duten jolas makinak izatea.

Bingoetako BG makinen eskaintza nabarmen aldatu da. Izan ere, merkatuan martxan aurkitu daitezkeen BG makinen kopuruak beherakada handia izan du azken urteotan, % 86,4koa 2012 eta 2014 bitartean, eta une honetan 36 BG makina baino ez daude martxan.

-Euskadiko bingo aretoetan dauden BG makinen kopuruaren eboluzioa



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritza. Datuak 2015-03-30ekoak dira.

Merkatuan martxan dauden modeloen artean, esan daiteke ez dagoela BG makinen mota askorik (12 modelo daude guztira); Planet Suite T4-III eta Multibingo Zitro II 5 postukoa dira Euskadiko bingo aretoetan gehien aurkitu daitezkeenak, % 19 eta % 11 hurrenez hurren, BG makinen parkea guztira hartuta.

- Euskadiko BG motako makinak



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritza. Datuak 2015-03-30ekoak dira.

Bestalde, fabrikatzaileei dagokienez, oso kontzentratuta dagoen azpisektorea da, hiru fabrikatzaile baino ez dituena; eta fabrikatzaile bakar baten eskuetan dago Euskadiko BG makinen merkatuaren % 63, Bingo Electrónico de España S.A. izenekoaren eskuetan, ondorengo grafikoan ikus daitekeen bezala.

-BG makinen fabrikatzaile nagusiak



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritza.
Datuak 2015-03-30ekoak dira.

M.Arrazola/ej-gv

C. Bingo jokoa

Gaur egun, 17 bingo areto daude erkidegoan eta 5.388 pertsonarentzako lekua dute. Areto horietatik 11 Bizkaian daude.

-Bingo aretoen banaketa lurralde historikoetan-



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritza.

Azpimarratzekoa da ez dela aldaketa esanguratsurik gertatu bingoen kopuruan 2007tik hona, denbora tarte horretan bi(3)bingo gutxiago baino ez baitaude (% 12).

Hala ere, jendearentzako tokia nabarmen murriztu da, urtean % 3,43, bingo elektronikoa sartzean bingo jokoak izan duen aldaketa dela eta (geroago zehaztuko da modalitate horren nondik norakoa).

-Euskadiko bingoetako jendearentzako tokiaren eboluzioa orotara



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritza.

Estatuan bingoek izan duten eboluzioa aztertzen badugu, konturatuko gara jaisteko joera izan duela, Euskadin izan denaren antzekoa, baina apur bat markatuagoa.

-Estatuko bingo kopuruaren eboluzioa



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteroko txostenak.

Erkidegoak erkatuta, Ceuta da, alde handiz, bingo dentsitaterik handiena duena milioi biztanleko; eta Murtzia, dentsitaterik txikiena duena, 3,4 bingo baititu milioi biztanleko. Alde horretatik, Euskadik 7,8 bingo ditu milioi biztanleko, 2012ko datuen arabera; beraz, Estatuko batez bestekoan legoke.

-Bingoen banaketa Estatuan



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteroko txostenak.

-Bingo kopurua milioi biztanleko autonomia erkidegoetan



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren 2013ko txostena eta EINren datuak.

Ohiko bingoa, bingo elektronikoa eta e-plus bingoa [2]

Bingoaren azpisektorearen eskaintza aldaketa aldia ari da bizitzen Euskadin, 2012an bingo elektronikoaren araudia indarrean sartu zenetik eta, oraintsuago, e-plus bingoaren araudia atera zenetik. Hala, gaur egun bi bingo mota daude jardunean Euskadin: bingo elektronikoa eta e-plus bingoa, ohiko bingoa ordezkatu duena.

Bingo elektronikoa kuota irabaziz joan zaio betiko bingoari. Izan ere, ohiko bingoan zeuden sari guztiez gain, joko bonuak eta sustapenak eskaintzen ditu bingo elektronikoak, horrekin batera, pribatutasun handiagoa ematen du eta errazagoa da jokatzeko ordua.

-Bingo elektronikoaren terminalen kopuruaren eboluzioa Euskadin-



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritza.

Ikus daitekeenez, gaur egun Euskadin dauden 17 bingoetatik, hamabik sartu dute bingo elektronikoa ohiko eskaintzaren barruan. Lau baino ez dira geratzen ohiko eskaintza soil-soilarekin. Gainera, aipa dezagun badagoela modalitate elektroniko hutsean espezializatutako bingo bat.

(1) Oharra: Dokumentu hau amaitu denean, e-plus bingoa izeneko modalitatea instalatu da, araudiaren arabera, ohiko bingoa ordezkatzeko. Horrez gain, Bizkaiko bi aretok baja eman dute

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Bingo elektronikoa eta ohikoa duten establezimenduak	3 (100%)	6 (55%)	3 (100%)
Ohiko bingoa baino ez duten establezimenduak	0	4 (36%)	0
Bingo elektronikoa baino ez duten establezimenduak	0	1 (9%)	0

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritza.

D. Estatuko loteria eta apustuak. (LAE gaztelaniaz)

Estatuko loteria eta apustuen sareak (LAE) eskaintza guztian jokatzeko modua ematen die jokalariei, bai ohiko bidetik (aurrez aurre), bai online.

Gaur egun, LAE sareak 55 ordezkaritza komertzial ditu Estatu osoan. Ordezkaritza komertzialok kudeatzen dute lurralde bakoitzeko salmenta sare zabala.

Euskadin, salmenta sareak bi modalitateren bidez eskaintzen ditu LAEko jokoak:

- Oinarrizko sarearen bidez; hau da, administrazioen bidez.
- Sare osagarriaren bidez; hau da, ostalaritzako establezimenduen bidez. Halakoek jokoen salmenta beste merkataritza jarduera edo produktu batzuekin bateratzen dute, Estatuko loteria eta apustuen sozietateak baimenduta dituen jokoetan.

Egun, Estatu mailan 10.475 salmenta puntu daude: 4.154 oinarrizko sarekoak dira eta 6.321, sare osagarrikoak.

Euskadin, guztira 566 salmenta puntu daude (232, oinarrizko sarekoak; eta 334, sare osagarrikoak), ONCE sarearen salmenta puntuena baino handiagoa. Hortaz, LAEk Euskadin duen eskaintzaren dentsitatea hau da: 258 salmenta puntu milioi biztanleko (Estatuko batez bestekoaren parekoa).

Gainerako erkidegoei begiratzen badiegu, Andaluzia da salmenta punturik gehien duena, Euskadik baino 1.246 gehiago, batez ere, lurraldez zabalagoa delako eta biztanle kopurua ere handiagoa delako. Gaztela eta Leon da, ordea, dentsitaterik handiena duena: 336 salmenta puntu ditu milioi biztanleko.

-LAEren salmenta puntuen banaketa Estatuan



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren 2013ko txostena.

-LAEren salmenta puntuak milioi biztanleko autonomia erkidegoetan



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren 2013ko txostena eta EINren datuak.

LAEren joko eskaintza askotarikoa da eta ia ez du aldaketarik izan azken urteotan. Honako joko hauek aurkitu daitezke:

- **Loteria Nazionala:** Ehun urte baino gehiagoko tradizioa du, Estatuan saririk gehien banatzen duenetarikoa eta ezagunena da ausazko joko guztien artean. Ostegun eta larunbatero izaten da zozketa. Parte hartzerik handiena Gabonetako Aparteko Zozketan eta Erregeen Eguneko Zozketan izaten du, urtean saririk handienak ematen dituztenak baitira.

- **Loteria Primitiboa:** 6 zenbaki aukeratu behar dira 1etik 49ra. Apustu bakoitza 1 €-koa da. Ausazko joko honek hainbat aukera ditu: apustu sinpleak egin daitezke (jokalariak 1 eta 8 bitarteko apustu egin ditzake era batera); edo anizkoitzak (11 zenbaki gehienez jokatzeko aukera). Primitiboa ostegun eta larunbatetan jokatzen da, eta egun bakarreko zozketarako egin daiteke edo asteko zozketa bietarako.

- **Bono Lotoa:** Primitiboaren joko modalitate berdina da, baina txartel bakoitzeko 0,5 €-ko apustua egiten da eta bi apustu egin beharra dago txartela baliozkotzeko. Gainera, 4 zozketatan joka daiteke: astelehen, astearte, asteazken eta ostiraletan.

- **El Gordo izenekoa:** Primitibotik sortua da eta igandero jokatzen da. Ezaugarri bereziak ditu: alde batetik, 1etik 54ra bitarteko taula batetik 5 zenbaki aukeratzen dira; eta, bestetik, zenbaki bat, 0tik 9ra bitarteko bat. Zenbaki hori berdina izaten da txarteleko apustu guztietan. Apustu bakoitza 1,5 €-koa izaten da. Apustu sinpleak eta anizkoitzak egin daitezke, primitiboan bezala.

- **Kiniela:** Joko hau Espainiako futbol ligan oinarrituta dago. 14 futbol partidatarako pronostikoa egin behar da 3 aukeraren artean: lehenengo taldeak irabaziko duen (1), parra egingo duten (X) ala bigarren taldeak (2) irabaziko duen asmatu behar da. Apustu bakoitzak 0,5 € balio du eta gutxienez bi apustu egin behar dira txartela baliozkotzeko. Oro har, jokalariak saria jasoko du baldin eta lehenengo 14 partidetako 10en pronostikoa, gutxienez, asmatzen badu.

- **Euromilioia:** 2 €-ko apustu batean, 5 zenbaki aukeratu behar dira, 1etik 50era bitartean; eta bi izar, 1etik 11ra. Saria jasotzeko eskubidea egongo da bi zenbaki edo zenbaki bat eta bi izar behintzat asmatzen badira. Apustu sinpleak eta anizkoitzak egin daitezke, 10 zenbaki eta 5 izar jokatuz anizkoitzetan. Zozketak astearte eta ostiraletan izaten dira.

- **Kinigola:** Kinielaren antzeko jokoa da, baina pronostiko bat egin behar da partidaren azken emaitzaz. Kiniela bakoitzeko apustua 6 futbol partidatakoa izaten da. Apustu bakoitzak 1 € balio du. Saria jasotzen da gutxienez bi azken emaitza asmatuz gero.

- **Lototurfa:** Zaldi lasterketetako apustua da. 6 zenbaki aukeratu behar dira, 1etik 31ra; eta zaldi bat, 1etik 12rako taula batean, Turf jardunaldiko 4. lasterketako zaldi irabazlea asmatzeko. Apustu bakoitzak 1 € balio du. Jokalariak saria eskuratuko du 3 zenbaki eta zaldi irabazlea asmatzen baditu behintzat.

- **Quintuple plusa:** Zaldi lasterketetako apustua da. 5 zaldi aukeratu behar dira, lasterketan parte hartzen duten zaldien artean, Turf jardunaldiko bost lasterketetako zaldi irabazleak asmatzeko. Horrekin batera, taula bateko zaldi bat aukeratu behar da, Turf jardunaldiko 5. lasterketan 2. tokian zein geratuko den asmatzeko. Jokalariak saria eskuratuko du, 4 zaldi irabazle asmatzen baditu behintzat.

E. ONCE, Espainiako Itsuen Erakunde Nazionalaren jokoak

ONCEk gizarte prestazioko sistema bat sortu du itsutasuna edo ikusteko desgaitasuna duten pertsonentzat, joko eskaintza zabal bat merkaturatuz. Erakundeak 75 urte bete zituen 2013an.

ONCEk aurrez aurre eta online eskaintzen ditu zerbitzuak. LAEk ez bezala, bide bakoitzetik eskaintzen dituen zerbitzuak desberdinak dira.

Aurrez aurrekoetan, ONCEk zabalkunde sarerik handiena du salmenta puntuetan Euskadiko loteria guztien artean. 628 saltzaile ditu eta 512 salmenta puntu, 2012an.

Hala ere, saltzaile kopuruan, % 4,81eko beherakada izan da urtean, 2010-2012 bitartean.

-ONCEren saltzaileen eboluzioa Euskadin



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteroko txostenak.

Estatu mailan, 12.636 salmenta puntu daude gaur egun. Andaluzia da salmenta punturik gehien eta saltzailerik gehien duen erkidegoa: 2.449 eta 5.119, hurrenez hurren. Horrez gain, azpimarratu behar da Euskadiren mugakide diren erkidegoak direla salmenta punturik gutxien dutenak: Kantabrian, 165; Nafarroan, 130; eta Errioxan, 116 salmenta puntu daude.

-ONCEren salmenta puntuen banaketa Estatuan



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren 2013ko txostena eta EINren datuak.

ONCEren jokoen eskaintzaren dentsitatea milioi biztanleko begiratuz gero, Murtzia da milioi biztanleko salmenta punturik gehien duen erkidegoa, eta Euskadi Estatuko batez bestekoaren azpitik kokatzen da: 287 puntu ditu milioi biztanleko.

-ONCEren salmenta puntuen kopurua milioi biztanleko autonomia erkidegoetan



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren 2013ko txostena eta EINren datuak.

ONCEk oso joko eskaintza zabala du. Azken urteotan, gainera, eboluzionatu egin du eskaintzak, bai gaur egun mantentzen diren jokoen ezaugarriei dagokienez, bai joko berrien eskaintzari

dagokionez. Berrien artean dago, Eurojackpoct, salmenta puntuan eskatzen diren harraskatzeko jokoen modalitate berriak, eta harraskatzeko online joko berriak. Bestalde, joko batzuk desagertu egin dira: Asteburuko Kupoitzarra eta Seitik Hiru.

Hortaz, ONCEren egungo joko eskaintza hau da (aurrez aurrekoa eta online):

- **Eguneroko kupoia.** Egunero (astelehenetik ostegunera), milaka sari desberdin zozketatzen dira, tartean 35.000 €-ko 55 sari, kupoiko 5 zifrak edukiz gero. 1,5 €-an erosten da kupoia.

  Eguneroko kupoian jokatuta, La Pagan (soldata) joka daiteke, 0,5 € gehiago ordainduta. Hartara 3.000 €-ko saria irabaz daiteke hilean, 25 urtetan.

- **Kupoitzarra:** Ostiraletan zozkatzen da ausazko joko hau. 3 modalitate ditu milioietako sariak irabazteko.

  Kupoitzarra: 3 €-ren truke, 9.000.000 € irabaz daitezke kupoiko 5 zifrekin; eta 100.000 €-ko 9 sari ere bai.

  XXL kupoitzarra: kupoitzarra baino 1 € gehiagogatik, 12.000.000 € irabazteko modua dago eta 150.000 €-ko 9 sari.

  XXL Kupoitzarra: 2 €-ren truke, 15.000.000 €-ko sari bat eta 200.000 9 sari irabazi daitezke.

- **Soldatatzarra:** ONCEren asteburuetako jokoa da, larunbat eta igandeetan zozketatzen dena. Soldatatzarrari esker 5.000 € irabaz daitezke hilean, 20 urtetan, bost zifrak edukiz gero; 10 urtetan hilean 2.000 €-ko lau sari ere egoten dira.

- **Zozketa berezia:** ONCEren jokorik ezagunenak eta jendartean zabalduenak 11/11ko zozketa berezia eta Gabonetako Zozketa berezia dira.

  11/11 aparteko zozketa urtero azaroaren 11n jokatzen da eta 11.000.000 €-ko sari bat, 1.000.000 €-ko 11 sari, eta milaka sari gehiago izaten dira, lehenengo sariaren bost, lau, hiru, bi eta azken zifra dituztenentzat.

  Gabonetako apartekoa: 44 milioi banatzen ditu saritan, lehenengo sariari dagozkion 400.000 €-tik hasi eta 4. sariari dagozkion 10.500 €-ra.

- **Eurojackpota:** "Eurojackpot" jokoa Espainian eta Europako ekonomia esparruko beste 15 herrialdetan merkaturatzen da aldi berean. 50 zenbakiren artean 5 zenbaki asmatu behar dira eta hamar eguzkitik bi. Zozketa ostiralero egiten da Helsinkin eta bote handiak izaten ditu, gutxienez 10.000.000 €-koak.

- **7/39:** 7 zenbaki aukeratu behar dira 39tik, apustu bloke bakoitzean. Gutxienez bermatzen den botea 1.000.000 €-koa da. 7/39a astero zozkatzen da, astelehen eta ostegunetan.

- **Super Once:** Joko aktiboko modalitatea da, 80 zenbakiko matrize batek osatua, 1etik 80ra zenbakituta. Horien artean, matrizeko 5 eta 11 zenbaki bitartean aukeratu behar dira, berdin dio zein ordenatan. Zozketa egin eta konbinazio irabazlea ateratzen da, 80tik 20 zenbakikoa. Apustu bat produktuan onartutako zenbakien konbinazioak gehi konbinazio horregatik ordaindutako prezioak osatzen du. 7 apustu mota daude, aukeratzen den zenbaki kopuruaren arabera: 11, 10, 9, 8, 7, 6 edo 5. Elementu horiekin dagozkien sariak jaso daitezke, apustu motaren arabera, apustu egindako euro kopuruaren arabera eta asmatutako zenbaki kopuruaren arabera.

- **Harraskatzekoak:** Harraskatzeko bi modalitate daude: harraskatzeko online jokoa eta salmenta puntuetan eskaintzen den harraskatzekoa. Kanal bakoitzak joko mota desberdinak eskaintzen ditu, baina batzuk bietan eskaintzen dira, ondoren ikus daitekeen bezala.

  Harraskatzeko online jokoan 8 joko mota daude, batzuk duela gutxi abian jarritakoak:

  - *Harrapatu milioi bat (Atrapa un millón):* 2 €-ren truke, 100.000 € irabaz daitezke mementuan. Joko eremuko bi gunetan harraskatu behar da, "zenbaki irabazleak" izenekoan eta "zure zenbakiak" izenekoan (6 jokaldi independente). "Zure zenbakiak" ataleko zenbakiren bat "zenbaki irabazleen" gunekoekin bat badator, jokaldiak saria du eta jokaldi horretan agertzen den zenbatekoa irabazten da.

- *Dado zoroak (Dados locos):* Joko hori 2011n sortu zen. 50.000 €-raino irabaz daiteke, 2 €-ren truke. Jokoan, Bankuaren dadoak jaurtitzen dira, alde batetik; eta, bestetik, zure dadoen 5 jokaldi. Zure jokaldietariko baten batura Bankuarena baino altuagoa bada, jokaldi horretan adierazten den saria irabazten da.

- *Zoriaren 7a (El 7 de la suerte):* 2011n sortua. 3.000 €-raino irabaz daitezke 0,5 €-ren truke. Saria jasotzen da baldin eta 7 bat edo Oncelio bat aurkitzen bada harraskatu beharreko "zure zenbakien" artean.

- *Zazpi eta erdia (Siete y media):* 2011n hasia. "Zure kartetako" hiru botatzen dituzu eta erkatu egin behar duzu batura Bankuaren karten batura baino handiagoa den, baina zazpi eta erdia gainditu gabe, irabazteko. 7.500 € irabaz daitezke gutxienez 1 € jokatuta.

- *Irabazi Gorriarekin (Gana con la Roja):* 2 €-ren truke 60.000 €-raino eskuratu daitezke. "Irabazi Gorriarekin" joko eremuan harraskatu behar da (bost partida independente goitik behera jarrita). Partida bakoitzean, Gorriaren golak aurkariarenak baino gehiago badira, dagokizun saria irabazten duzu. Horrez gain, harraskatzean "izar" sinbolo berezia aurkitzen baduzu, partida horretako saria halako bi irabazten duzu.

- *Erruleta:* Jokoa 2011n jarri zen martxan. 50.000 €-raino irabaz daitezke jokoan, 2 € jokatuta. Joko honetan 3 zenbaki aukeratu behar dira erruleta elektronikoko 1etik 36ra, eta 3 fitxa jarri, fitxa bakoitzaren azpian adierazten den sariaren besteko apustua egiteko. Erruletak biratzean, apustuan aukeratutako 3 zenbakietako bat ateratzen bada, fitxan adierazten den saria irabaziko du jokalariak. Txartelaren sariak guztira, sarituta atera diren apustu guztien batura da.
- *Kartarik altuena:* 2011n martxan jarria. Joko honetan, norbere karta bat eta aurkariaren beste bat jaurtitzen dira lau jokalditan. Jokaldi batean edo batzuetan jokalariaren kartak aurkariarenak baino zenbaki handiagoa badu, berdin dio karta multzoko zein palutakoa den, jokaldi horretan adierazitako saria irabazten da. Txartelaren saria saritutako jokaldi bakoitzeko sarien batura izango da. 2 €-ren truke 50.000 €-raino eskuratu daitezke.

- *Goltzarra (El golazo):* Jokoa 2011n jarri zen martxan. 10.000 €-raino irabaz daitezke jokoan, 1 € jokatuta. Joko horretan dauden 8 talderen arteko bi aukeratzen dira ausaz eta haien arteko partidaren 3 emaitza aukeratu behar dira. Partidaren amaieran markagailuan dagoen emaitzarekin bat badator emaitzetarikoren bat, emaitzan adierazten den saria irabazten da.

Salmenta puntuan eskaintzen den harraskatzeko jokoan aukera hauek aurkitu daitezke, batzuk duela gutxi abian jarritakoak:

- *Gabonetako harraska (Rasca de Navidad):* Harraska jokorik ezagunena da eta saririk handiena ematen duena. 5 €-ko txartelaren truke, 250.000 €-ko saria eskuratu daiteke. Jokoan, alde batetik, "zenbaki irabazleak" harraskatzen dira; eta, bestetik, "zure zenbakiak". Biak berdinak badira, jokaldi horretako zenbatekoan adierazten dena irabazten da; 10 saiaketa daude horretarako. Txartelaren saria izango da saritutako jokaldi bakoitzeko sarien batura.

- *Zure zorte eguna (Tu día de suerte):* Joko honekin 70.000 €-raino irabaz daitezke 2 €-ren truke. "Zenbaki irabazleen" eta "zure zenbakien" joko eremua harraskatzen da. Harraskatzean, zenbakiak bat badatoz, jokaldiak saria du eta jokaldi horretarako jarrita dagoena irabazten da.

- *Horoskopoa:* Sei irudik osatzen dute joko eremua eta hura harraskatu behar da. Irudi bakoitzaren azpian kantitate bat agertuko da eurotan. Harraskatzean agertzen diren sei kopuruen artean (irudi bakoitzeko bat), hiru berdinak badira, txartelak saria du, zifra horiek adierazten duten kopuruari dagokiona.

- *Munduari bira (Vuelta al mundo):* 3 €-ren truke, 100.000 € irabaz daitezke momentuan joko honetan. Alde batetik, "helmuga irabazleak" harraskatzen dira; eta, bestetik, "zure helmugak". Jokaldiren batean bat badatoz, jokaldi horretarako dagoen saria irabazten da. Sinbolo berezi bat lortzen bada, adierazitako saria bi halako irabazten da.

- *Irabazi gorriarekin (Gana con la roja):* Online dagoen joko berdina da. Ordaindu beharrekoa eta saria berdinak dira.

- *Harrapatu milioi bat (Atrapa un millón):* Online dagoen joko berdina da. Ordaindu beharrekoa eta saria berdinak dira.

- *Esmeralda*: Joko honetan, 3 €-ren truke 77.000 € irabaz daitezke momentuan. Zazpi jokaldi independentetan, harraskatu eta hiru zazpi atera behar dira. Gainera, sinbolo berezia aurkituz gero, eskuinean adierazitako sariaren bikoitza irabazten da bertan.

- *Zoriaren kartak:* Harraskatu egin behar dira, hiru aldiz gehienez, jokalariaren kartak eta saria. Hiru jokaldietariko batean jokalariaren karten zenbakia lehiakidearena baino handiagoa bada, jokaldian adierazitako saria irabazten da.

- *Zoriaren 7a:* "Zure zenbakien" artean 7a aurkitu behar da, eta hainbat sari eskuratu daitezke 0,5 €-ren truke. Gainera, Oncelioa aurkituz gero, 1,5 €-ko zuzeneko sari bat eskuratzen da.

- *Leon-kastillo:* Joko horretan, 2.500 €-ko saria eskuratu daiteke, 0,5 €-ren truke. Joko eremuko bi jokaldi harraskatu behar dira. Bietariko batean, jokalariak 2 aurpegi edo 2 gurutze aurkitzen baditu, jokaldi horri dagokion saria irabazten da.

- *Zazpi eta erdia (Siete y media):* Online dagoen joko berdina da. Ordaindu beharrekoa eta saria berdinak dira.

- *Urrezko pipitak (Pepitas de oro):* Joko honekin 10.000 €-raino irabaz daitezke 1 €-ren truke. Joko eremuan dauden sei pipita harraskatu behar dira eta, haien azpian, kopuru berdinak aurkitu behar dira. Topatzen den kopurua izaten da saria.

- *Kutxa sorpresa (Caja sorpresa):* Joko honekin 10.000 € irabaz daitezke 1 €-ren truke. 7 kutxa sorpresa harraskatu behar dira eta, jokalariak 3 kopuru berdin aurkitzen baditu, kopuru hori irabazten du.

- *Super zazpi eta erdia (Súper siete y media):* 7 eta erdiko jokoaren modalitate berekoa da; baina, 2 €-ren truke, 50.000 €-raino irabaz daitezke joko honetan. Horretaz aparte, jokalariak sinbolo berezia aurkitzen badu, 75 € eskuratuko ditu berehala.

- *Agur hipoteka (Adiós Hipoteca):* Joko honekin 100.000 €-raino irabaz daitezke 2 €-ren truke. Jokalariaren 6 zenbaki eta bi zenbaki irabazle harraskatu behar dira. Sei zenbakien artean baten bat sari irabazleekin bat badator, dagokion saria irabazten da.

- *Diamanteak:* Joko honekin 100.000 €-raino irabaz daitezke 3 €-ren truke. Jokalariaren zenbaki bat edo gehiago zenbaki irabazleekin bat badator, dagokion saria eskuratzen du. Jokalariak diamante bat aurkitzen badu, sari guztiak irabazten ditu. Txartelaren saria jokaldi saridunen batura izaten da.

- *Super erruleta 8tik 3 (Súper ruleta 3 de 8):* Hiru euroren truke, 80.000 €-ko berehalako saria irabaz daiteke. Jokalariaren zenbakietarikoren bat zenbaki irabazleekin bat badator, dagokion saria edo sariak irabazten ditu. Erruletaren sinbolo berezia aurkituz gero, 20 € eskuratzen ditu berehala.

F. Apustu etxeak

Apustu etxeak 2007an hasi ziren zabaltzen, Eusko Jaurlaritzak joko etxeak ustiatzeko hiru baimen eman zituenean.

Hiru esleipenak Ekasarentzat (RETA, Red Telemática de Apuestas-ekin diharduena), Victoria Victoria Garaipen Apostuak etxearentzat eta Teleapostuak izenekoarentzat izan ziren (azken horrek Kirolbet markaz dihardu orain).

Gaur egun, esleipendun horiek martxan jarraitzen dute. Haien arteko RETAk hasierako marka erabiltzen jarraitzen du bere apustu etxeetan. Ez da hori Victoriaren kasua. Horren ordez, Codere eta Kiroljokoak daude, gaur egun, Kirolbet markarekin.

Ondoren, apustu etxe bakoitzaren deskribapena eta eskaintza datoz:

EKASA: RETA (Red Telemática de Apuestas) markarekin dihardu apustu enpresa horrek. 2002an sortu zen kirol apustuak kudeatzeko; eta Euskadin jarduteko lizentzia esleitu ondoren, 2007an ekin zion bere jardunari. Une honetan 500 terminal ditu ostalaritzako lokaletan euskal geografia osoan banaturik eta apustuetarako berariazko 14 lokaletan. RETAk Estatuko eta atzerriko kirol joko ugari ditu; eta Loteria Nazionala eta nazioartekoa jokatzeko aukera ere ematen du.

CODERE: Victoria Garaipen Apustuak izan zen esleipendunetariko bat. 2007an eskuratu zuen lizentzia, eta 2008ko abenduaren 3an zabaldu zuen Euskadiko aurrez aurreko apustuen lehenengo aretoa. Hasieran, Williams Hill, Codere eta beste euskal operadore batzuk elkartuta sortu zen. Baina 2012an eten egin zuen ituna Coderek eta apustuen negozioa birdefinitu du, Victoria izena alde batera utzita. Orain, Codere Apuestas du izena. 2012an lizentzia eskuratu ondoren, online jokoak eskaintzen hasi da, webaren bidez eta gailu mugikorretan.

TELEAPOSTUAK: Apustu enpresa hau zenbait euskal enpresaburuk osatu dute eta Kirolbet markaz lan egiten du. 2007an sortu zen, Eusko Jaurlaritzak lizentzia esleitu ondoren. Gaur egun, Kirolbetek joko aukera zabala du kirol apustuak egiteko. 2013an, online jokoen eskaintza erantsi zuen salmentako kanaletan.

Enpresen apustu eskaintza hainbat kanaletan dago eskuragarri: apustu etxeetako terminaletan, prestatutako aretoetan, "corner" izenekoetan, ostalaritzan eta online (web orrietan eta gailu mugikorretan).

Apustu jokoen eskaintzarako, esleipendun bakoitzak 250 terminal izan ditzake gehienez, esleipendun enpresa bakoitzeko 25 lokaletan banatuta; eta lokal bakoitzean 10 terminal egon daitezke gehienez. Horrela bada, hiru esleipendunek, guztira, 750 terminal izan ditzakete Euskadiko apustu etxeetan.

Bestalde, ostalaritzako lokalei dagokienez, esleipendun bakoitzak 500 terminal izan ditzake. Guztira, 1500 terminal izan ditzake, beraz, Euskadin. Une honetan, hiru enpresen apustuen kopuruari begiratzen badiogu, 26,7 milioi dira guztira.

Apustuetan espezializaturiko lokalen zenbatekoa aztertuz gero, ikusten da 2011tik eboluzio positiboa izan dutela: urtean % 17 hazi dira, eta 22 lokal izatetik (2011n), 30 izatera (2013an) pasatu dira.

-Apustu etxeen kopuruaren eboluzioa Euskadin



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritza.

Probintziaka begiratuz gero, Bizkaia da lokal kopururik handiena duena. Lokalen % 53 dago bertan, apustu aktiboen 16 guztira. Araban, ordea, 3 apustu enpresa baino ez daude martxan.

Apustu etxeen banaketa lurralde historikoetan 2013an



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritza.

G. Zaldi lasterketetako apustuak[2]

Estatu mailan, hiru dira jarduera eta tradizioari begira garrantzizkotzat jotzen diren hipodromoak: La Zarzuela (Madril), Hipódromo Dos Hermanas (Sevilla) eta Donostiako hipodromoa (Gipuzkoa). Horiez gain, badira beste hipodromo batzuk: Mijasekoa (Malaga), La Pineda hipodromoa (Sevilla) eta Sanlúcar de Barramedako lasterketa (Cadiz).

Hipodromo horietan guztietan egin daitezke barne apustuak (hipodromoan bertan egiten diren apustuak bertan egiten ari diren lasterketen gainean). Baina Donostiako hipodromoak baino ez die jokalariei kanpoko apustuak egiteko modua ematen (nazioarteko lasterketen apustuak).

Donostiako hipodromoa udako erreferentziazko hipodromotzat hartzen da Estatu mailan. Egun, 15 jardunaldi egiten dira, bakoitza 5 lasterketakoa; eta uztailean, abuztuan eta irailean izaten dira. Aipatu behar da, 2013tik hona, 6 lasterketako 12 jardunaldi baino ez direla egiten. Jardunaldi eta lasterketen kopuruan egindako aldaketa hori Estatuan erroldatuta dagoen zaldi kopurua jaitsi delako egin da. 1.000 zaldi baino ez daude orain, 2008an 1.600 inguru bazeuden ere.

Donostiako hipodromoak barne apustuak hipodromoan bertan egiten baino ez du uzten,

[2] *HAHEk (Hipódromos y Apuestas Hípicas de Euskadi S.A.) emandako datuak*

bertako 45 terminaletan. Gainera, lehen aipatu dugunez, hipodromoan kanpoko apustuak ere egin daitezke. Horretarako, antolaketak 45 terminal ditu jarrita instalazioetan, jokalarien eskura, urte osoan zehar; eta Eusko Jaurlaritzak baimendutako ostalaritzako establezimendu batzuetako salmenta puntuak ere badaude. Esan dezagun, bide batez, hipodromoak ez duela online kanalik apustuak egiteko.

Donostiako hipodromoan egun eskaintzen diren zaldi lasterketetako apustu motak hauek dira:

- **Irabazlearen aldeko apustua:** aukeratutako zaldia lehenengo tokian iristen bada irabazten da.

- **Kokatuaren apustua:** modalitate horretan, jokalariak irabazten du, baldin eta aukeratutako zaldiak lehenengo, bigarren edo hirugarren amaitzen badu.

- **Biko irabazlea:** lasterketa batean lehenengo eta bigarren helduko diren zaldiak aukeratu behar ditu jokalariak.

- **Biko ordenatua:** Apustuan bi zaldi aukeratu behar dira, eta biok sartu behar dute lasterketako lehenengo hiru tokietan.

- **Hiruko ordenatua:** Lasterketan, lehenengo, bigarren eta hirugarren tokian sartuko diren zaldiak aukeratu behar dira apustuan, ordenan.

Zaldi lasterketetako apustuen eskaintzaz aparte, Donostiako hipodromoak bestelako jarduerak eskaintzen ditu urte osoan zehar: zaldien enkantea, Donostiako nazioarteko krosa neguko hilabeteetan, jauzien lehiaketa eta hipodromoa ikusteko bisitaldi pribatuak; bisitaldietarako espazio irekia ere bada.

Trebakuntzako zentro bat eta zaldiak edukitzeko tokia ere badu. Gehienez, 310 box izan ditzake.

Eskaintza hipikoa martxan izateko, 11 pertsona ditu enplegatuta hipodromoak urte osoan zehar; 8 ditu azpikontratatuta boxen mantenurako eta segurtasunerako; eta zeharkako 40 kontratazio izaten ditu trebakuntza zentrorako eta zaldiak edukitzeko. Lasterketa garaian, antolatzaileek 90-100 enplegatu gehiago ere hartu ohi dituzte.

M.Arrazola/ej-gv

1.3 Eskariaren kopuru garrantzitsuenak

Azken urteotan, 2008ko krisi ekonomikoa dela eta, merkatuan sortu den likidezia faltak kalte egin du jokoaren sektorean; izan ere, eskarian oro har gertatu den murrizketa, jokalarien gastuan ere ikusten da.

Beraz, nabarmena da jokatutako guztizko kopurua gutxitu egin dela Euskadiko joko guztiak kontuan hartuta; hain zuzen ere, 2006 eta 2013 bitartean batez beste % 6,1 gutxitu da. Hala ere 2012-2013 urteetan hobekuntza ikusten da eta, guztira, **881 milioi euro fakturatu ziren erkidegoan.**

-Euskadin jokoetan guztira jokatutako kopuruaren eboluzioa, milioi eurokotan[1]



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak

Joko tradizionalaren eskaria

Orain arte eskari gehien izan duten joko tradizionalen modalitateei dagokienez, ikusten da urteko % 6,4 jaitsi dela eskaria 2006-2013 bitartean.

-Bide tradizionaletan jokatutako kopuruaren eboluzioa, milioi eurokotan-



(1)Oharra: Online jokatutako kopuruan Eusko Jaurlaritzaren lizentzia duten operadoreei dagokiena jaso da.

Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak

Joko tradizionalean jokatutako kopuruaren beheranzko joera ikusten da Estatuan ere, baina ez da hain nabaria, epe horretan urteko % 3,5 gutxitu baitzen.

-Estatuan bide tradizionaletan jokatutako kopuruaren eboluzioa, milioi eurokotan-



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak

Online jokoaren eskaria

Online jokoari dagokionez, modalitate hori araututa dago Estatuan, Jokoa arautzeko maiatzaren 27ko *13/2011* Legea indarrean ezarri zenetik. Online apustuak homologatzeko 2011ko uztaileko aginduaren ondoren, 2012ko ekainean lehenengo hiru lizentziak eman zizkieten Euskadiko jokorako lokalei, online apustuak eskaintzeko.

Jokorako bide berri hori martxan jarrita, lortu da, neurri batean, azken urteotan jokatutako kopuruan egon den beherakada gelditzea; izan ere, 2013an 24,8 milioi euroko fakturazioa egin zen.

Gainera, ikusten da bide berri horien eskaria gero eta handiagoa dela; izan ere, 2014ko irailera arte metatutako diru kopurua 2013ko epe berdinean metatutakoa baino % 2,91 handiagoa da. Horrela jarraituz gero, urtearen bukaerarako uste da, joerari eusten bazaio, 2014an 25,5 milioi euro izango direla guztira.

-Euskadin online jokatutako kopuruaren eboluzioa, milioi eurokotan



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritza

Estatu mailan, online jokoa gorakada nabarmena izaten ari da 2011n arautu zenetik, urtean % 45 hain zuzen ere.

Handik aurrera, eta Jokoa Arautzeko Zuzendaritza Nagusiak ekainetik abendura bitarterako emandako kopurua beste hilabeteetara estrapolatuz, online modalitatearen bilakabide aipagarria ikusten dugu: 20011n jokatutako kopuruaren % 10 izan zen eta 2013an, ordea, % 20. Horrek argi erakusten du joera aldaketa dagoela online modalitatearen alde.

-Estatuan online jokoetan jokatutako kopuruaren eboluzioa, milioi eurokotan[1]



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak

Estatuan eskaera gehien duten online jokoen artean, pokerra eta kirol apustuak dira nagusi, % 39,4 eta % 33,5 hurrenez hurren.

-Estatuan online jokoan jokatutako kopuruaren banaketa



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak

Joko guztien eskaria, modalitateka

Euskadiko jokoen artean gehien eskatzen diren modalitateetan, ikusten da Estatuko Loteria eta Apustuak daudela lehenengo postuan, B makinen aurretik. Jokatutako kopuru guztiaren % 52 eta % 24 hartzen dute, hurrenez hurren.

Araututako online jokoa 2013an jokatutakoaren % 3 baino ez da Euskadin; hala ere, kopuru hori hasi egingo da, gero eta eskaera handiagoa duen modalitatea delako.

(1) Oharra: Online jokatutako kopuruan Eusko Jaurlaritzaren lizentzia duten operadoreei dagokiena jaso da.

-Euskadin jokatutako kopuruaren banaketa, joko motaren arabera



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak

Baina, joko guztiak kontuan izanik, Estatuko joera eta Euskadikoa desberdinak direla ikusten dugu. Kasu honetan, 2013an eskari handiena izan zuen modalitatea B makinak izan ziren, jokatutako guztiaren % 32 izanik. Estatuko Loteria eta Apustuei dagokienez, eskari handiena dutenen arteko bigarrenak dira.

-Estatuan jokatutako kopuruaren banaketa, joko motaren arabera(2)-



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak

Beste alde batetik, jokalari bakoitzak joko mota bakoitzean egiten duen gastua ikusita, azter genezake Euskadiko jokoaren azpisektoreen fakturazioa eta Estatukoarekin konparatu.

Ildo horretatik, aztertu diren jokoen artean, eskari handiena duten jokoak, gastu erreala kontuan izanda, Estatuko Loteria eta Apustuak dira, beste jokoek ez bezala, fakturazio handiagoa izan dute, urteko % 4,3 gehiago, 2006-2013 bitartean.

(1) Oharra: Estatuan online jokatutako kopuruan, Estatuaren lizentzia duten operadoreena soilik dago jasota.
(2) Oharra: Euskal Erdidegoan online jokatutako kopuruan,Eusko Jaurlaritzaren lizentzia duten operadoreena soilik dago jasota.

-Euskadiko gastu errealaren banaketa, joko motaren arabera, milioi eurokotan



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak

Estatuaren kasuan, nahiz eta, jokalari guztiak kontuan izanda, 2013an eskari handiena izan zuen jokoa B makinak izan ziren, Estatuko Loteria eta Apustuen Sozietatearen jokoek lortu zituzten sektoreko diru-sarrerarik handienak, hain zuzen ere gastu errealeko 3.351 milioi euro 2013an.

-Estatuko gastu errealaren banaketa, joko motaren arabera, milioi eurokotan[3]-



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak

[3] *Oharra: Ez dago online egindako gastu errealari buruzko informaziorik.*

A. Kasinoak

Euskadiko kasinoen azpisektorea eboluzio negatiboa izaten ari da azken urteotan, bai jokatutako kopuruari, bai jokoaren marjinari dagokienez. Estatuan ere antzeko joera dago.

Euskadin, kasino kopura ez da aldatu eta bisitari kopurua gehitu egin da azken urteotan, baina bisitarien batez besteko gastua gutxitu egin da; ondorioz, jokatutako kopurua % 7,9 gutxitu da eta gastu erreala % 10,1, 2006-2013 bitartean.

-Euskadiko kasinoetan 2006-2013 bitartean jokatutako kopuruak, milioi eurokotan



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak

-Euskadiko kasinoetan 2006-2013 bitartean egindako gastu errealaren eboluzioa, milioi eurokotan



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak.
**Gastu errealaren urteko hazkundea*

Estatuko kasinoetan 2013ko fakturazioa 1,436 milioi eurokoa izan zen, eta Euskadin, 49 milioi eurokoa. Beherakada antzekoa izan da bietan, Euskadin % 7,9 gutxitu da eta Estatuan, % 7,9.

-Estatuko kasinoetan 2006-2013 bitartean jokatutako kopuruak, milioi eurokotan



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak

-Estatuko kasinoetan 2006-2013 bitartean egindako gastu errealaren eboluzioa, milioi eurokotan



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak.
** Gastu errealaren urteko hazkundea*

Euskadiko Autonomia Erkidegoko kasinoetan, ordea, bisitari kopurua gehitu egin zela ikusten dugu. 2013an 147.183 bisitari egon ziren, 2006ko kopuruarekin alderatuz urteko % 6,5eko gorakada izan da. Hala ere, aipatu beharrekoa da, bisitari kopurua gehitu egin bazen ere, jokalari bakoitzak jokatutako kopurua txikiagoa dela, horregatik dago alderantzizko erlazioa faktore bien artean.

Baina, azken urteotako bisitarien joera aldatu egin da, bisitari gehien 2011n egon baitziren, 188.000; harrezkero gutxitzen joan dira.

Estatuan ere gauza bera ikusten da, 2006tik 2013ra bitartean bisitarien kopurua % 2,1 igo zen urteko, baina 2011tik aurrera gutxitzen joan da.

-Bisitari/Biztanle kopuruaren eboluzioa EAEn eta Estatuan. Mila biztanlekotan



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak

B. B motako makinak

B motako makinen azpisektorea bigarrena da eskari handiena duten jokoen artean, Euskadin jokatutako kopuruen arabera. Hala ere, Euskadin urteko % 12,6 ari da gutxitzen eskaria, eta Estatuan urteko % 2,8.

-Euskadin 2006-2013 bitartean B makinetan jokatutako kopuruak, milioi eurokotan.



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak

-Euskadin 2006-2013 bitartean B makinetan egindako gastu errealaren eboluzioa, milioi eurokotan



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak.
** Gastu errealaren urteko hazkundea*

Estatuan 2006. urtean jokatutako kopurua 10.939 milioi euro izan zen, eta gorakada txikia egon zen hurrengo bi urteetan. 2008tik aurrera, egoera ekonomikoaren aldaketaren ondorioz, eskaria etengabe gutxitzen hasi zen eta 2013an 8.936 milioi euro jokatu ziren. Euskadin gauza bera gertatu zen, 2006an 545 milioi euro jokatu ziren eta, gorakada txiki baten ondoren, berriz ere kopurua gutxitu egin zen eta 2013an 213 milioi jokatu ziren.

Aipatu behar da, gainera, Euskadiko Autonomia Erkidegoan joko mota horren merkatu kuota jaitsi egin dela: 2006an % 40 zen eta 2013an % 25.

-Estatuan 2006-2013 bitartean B makinetan jokatutako kopuruak, milioi eurokotan



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak

B makinen marjina, gastu errealari dagokionez, jokatutako kopuru guztiaren % 30 da gehienez, bai Estatuan, bai Euskadiko Autonomia Erkidegoan. Autonomia Erkidego gehienetan, B makinek homologaturik egon behar dute eta itzultzen duten gutxieneko kopuruak % 70ekoa izan behar du, Euskadin bezala. Ceutan, Melillan eta Kanarietan, ordea, % 75ekoa da. Faktore horrek eragina izaten du erkidego bakoitzaren gastu errealean.

-Estatuan 2006-2013 bitartean B makinetan egindako gastu errealaren eboluzioa, milioi eurokotan



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak.
** Gastu errealaren urteko hazkundea*

C. Bingo jokoa

2006tik 2012ra bitarteko eboluzioari begiratuz gero (urte horietan bingo tradizionala baino ez zen hartu kontuan, ez baitzegoen informaziorik eskari elektronikoari buruz), ikusten dugu jokatutako kopurua nabarmen gutxitu dela.

Baina, 2012an bingo elektronikoaren modalitatea merkaturatu ondoren, 2013an % 16ko gorakada ikusten da, jokatutako kopuruan.

Aipatu behar da, arautu zenetik, bingo elektronikoaren eskaria gero eta handiagoa dela, modalitate horrek sari gehiago eskaintzen dituelako eta joko tradizionalean ez dauden abantailak dituelako, esaterako, pribatutasuna eta jokatzeko erraztasuna.

Joko horren marjinari dagokionez, gero eta txikiagoa da, bai Euskadin, non gastu erreala % 9,4 gutxitu den; bai Estatuan, non are gehiago gutxitu den, % 11,8.

M.Arrazola/ej-gv

-Euskadin 2006-2013 bitartean bingoan jokatutako kopuruaren eboluzioa, milioi eurokotan-



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak

-Euskadin 2006-2013 bitartean bingoan egindako gastu errealaren eboluzioa, milioi eurokotan-



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak.
** Gastu errealaren urteko hazkundea*

Estatuan eta Euskadin antzeko eboluzioa egon da, jokatutako kopurua gutxitu egin da eta gastu erreala ere bai; 2012-2013 bitartean, ordea, gorakada txikia izan zuen, bingo elektronikoa agertu baitzen.

-Estatuan 2006-2013 bitartean bingoan jokatutako kopuruaren eboluzioa, milioi eurokotan-



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak

-Estatuan 2006-2013 bitartean bingoan egindako gastu errealaren eboluzioa, milioi eurokotan-



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak.
** Gastu errealaren urteko hazkundea*

D. Estatuaren Loteriak eta Apustuak (LAE)

Estatuko Loteria eta Apustuen Elkarteak eskainitako jokoa, aldaketa gutxien izan duen jokoetariko bat da, eskariari dagokionez. 2006tik aurrera Estatuan eta Euskadin jokatutako kopuruak gehitu egin dira, urteko % 2 inguru.

-Euskadin 2006-2013 bitartean Estatuaren loteria eta apustuetan jokatutako kopuruak, milioi eurokotan-



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak

Euskadin ere modalitate horretako marjinak gehitu egin dira, urteko % 4,3, 2006-2013 bitartean.

-Euskadin 2006-2013 bitartean Estatuaren loteria eta apustuetan egindako gastu errealaren eboluzioa, milioi eurokotan-



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak.
** Gastu errealaren urteko hazkundea*

Estatuari dagokionez, jokatutako kopuruan Euskadin dagoen antzeko joera ikusten da, % 1,9ko beherakada egon da; gastu errealean, ordea, Estatuan % 0,7ko beherakada ikusten da.

-Estatuan 2006-2013 bitartean jokatutako kopuruak, milioi eurokotan-



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak

-Estatuan 2006-2013 bitartean Estatuaren Loteria eta Apustuetan egindako gastu errealaren eboluzioa, milioi eurokotan-



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak.
** Gastu errealaren urteko hazkundea*

Azkenik, gaur egun Estatuan bigarren jokoa da merkatu kuota handiena dutenen artean, B makinen atzetik, jokatutako guztiaren % 30 delarik. Ez da gauza bera gertatzen Euskadiko Autonomia Erkidegoan, izan ere 2011tik aurrera kopurua B makinena baino handiagoa da, 2013an % 54 izan zen, eta kontsumitzaileen artean eskari handiena duena da.

E. ONCE, Espainiako itsuen elkartearen jokoak

ONCEren jokoetan, Estatuaren Loteria eta Apustuekin gertatzen den bezala, ez da gutxitu askorik eskaria. Euskadin ONCEn jokatzen dutenek jokatutako kopurua % 2 gutxitu da 2006-2012 bitartean.

Beste alde batetik, marjina apur bat handiagoa izan dela ikusten da, urteko % 0,4 gehitu da gastu erreala, 2006-2012 bitartean.

ONCEren diru sarreren merkatu kuotari dagokionez, ez da aldaketa handirik egon, ez

Euskadin, ez Estatuan, % 7 ingurukoa izan da 2013an bietan.

-Euskadin 2006-2013 bitartean ONCEn jokatutako kopuruak, milioi eurokotan-



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak

-Euskadin 2006-2013 bitartean ONCEn egindako gastu errealaren eboluzioa, milioi eurokotan-



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak.
** Gastu errealaren urteko hazkundea*

ONCEren jokoen eskariari dagokionez, Estutuko egoera eta Euskadikoa antzekoak dira. Horrela, ikus daiteke joko modalitate horren eskaria gutxitu egin den arren, ez dela beste joko batzuena adina gutxitu.

-Euskadin 2006-2013 bitartean ONCEn jokatutako kopuruak, milioi eurokotan-



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak

-Euskadin 2006-2013 bitartean ONCEn egindako gastu errealaren eboluzioa, milioi eurokotan-



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak.
**Gastu errealaren urteko hazkundea*

F. Apustu enpresak

Apustu enpresek eskaintzen dituzten jokoen eskaria 26,7 milioikoa izan zen 2013an Euskadin.

Beste modalitateen joeran gertatzen ez den bezala, jarduerari ekin ziotenetik, Euskadiko apustu lokaletako jokoetan egindako apustu kopurua asko gehitu da eta, 2011 online jokoa arautu zenetik, are gehiago. 2010-2013 bitartean, urteko % 42 gehitu da.

-Euskadin 2010-2013 bitartean egindako apustu kopurua(1)-



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak

Fakturazioari dagokionez, aldi horretan nabarmen gehitu da, egindako apustu kopuruetan gehitu dena baino gehiago proportzionalki; izan ere, jokatutako kopurua urteko % 53,9 gehitu da 2010-2013 bitartean.

-Euskadiko apustu lokaletan 2006-2013 bitartean jokatutako kopuruak, milioi eurokotan(1)-



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzako apostuen txostena

Hala ere, jokatutako kopuruaren eboluzioa eta lortutako marjinaren joera ez datoz bat, ematen dituzten sariak jokatutako kopurua gehitu den antzera ari baitira hazten. Horrela, 2010-2013 bitartean gastu erreala %16,2 gehitu da.

-Euskadin 2006-2013 bitartean apustu lokaletan egindako gastu errealaren eboluzioa, milioi eurokotan(1)-



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak.
** Gastu errealaren urteko hazkundea*

Estatuan, apustuen eskariari dagokionez, Euskadin bezala, % 16,1 gehitzen ari da jokatutako kopurua. Gastu errealari dagokionez, eboluzioa handiagoa izan da, Euskadin 2012-2013 bitartean % 23,4 handiagoa izan da; horrek esan nahi du marjina handiagoa dela.

-Estatuan apustu lokaletan 2006-2013 bitartean jokatutako kopuruak, milioi eurokotan (1)-



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzako apostuen txostena

-Estatuan 2006-2013 bitartean apustu lokaletan egindako gastu errealaren eboluzioa, milioi eurokotan4-



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzako apostuen txostena.
** Gastu errealaren urteko hazkundea*

[4] *Oharra: Kopuruan ordainetako kirol apustuak eta zaldi lasterketetako apustuak daude jasota, Eusko Jaurlaritzaren lizentzia duten apustu lokaletakoak soilik.*

G. ZALDI LASTERKETETAKO APUSTUAK

Sektorean diru sarrera gehien sortzen duena ez bada ere, Euskadin tradizio handiko jokoa da zaldi lasterketetan apustu egitea. Horrela, 100 urte baino historia luzeagoa izanik, 2013-2014 bitartean bertako apustu kopurua %8,8 gehitu da, eta 0,506M€ lortu dira 2014an, nahiz eta jokoaren sektoreak aldi txarra izan duen azken urte hauetan.

Hala ere, kanpoko apustuetan krisia gogorrago nabaritu da: 2013-2014 bitartean jokatutako kopurua % 3,8 gutxitu da. Kontuan izan behar da zaldi lasterketetako kanpoko apustuetan mugitzen dela jokatutako kopuru handiena.

-Euskadin 2013-2014 bitartean zaldi lasterketetako barneko apustuetan jokatutako kopuruak, milioi eurokotan-



Euskadin 2013-2014 bitartean zaldi lasterketetako kanpoko apustuetan jokatutako kopuruak, milioi eurokotan-



1.4 Sektoreko eragile nagusiak

A. Autonomia Erkidegoan

- **Aretoak**
  - ASE. Euskadiko Joko Aretoen Elkartean daude Erkidegoko aretoen % 99.

- **Jolas makinak**
  - FVEJ. Euskadiko Joko Enpresarien Elkartean bilduta daude jolas makinak dituzten ostalaritza lokalen % 99. FVEJ elkarteko kideak hauek dira:
    - ✓ AMA Arabako Jolas Makinen Elkartea.
    - ✓ AGUIMAR. Gipuzkoako Jolas Makinen Enpresa Elkartea.
    - ✓ ASERVI. Bizkaiko Jolas sektoreko Enpresarien Elkartea.

- **Bingoak**
  - ABE. Euskadiko Bingoen Elkartea.

- **Jokoaren mendekotasuna duten pertsonei laguntzeko elkartea**
  - ASAJER. Errehabilitazioan diren Arabako Jokalarien Elkartea.
  - EKINTZA ALUVIZ. Ludopatei Laguntzeko Bizkaiko Elkartea.

(1) Euskadiko Hipodromo eta Zaldi Apustuen enpresak emandako datuak

- EKINTZA DASALUD. Gipuzkoako Mendekotasun Psikologikoen Errehabilitazio Elkartea.

- Jokalari anonimoak.

➢ **Online jokoko enpresak**

➢ *EKASA:* RETA (Red Telemática de Apuestas) markarekin dihardu apustu enpresa horrek. 2002an sortu zen, kirol apustuen negozioa erabat kudeatzeko gai izango zen teknologia garatzeko asmoz, apustu enpresen bidez. Gaur egun, online bidea ere badu.

➢ CODERE: Victoria Garaipen Apustuak hasierako esleipendunetariko bat izan zen. 2007an eskuratu zuen lizentzia. Gaur egun apustu etxeen bidez dihardu. 2012an, lizentzia eskuratu zuen, Estatu mailan online jokoa garatzeko eta ustiatzeko.

➢ *TELEAPOSTUAK*: Apustu enpresa hau zenbait euskal enpresaburuk osatzen dute eta Kirolbet markaz lan egiten du. 2007an sortu zen, Eusko Jaurlaritzak lizentzia esleitu ondoren. Gaur egun, Kiroljokoak enpresak hainbat kirol joko ditu, eta 2013tik online jokoen eskaintza ere badu.

B. Estatuan

➢ **Aretoak**

- ANESAR. Jolas aretoen enpresaburuen elkarte nazionala

➢ **Kasinoak**

- AECJ. Joko aretoen espainiar elkartea. Guztira, 28 zentro biltzen ditu eta 5.000 pertsona ingururi ematen die lana.

➢ **Jolas makinak**

- FACOMARE. Jolas makinen operadoreen espainiar elkartea.

- FEMARA. Jolas eta ausazko makinen operadoreen federazio nazionala.

- EUROPER. Estatu osoko jolas makinen enpresa txiki eta ertainak biltzen ditu.

➢ **Interneten bidezko jokoa.**

- jdigital. Joko digitaleko espainiar elkartea (lehen, ADEPI zena). Irabazi asmorik gabeko elkartea, 2011n sortua, Espainiako joko digitalaren industriaren irudia eta interesak babesteko eta haien inguruko informazioa emateko.

➢ **Jokoaren mendekotasuna duten pertsonei laguntzeko elkartea.**

- Jokalari anonimoak.
- FEJAR. Birgaitutako ausazko jokalarien espainiar federazioa. 1991n sortutako elkarte honen funtsezko eginkizuna da bertako afiliatuen artean irizpideak eta ekintzak bateratzea, ausazko jokoen eraginak jasaten dituztenen interesak hobeto babesteko.

C. Nazioartean

➢ **Jokoaren mendekotasuna duten pertsonei laguntzeko elkartea.**

- GAMCARE. Irabazi asmorik gabeko elkartea, jokoak gizartean duen eraginaren inguruko informazio eta laguntza praktikoaz hornitzeko. Hiru helbururen inguruan egiten dute lan:
  Alde batetik, jokoak gizartean duen gizarte eragina ulertzea; joko arduratsua sustatzea; eta jokoaren mendekotasuna duten pertsonei laguntza ematea.

➢ **Enpresa elkarteak**

- EGBA. European Gaming and betting Association. Irabazi asmorik gabeko elkartea, tokiko eta Europako agintariekin batera lan egiten duena, eskaintza arautua eta erakargarria eskatzeko helburuz. Europako joko elkarteen operadore eta elkarte nagusiek osatua: bet at home.com, betClick, bwin.party digital entertaiment, digibet, expekt, Unibet, GBGA.

- IGC. Interactive Gaming Council. Irabazi asmorik gabeko elkartea, AEBn 1996an sortua eta, geroago Vancouverrera eraman zutena, 2000n, hain zuzen. Joko arduratsuko estandarrak eta praktikak sortzeko eratua, kontsumitzailearen konfiantza eskuratzeko.

- IBAS. The Independent Betting Adjudication Service 1998an sortu zen, operadoreen eta bezeroen arteko liskarrak konpontzeko.

- RGA. Remote Gambling Association. 2005ean sortu zen eta ausazko jokoen merkatuko munduko elkarterik handiena da. Interneteko ausazko joko enpresarik handienak ditu.
- IAGR. The International Association of Gaming Regulators. 1980an sortu zen era informalean, eta International Association of Gaming Attorneys erakundeko kidea zen. 2010ean elkarte independente izatera pasatu zen. Oraingo helburua da jokoaren araubidean eraginkortasun eta efizientzian aurrera egitea.

- IAGA. International Association of gambling Advisors. Industriako zenbait abokatu eta jokalari elkartzen ditu, exekutibo seniorrak, finantza aholkulariak, arautzaileak eta irakasleak barne.

➢ **Online jokoko enpresak**

- 888.com. 1997an sortu zen eta Gibraltarreko lizentziaz aritzen da. Bertan lehenetsitako jarduera ildoak kasinoak eta online pokerra dira. Bere asmoa da ausazko online jokoen mundu mailako merkatua lideratzea.

- BETFAIR INTERNATIONAK PLC. Sozietate anonimo bat da, Maltan kokatua, Betfair taldekoa. Konpainia horrek 2010eko udatik dihardu lanean, online jokoak eskaintzen espainiar bezeroei, jokoa arautzen duen maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen babespean.

- Bwin.party digital entertainment. PartyGaming Plc-ren eta Bwin Interactive Entertainment AG-ren artean 2011ko martxoan izan zen fusioaren emaitza da. Fusio horri esker, sektorean lider izatea lortu zuten. Gaur egun, PartyPoker (online pokerra) eta bwin (kirol jolasetako online apustuak) markekin dihardu. Gibraltarren du egoitza eta Londreseko burtsan kotizatzen du.

- EGASA TALDEA: A Coruñan helbidea duen Corporación Empresarial Egasa S.L. taldearen sozietate nagusia da. EGASA taldeak, sektoreko talde liderra izanik, lineako jokoa eskaintzen du Estatu mailan 2012tik hona, Luckia markaren azpian. Horrela, bateratu egiten da lineako eta aurrez aurreko eskaintza zabala, bai Espainian, bai Europako ekialdean eta bai Latinoamerikan. Aurrez aurreko jokoan esperientzia zabala du. Azpimarratzekoa da hainbat kasinoren eta joko aretoren titularra dela zenbait autonomia erkidegotan (besteak beste, Euskadin). Sol Park markaren azpian, 60 joko areto baino gehiago ditu.

- LADBROKES. Ladbrokes International, PLC britainiar enpresa bat da, ausazko jokoetan eta kirol apustuetan diharduena, offline zein online. Bulego nagusiak Rayners Lane-n ditu (Harrow, Londres) ditu eta Londreseko burtsan kotizatzen du. 1902an sortu zen. Espainian, gaur egun, (i) online apustu eta kasinoko jokoak merkaturatzen ditu, LBapuestas markarekin; eta (ii) kasino eta apustu fisikoak eta lineakoak, Sportium markarekin, Espainian online jokoaren merkatuari batera ekiteko, CIRSA DIGITAL S.A.U. operadore katalanarekin iritsitako akordioaren ondorioz.

- WILLIAM HILL. Kiroletako online apustuen enpresa liderretariko bat da. Egoitza soziala eta lizentzia Erresuma Batuan ditu. Une honetan, 150 herrialdetan ditu bezeroak. 2013ko irailean miapuesta.com ataria erosi zuen Espainian, Interneten bidezko apustu enpresen arteko liderren artean kokatuz. 1934an sortu zen.

- CARMEN MEDIA GROUP. Online kasinoak, pokerra eta kirol apustuak dira bere jardun eremuak. Egoitza eta lizentzia Gibraltarren baditu ere, mundu osoan dago zabalduta. 2002an sortu zen.

- UNIBET. NASDAQ OMX Stockholmeko burtsan kotizazio ofizial publikoa duen konpainia da. Unibet.com atariak hau eskaintzen die 100 herrialde baino gehiagotan dituen 8,9 milioi bezeroei: online kirol apustu, kasino, joko eta pockerrerako plataforma. 1997an sortu zen.

- ORENES TALDEA: Jokoaren sektoreko liderra den espainiar taldea.

Azpimarratzekoa da jolas, kasino, bingo, kirol apustu eta online jokoetan duen presentzia. Lineako jokoa vivelasuerte.es atariaren bidez du. Joko fisikoko eskaintza Espainiako hegoaldean, Kanariar eta Balear uharteetan dago kokatuta, batez ere.

- CASINO DE JUEGO GRAN MADRID S.A.: Kasinoetan diharduen espainiar sozietatea da, Europako eskaintzarik osoena eskaintzen duena mahai jokoetan eta ausazko makinetan. Torrelodoneseko (Madrilgo Erkidegoa) kasinoaren titularra da. Beste areto txikiago bat du hirian. Online jokoko operadorea da, Estatuan eta Madrilgo Erkidegoan.

- RANK GROUP: Jatorri britainiarreko enpresa taldea da, bingo jokoak eta kasinoak eskaintzen dituena Erresuma Batuan, Belgikan eta Espainian. Kasinoko jokoen online zerbitzuak eskaintzen ditu, Rank Malta Operations, PLC sozietatearen bidez.

- PERELADA TALDEA: Kataluniako enpresa talde familiarra da, hainbat sektoretan dagoena, esaterako, kasinoko jokoetan; bai offline (Casino Barcelona, Casino Peralada eta Casino Tarragona, eta Latinoamerikan kokatutako batzuetan), bai online. Casino de Barcelona interactiva S.A. sozietatea kasinoko online jokoak ustiatzeko Estatuko lizentziaren titularra da 2012tik.

- ZITRO: Kataluniako joko talde bat, bingoaren azpisektorean liderra dena. Zitro Online, SAU sozietatearen bidez dihardu lineako merkatuan, bingoko zerbitzuak eskaintzen. Bingoko jokorako software hornitzailea da atzerriko joko operadoreentzat.

COMAR TALDEA: Espainiar enpresa taldea, jokoaren sektorean esperientzia zabala duena, kasinoko jokoak, bingoa eta jolas aretoetako zerbitzuak eskaintzen. Comar Inversiones, S.A. sozietateak kasinoko online jokoak ustiatzen ditu, 2012an eman zitzaizkion Estatuko lizentziei esker.

1.5 Zifra makroekonomiko nagusiak

Zifra makroekonomiko nagusiak aztertzeak lagundu egiten du sektorea Euskadiko Autonomia Erkidegoko ekonomian kokatzen, ikuspegi global batetik. Edozein sektoretako eskaria, eta, ondorioz, jokoaren sektorekoa bezero potentzialen menpean dago zuzen-zuzen. Horrela bada, aztertu beharreko lehenengo datu makroekonomikoa biztanleriaren eboluzioa da.

Ondoren ageri den grafikoan ikus daiteke biztanleriaren hazkundea Euskadin eta Estatuan oso txikia izan dela. Zehatzago esanda, Autonomia Erkidegoan, hazkundea % 3koa izan da 2006tik 2013ra; Estatuan, denbora berean, % 6koa izan da.

-Biztanleriaren eboluzioa Estatuan eta Euskadin 2006-2013 bitartean, milioi pertsonakotan



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa eta EIN.

Hala ere, jokoaren eskari potentzialaren benetako egoerara hurbiltzeko, Gizarte Segurantzan izena emanda dagoen biztanleriarekin alderatuko dugu Lan merkatu handiagoa izatearen ondorioa da biztanle bakoitzeko errenta handiagoa izatea. Hortaz, baliabide gehiago izango da aisiara eta jokora bideratzeko. Grafikoa aztertzean, kontuan izan behar da bizi dugun egoera ekonomikoa; arrazoi horregatik jaitsi da Gizarte Segurantzako afiliatuen kopurua azken 7 urteotan, bereziki 2008tik aurrera, bai EAEn eta bai Estatuan. Estatuan nabarmenagoa izan da beherakada: % 7,7; Euskadin, ordez, % 3,1.

-Gizarte Segurantzan izena emanda daudenen kopurua Euskadin, 2006-2012 bitartean, mila langilekotan.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa eta EIN.

-Gizarte Segurantzan izena emanda daudenen kopurua Estatuan, 2006-2012 bitartean, milioi langilekotan



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa eta EIN.

Jokatutako kopuruei dagokienez, kantitate absolutuetan, 880 milioi eurora heldu gara Euskadin, eta 28.111 milioi eurora Estatuan. Euskadiko jokoaren sektoreak Estatukoarekiko duen pisua asko murriztu da, 2006ko % 4,7tik 2013ko % 3,1era.

-Euskadin eta Estatuan jokatutako kopuruen eboluzioa 2006-2013 bitartean, milioi eurokotan



Iturria: Espainiako Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren urteko txostenak.

Jokoari lotutako zerga bilketa Euskadin

Sektorearen guztizko fakturazioa bitan banatzen da: zerga bilketa eta sektorerako sarrera garbia. Euskadin, zerga bilketa foru ogasunek egiten dute eta haiei dagokie Jaurlaritzari dagokiona banatzea. Eusko Jaurlaritzak biltzen dituen zergak bingo eta makinetatik baino ez datoz.

Euskadiko jokoaren gastu errealaren banaketa aztertzen badugu, ikusten da banaketak ez duela aldaketa esanguratsurik izan urteetan zehar.

-Gastu errealaren banaketaren eboluzioa foru aldundien, erkidegoetako gobernuen eta enpresen artean, milioi eurokotan



Iturria: Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza, Zerga Administrazioko Zuzendaritza

(35. orrialdean aurkitu daiteke jokoari lotutako zerga bilketa zein izan den Euskadin 2007 eta 2013 bitartean).

Ondoren dagoen grafikoak joko motaren arabera irudikatzen du bilketa. Foru aldundietara eta Eusko Jaurlaritzara ekarpenik handiena egiten duten jokoak B makinak dira gaur egun.

-Joko moten bilketaren eboluzioa Euskadin, milioi eurokotan



Iturria: Zerga Administrazioko Zuzendaritza

Gastu errealaren proportzioa BPGd-an

Garrantzizkoa da jakitea zenbatekoa den sektoreko gastu erreala Estatuan, BPGd-a kontuan hartuta, baita Euskadin ere. Grafikoan ikusten denez, 2013. urtean, Estatuko BPGd-a kontuan hartuta, jokoaren sektorearen pisua % 0,799koa da; Euskadin, ordea, % 0,63koa da; hau da, Autonomia Erkidegoko gastuaren pisua Estatuko batez bestekoa baino murritzagoa da.

-Jokoaren sektorearen pisua BPGan, 2013an



Iturria: Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza, EIN, Eustat.

Ondoren, jokoari lotutako gastu errealaren eta, oro har, aisiaren sektorearen fakturazioaren azterketa egingo da, jokoaren gastuaren magnitude ordena ikusteko.

Alde horretatik, ondorengo taulan ikusten dugu jokoaren sektorearen pisu erlatiboa aisiaren sektorean, oro har, igo egin dela bai Euskadin eta bai Estatuan, bi sektoreetan gastu erreala jaitsi bada ere. Horrek erakusten digu aisiaren beste azpisektore batzuetan jaitsiera jokoan baino handiagoa izan dela.

		2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
EAE	JOKOA	436.810.000 €	448.610.000 €	465.790.000 €	439.920.000 €	470.300.000 €	424.800.000 €	422.013.735 €	395.960.000 €
	AISIA	1.917.275.250 €	1.926.170.240 €	1.791.254.000 €	1.809.449.610 €	1.797.600.130 €	1.685.545.200 €	1.749.654.930 €	1.552.473.160 €
	Jokoa/aisia	**23%**	**23%**	**26%**	**24%**	**26%**	**25%**	**24%**	**26%**
ESTATUA	JOKOA	9.333.400.000 €	9.846.260.000 €	10.159.000.000 €	9.498.320.000 €	9.374.600.000 €	8.965.400.000 €	8.491.866.983 €	8.091.769.516 €
	AISIA	33.709.035.100 €	36.917.512.210 €	37.223.071.120 €	35.624.295.010 €	34.325.372.830 €	33.153.894.700 €	30.218.773.920 €	27.990.059.730 €
	Jokoa/aisia	**28%**	**27%**	**27%**	**27%**	**27%**	**27%**	**28%**	**29%**

JOKOARI LOTUTAKO ZERGA BILKETA EUSKADIN

Mila eurokoak		Kontzeptua	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
2007	EAE	Bingo jokoaren zerga	€ 748	€ 3.764	€ 1.752	€ 6.264
		Makinen zergen bilketa	€ 521	€ 2.243	€ 1.118	€ 3.882
	Foru Aldundiak	Bingo jokoa	€ 3.738	€ 18.834	€ 8.755	€ 31.327
		Makinak	€ 4.490	€ 19.960	€ 9.318	€ 33.768
		Kasinoa	€ 45	€ 2.531	€ 1.068	€ 3.644
	Guztira		€ 9.542	€ 47.332	€ 22.011	€ 78.885
2008	EAE	Bingo jokoaren zerga	€ 670	€ 3.293	€ 1.593	€ 5.556
		Makinen zergen bilketa	€ 513	€ 2.247	€ 1.117	€ 3.877
	Foru Aldundiak	Bingo jokoa	€ 3.348	€ 16.465	€ 7.936	€ 27.749
		Makinak	€ 4.355	€ 18.265	€ 9.313	€ 31.933
		Kasinoa	€ 28	€ 2.487	€ 1.055	€ 3.570
	Guztira		€ 8.914	€ 42.757	€ 21.014	€ 72.685
2009	EAE	Bingo jokoaren zerga	€ 567	€ 2.779	€ 1.320	€ 4.666
		Makinen zergen bilketa	€ 534	€ 2.219	€ 1.128	€ 3.881
	Foru Aldundiak	Bingo jokoa	€ 2.832	€ 13.885	€ 6.447	€ 23.164
		Makinak	€ 4.404	€ 18.716	€ 9.446	€ 32.566
		Kasinoa	€ 163	€ 1.997	€ 839	€ 2.999
	Guztira		€ 8.500	€ 39.596	€ 19.180	€ 67.276
2010	EAE	Bingo jokoaren zerga	€ 530	€ 2.572	€ 1.183	€ 4.285
		Makinen zergen bilketa	€ 541	€ 2.272	€ 1.173	€ 3.986
	Foru Aldundiak	Bingo jokoa	€ 2.652	€ 12.872	€ 5.853	€ 21.377
		Makinak	€ 4.761	€ 19.296	€ 9.890	€ 33.947
		Kasinoa	€ 248	€ 2.167	€ 1.053	€ 3.468
	Guztira		€ 8.732	€ 39.179	€ 19.152	€ 67.063
2011	EAE	Bingo jokoaren zerga	€ 375	€ 1.847	€ 793	€ 3.015
		Makinen zergen bilketa	€ 605	€ 2.365	€ 1.212	€ 4.182
	Foru Aldundiak	Bingo jokoa	€ 1.906	€ 9.390	€ 3.965	€ 15.261
		Makinak	€ 5.061	€ 19.584	€ 10.169	€ 34.814
		Kasinoa	€ 324	€ 2.523	€ 1.177	€ 4.024
	Guztira		€ 8.271	€ 35.709	€ 17.316	€ 61.296
2012	EAE	Bingo jokoaren zerga	€ 273	€ 1.587	€ 627	€ 2.487
		Makinen zergen bilketa	€ 561	€ 2.409	€ 1.111	€ 4.081
	Foru Aldundiak	Bingo jokoa	€ 1.393	€ 8.107	€ 3.182	€ 12.682
		Makinak	€ 4.676	€ 18.911	€ 9.245	€ 32.833
		Kasinoa	€ 400	€ 1.997	€ 1.189	€ 3.587
	Guztira		€ 7.303	€ 33.011	€ 15.354	€ 55.670
2013	EAE	Bingo jokoaren zerga	€ 193	€ 1.392	€ 519	€ 2.104
		Makinen zergen bilketa	€ 574	€ 2.258	€ 1.143	€ 3.975
	Foru Aldundiak	Bingo jokoa	€ 989	€ 7.370	€ 2.825	€ 11.184
		Makinak	€ 4.823	€ 18.952	€ 9.542	€ 33.317
		Kasinoa	€ 517	€ 2.053	€ 1.666	€ 4.236
	Guztira		€ 7.096	€ 32.025	€ 15.695	€ 54.816

2. Jokoa, fenomeno soziala

2.1. Sarrera

Aurreko ataletan egindako azterketa ekonomikoan ikusten da herritarren ohiturek eskarian duten eraginak aldaketak eragiten dituela.

Hori dela eta, inkesta soziologikoa egin da jakiteko jokoaren jarduerak nolako inplikazio sozialak dituen Euskal Autonomia Erkidegoan. Azterketaren helburua da jakitea zein diren herritarren jokaerak eta iritziak jarduera horri buruz, nolako bilakaera izan duen jarduera horrek, zenbateraino erabili diren teknologia berriak eta nolako eragina duten gizarteko ohituretan.

Metodologia

Landa lana telefono bidezko elkarrizketak egiten espezializatua dagoen enpresa batek egin du. Euskadin bizi diren 550 lagunek osatzen dute aztergai izan den lagin-unibertsoa (165 Araban bizi dira, 165 Bizkaian eta 220 Gipuzkoan) eta 16 urtekoak edo nagusiagoak dira guztiak. Horrezaz gain, udalerri, sexu eta adinaren arabera sailkatutako laginketa egin da, kuotekiko kopuru proportzionala finkatuz eta metodologia kuantitatiboa erabiliz. Laginketa errorea +/-%3,1 da eta konfiantza tartea %95.

2.2. Jokorako motibazioa eta iritzia

Atal honetan aztertuko dugu nola baloratzen duten Euskadiko biztanleek jokoaren sektorea eta zein diren motibazio eta arrazoi nagusiak herritarrak ausazko jokoetan parte hartzera bultzatzen dituztenak. Oraindik ere jende askok uste du jokoa arriskutsu samarra dela eta herritarren osasunean eta ekonomian kalte egiten duela, mendekotasuna sor dezakeelako eta ondorio kaltegarriak izan ditzakeelako bai jokalariarentzat, bai bere ingurukoentzat.

-Jokoaren gaineko iritziak 1990., 2007. eta 2014. urteetan



Jokoaren gaineko iritziak nazioartean

Gambling Comission batzordeak 2010ean egin zuen inkestaren arabera, jokoaren gaineko iritzi txar hori Erresuma Batuan ere badago. 7.759 pertsonari itaundu zitzaien ea jokoa gizartearentzat ona den eta gehienek ezetz erantzun zuten.
Gauza bera gertatzen da mundu osoan. Adibide modura, 2013an Pew Research Center-ek moraltasunaren ikuspegi globalaz egindako inkestak hartuko ditugu. 40 herrialdek hartu zuten parte eta herritarrei 8 gai eztabaidagarri aurkeztu zitzaizkien, moralki onargarriak iruditzen zitzaizkien ala ez, ala haien ustez ez ziren arazo moralak adieraz zezaten. Mundu mailako inkesta hartan, % 62k erantzun zuen jokoa ez zitzaiola moralki onargarria iruditzen. Jokoari buruzko iritzi onena Europako herrialdeetan (batez beste, % 32k eman zuen balorazio txarra) eta Ipar Amerikan dago (batez beste, %24k eman zuten balorazio negatiboa).

Iturria: British Gambling Prevalence Survey 2010 eta Pew Research Center, "The 2013 Global Views on Morality survey"

Jokoaren balorazioa eta lan egoeraren arteko erlazioari dagokionez, etxeko lanak egiten aritzen direnak eta erretiratuak dira jokoan arrisku gehien ikusten dutenak.

	Lan egoera				
	Lanean	Langabezian	Erretiratuta	Ikasten	Etxeko lanetan
Arriskutsu samarra	56,5%	60,2%	68,6%	56,0%	74,3%
Denbora-pasa	15,6%	8,6%	10,9%	24,0%	7,1%
Poza ematen duena	13,3%	23,7%	10,2%	20,0%	8,6%

Populazioa ausazko jokoetan parte hartzera bultzatzen duten motibazioak aldatu egin dira urteetan zehar. Arlo horri dagokionez, ikusten da jendeak uste duela orain dirua irabazteko jokatzen dela gehiago mendekotasunagatik baino. Horregatik, jokatzen den kopuruaren beherakada txikiena loterian eta ONCEn gertatu da; izan ere, arazo ekonomikorik izanez gero, jendeak sari handiak ematen dituen zozketak nahiago ditu dibertitzeko jokatzea baino.

-Zergatik jokatzen duen jendeak



2.3. *Ausazko jokoen inguruko ohitura sozialak*

Urteetan zehar, bai sektorearen balorazioan, bai herritarren motibazioan gertatu diren aldaketak aztertu ondoren, jokorako ohituretan nolako aldaketak jazo diren aztertuko dugu.

Gaur egun, egindako laginketaren emaitzek erakusten dute, **joko guztiak** kontuan izanik, pertsona gehiagok jokatzen duela, baina 2007an baino maiztasun txikiagoz.

Estatuarekin konparatuz, Euskadin jende gehiago dago urtean behin edo zenbait aldiz jokatzen duena.

-Jokatzen duzu ausazko jokoetan?



Beheko grafikoan ikus genezake loteria jokoa dela azken urtean eskari handiena izan duena. Horren arrazoia da, arestian esan dugun bezala, herritarrek sari handiak dituzten jokoak nahiago dituztela.

-Zertan jokatu duzue azken 12 hilabeteetan? (2014)-



Erresuma Batuko joko ohiturak

Erresuma Batuko Gambling Comission erakundearen datuen arabera, 2014ko lehenengo hiru hilekoetan eskaririk handienak izan zuten jokoak hauek izan ziren: Loteria Nazionala (% 39), beste loteria batzuk (% 15), berehalako txartelak (% 10) eta zaldi lasterketetako apustuak (% 7).
Zaletasun horiek, zaldi lasterketetako apustuak kenduta, oso lotuta daude Euskadiko gustuekin.

Iturria: Gambling participation: activities and mode of access - September 2014

Bestalde, sektoreko eskaria gutxitu egin bada ere, beheko grafikoan ikusten den bezala jendeak uste du gaur egun gehiago jokatzen dela, galdetuen % 61,3k dute iritzi hori, 2007an, ordea, % 57,6k pentsatzen zuten horrela.

-Jendeak duela urte batzuk baino gehiago, gutxiago edo berdin jokatzen du?



Joko guztien maiztasuna lurraldeka aztertuta, aipagarria da Gipuzkoan jendeak maiztasun handiagoz jokatzen duela Erkidegoko beste leku batzuetan baino. Hala ere, hiru lurraldeetan, jende gehienak jokatzen du noizbehinka, hau da, urtean behin edo batzuetan.

	Lurraldea:		
	Araba	Bizkaia	Guipuzkoa
Inoiz ere ez	26,7%	20,9%	20,6%
Urtean behin edo batzuetan	46,1%	53,6%	46,1%
Hilean behin edo batzuetan	12,7%	9,5%	10,9%
Astean behin edo batzuetan	13,9%	15,9%	22,4%
Egunero	0,6%	0%	0%

Bestalde, sexuen arteko desberdintasunak oso esanguratsuak dira. Gizonezkoek jokatzen dute gehien, % 80,8k, eta emakumezkoek, berriz, % 76,1ek. Maiztasunari dagokionez, gizonezkoek aitortzen dute jokatzeko ohitura dutela eta emakumezkoek noizean behin jokatzen dutela.

	Sexua	
	Gizonak	Emakumeak
	19,2%	23,9%
Urtean behin edo batzuetan	45,3%	54,5%
Hilean behin edo batzuetan	16,2%	5,1%
Astean behin edo batzuetan	19,1%	16,5%
Egunero	0,2%	0,0%

Jokalarien formazioari dagokionez, aipatu beharrekoa da unibertsitarioak direla gutxien jokatzen dutenak, baina desberdintasunak txikiak dira.

	Ikasketak		
	Ikasketarik ez	Ikasketa ertainak	Unibertsitate ikasketak
Inoiz ere ez	18,8%	20,3%	23,5%
Urtean behin edo batzuetan	50,3%	51,1%	50,3%
Hilean behin edo batzuetan	11,0%	10,2%	10,6%
Astean behin edo batzuetan	19,8%	18,1%	15,6%
Egunero	0,0%	0,2%	0,0%

Jokatzeko ohituraren eta egoera zibilaren arteko erlazioa adierazten duen aldagaiak ere desberdintasunak erakusten ditu; izan ere, ezkonduta daudenek eta bikotea dutenek gehiago jokatzen dute, modalitate guztietan, ezkongabeek baino.

	Egoera zibila		
	Ezkongabea	Ezkondua/Bikotean	Alarguna
Inoiz ere ez	28,0%	17,8%	21,2%
Urtean behin edo batzuetan	47,6%	52,0%	51,9%
Hilean behin edo batzuetan	10,4%	9,3%	9,6%
Astean behin edo batzuetan	14,0%	20,9%	17,3%
Egunero	0,8%	0,0%	0,0%

Teknologia berriak erabiltzeko ohiturei dagokienez, aipatzekoa da online jokoen eskaintza eta eskaria gehitu egin diren arren, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek nahiago dutela modu tradizionalean jokatu edo apustu egin. Hala ere, ikusten da gero eta joera handiagoa dagoela teknologia berriak erabiltzeko; izan ere, nabarmen gehitu da, herritarren % 13,4k aitortzen baitute aurrez aurre eta online jokatzen dutela.

-Apustu gehiago egiten dituzu modu tradizionalean ala teknologia berrien bidez?



Teknologien erabilera Erresuma Batuan

Erresuma Batuan egindako inkestaren arabera, han eta Euskadin antzeko joera dago teknologien erabilerari dagokionez, nahiz eta Erresuma Batuan online kanalaren erabilera hedatuago dagoen. Datuetara joz, galdetutakoen % 71k esan zuen era tradizionalean baino ez zuela jokatzen eta %13k online baino ez.

Iturria: Gambling participation: How people gamble - September 2014

Jokatzeko teknologia berriak erabiltzen dituztela erantzun dutenen artean, eskari handiena duten jokoak online Pokerra, Kirol Apustuak eta Kasino Birtuala dira.

-Teknologia berrien bidez eskaririk gehien duten modalitateak



Apustua online egiten duen jokalariak normalean modu tradizionalean ere jokatzen du eta beraren profil soziologikoa hau da: 25-44 urteko gizonezkoa, ezkongabea eta lanean ari dena, profil hori eta beste joko modalitateetan jokatzen duenarena ez dira berdinak.

	Adina		
	16-24 urte	25-44 urte	45-65 urte
Modu tradizionalean eta online jokatzen duen jokalariaren profila	19,00%	61,80%	19,0%

	Egoera zibila		
	Ezkondua/Bikotean	Ezkongabea	Banandua
Modu tradizionalean eta online jokatzen duen jokalariaren profila	27,6%	58,3%	13,9%

	Lan egoera		
	Langabezian	Lanean	Ikasten
Modu tradizionalean eta online jokatzen duen jokalariaren profila	19,1%	67,0%	14,0%

Online jokoa Erresuma Batuan

Online jokoa Erresuma Batuan eta Euskadin noraino dagoen sartuta alderatuz gero, alde handiak daudela ikusten dugu: Erresuma Batuan %11k aitortzen du online jokatzen duela eta Euskadin, berriz, %2k baino ez.

Iturria: Gambling participation: activities and mode of access - September 2014

Jokatzen den diru kopurua, orokorrean, bai maiztasunez jokatzen dutenena (hilean behin gutxienez), eta oso noizean behin jokatzen dutenena (urtean behin gutxienez) oso txikia da.

	Jokalari mota	
	Noizbehinkakoa	Ohikoa
0-5 euro	77,9%	25,3%
6-15 Euro	9,9%	42,8%
16-40 euro	6,2%	26,0%
41-80 euro	1,6%	3,4%
81-150 euro	1,8%	1,0%
ED/EdE	2,6%	1,5%

Ohituren azterketarekin jarraituz, ikusten dugu Euskadiko jokalariek gero eta gehiago jokatzen dutela bakarrik lagunekin baino. Online jokoak eta teknologia berriak gehitzeaz batera, joera hori ere gehitu egin da, geuk ditugun tresnen bidez joka genezakeelako. Beste norbaitekin jokatzen dutenen artean, familiakoekin edo lagunekin jokatu nahi izaten dute, eta 2007an % 7k jokatzen zuen lankideekin; gaur egun, berriz, % 2k baino ez.

-Normalean bakarrik jokatzen duzu ala beste norbaitekin?



Jokatzeko modua sexuaren arabera aztertuta, ikusten da gizonezkoek gehiagotan jokatzen dutela bakarrik, eta emakumezkoek nahiago dutela familiarekin jokatu. Bakarrik jokatzen duen jokalariaren profila, gizonezkoa, alarguna eta erretiratua da. Beste aldetik, beste norbaitekin batera jokatu nahi duten jokalarien artean, profila etxekoandrearena da. Aipagarria da ikasleek lagunekin batera jokatu nahi izaten dutela.

	Sexua	
	Gizona	Emakumea
Bakarrik	52%	45%
Lagunekin	25%	21%
Familiakoekin	17%	28%
Lankideekin	2%	3%
Beste batzuekin	2%	0%

	Lan egoera				
	Lanean	Langabezian	Erretiratua	Ikasten	Etxeko lanetan
Bakarrik	45,2%	46,8%	57,7%	12,5%	54,5%
Lagunekin	21,7%	22,8%	18,0%	75,0%	20,0%
Familiakoekin	22,3%	22,8%	23,4%	12,5%	25,5%
Lankideekin	1,8%	3,4%	1,1%	0,0%	0,0%
Beste batzuekin	1,8%	0,4%	0,5%	0,0%	0,9%

	Egoera zibila		
	Ezkongabea	Ezkondua	Alarguna
Bakarrik	40,9%	49,0%	59%
Lagunekin	31,2%	21,3%	14,3%
Familiakoekin	18,5%	24,4%	23,6%
Lankideekin	3,5%	0,9%	2,7%

2.4. Ausazko jokoen bermeak

Herritarren % 68,7k uste du tranpa edo trikimailuren bat dagoela. Gainera, horrela uste dutenen kopurua hasi egin da 2007tik, orduan % 64,5 baitzen. Bestelako iritzia dutenen kopurua, hau da, ez dagoela trikimailu edo tranparik, gutxitu egin da, 2007an % 14,2 zen eta 2014an % 14,2.

-Badago trikimailu edo tranparik ausazko jokoetan?

2007



2014



Mesfidantza hori, gainera, Estatuak kudeatutako jokoetara eta legeztatuta eta kontrolatuta daudenetara hedaturik dago. Hori dela eta, sektorearekiko mesfidantza dutenen % 31,7k uste du joko guztietan daudela trikimailuak. Haien arteko % 17,2 ez da fidatzen legeztatuta dauden jokoez, eta % 16,2k mesfidantza du joko klandestinoekiko. Datu esanguratsua da islatzen duena badaudela herritarrak Estatuak kudeatutako jokoez fidatzen ez direnak. Laburbilduz, esan genezake gaur egun sektorearekiko nolabaiteko mesfidantza dagoela, edozein delarik ere jokoaren izaera juridikoa edo kudeatzailea.

-Zein jokotan daude trikimailu edo tranpak?



Joko munduaren segurtasunari buruzko iritzia ere ez da aldatu teknologia berrien eta online jokoaren etorrerarekin. Orain ere, lehen bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek uste dute modu tradizionala dela apustu egiteko edo jokoan egiteko modurik seguruena.

-Seguruagoa da teknologia berrien bidez jokatzea ala era tradizionalean?



	Adina			
	16-24 urte	25-44 urte	45-65 urte	65 urte baino gehiago
Seguruago era tradizionalean	92,3%	76,8%	82,1%	82,1%
Seguruago teknologia berriekin	0,0%	2,7%	4,2%	5,0%
Biak dira seguruak	7,7%	13,4%	13,2%	7,0%
Bat ere ez	0,0%	7,1%	1,0%	6,0%

2.5. Administrazioaren esku-hartzea

2007tik aurrera hasi ziren herritarrak konturatzen garrantzitsua zela Administrazioak jokoa kontrolatzea. Joera hori dago gaur egun ere eta ikusten da, gainera, jendeak uste duela Administrazioak protagonismo handiagoa izan beharko lukeela sektorearen kudeaketan eta antolamenduan eta gero eta jende gutxiagok uste duela ez lukeela esku hartu behar.

-Administrazioaren jarduera jokoaren aurrean, 1990., 2007. eta 2014. urteetan



Jokoa debekatzeari dagokionez, herritarren iritzia ia ez da aldatu 2007tik gaur egun arte, 1990etik 2007ra bitarteko aldaketa finkatu egin da.

-Joko mota guztiak baimendu/debekatu



Arlo horri buruzko iritzia eman duten pertsonen profil soziologikoaren azterketa egitean, desberdintasun handiak ikusten dira. Mutur batean, langabezian dauden 25-44 urte bitarteko gizonezkoak daude eta horien artean daude joko guztiak baimenduta egon beharko liratekeela uste dutenen kopuru handiena. Eta beste muturrean, 65 urtetik gorako emakume erretiratuak daude; horiek dira zorrotzenak.

	Sexua	
	Gizona	Emakumea
Denak baimenduta	45,4%	42,4%
Batzuk baimenduta eta beste batzuk debekatuta	42,3%	43,8%
Denak debekatuta	12,3%	13,8%

	Adina			
	16-24 urte	25-44 urte	45-65 urte	65 urte baino gehiago
Denak baimenduta	40,2%	49,4%	43,2%	37,9%
Batzuk baimenduta eta beste batzuk debekatuta	46,4%	41,0%	44,5%	42,3%
Denak debekatuta	13,4%	9,6%	12,3%	19,8%

	Lan egoera				
	Lanean	Langabezian	Erretiratuta	Ikasten	Etxeko lanetan
Denak baimenduta	45,9%	47,9%	37,5%	50,2%	38,1%
Batzuk baimenduta eta beste batzuk debekatuta	43,0%	45,3%	43,0%	33,0%	48,2%
Denak debekatuta	11,1%	6,8%	19,4%	16,8%	13,8%

Aurrekoaren haritik, interesgarria da jakitea zein joko mota den gizarteak gutxien onartzen duena.

2014an, debekatuta egon beharko luketela gehien aipatu zirenak hauek izan ziren: B makinak, kasino birtuala eta online apustuak. Kontuan izan behar da 2007an ez zegoela online loteriei buruzko daturik, horrelakorik ez zegoelako, eta 2014an ikusten da kopuru handi batek (% 66,9) uste duela debekatuta egon beharko liratekeela.

Bestalde, aipatzekoa da ez dela hobetu ordainketei buruzko iritzia, apustu,bingo eta online kasinoetan.

-Debekatuta egon beharko luketen jokoak



Euskal herritarren artean, gehienek uste dute joko batzuek debekatuta egon beharko luketela eta beharbada izan liteke mendekotasuna sor dezaketelako. Horren harira, itaundutakoen % 92,6k uste du B makinek mendekotasuna sortzeko arriskua dutela, % 83k online kasinoek eta % 80,7k online apustuek. Gaur egun, modalitate guztiak ikusten dira mendekotasun sortzaileago aurreko urteetan baino.

-Mendekotasuna sor dezaketen jokoak



Administrazioaren eginkizun garrantzitsuenetako bat da kontrolerako behar diren neurriak ezartzea. Horretarako, beharrezkoa da jakitea zer iritzi duten herritarrek gaur egun ezarrita dauden neurriei buruz. Herritarren % 60k uste du neurri horiek ez direla nahikoa. Iritzi hori aldatu egiten da adinaren arabera. Ikasle gazteak dira kritikoenak gaur egun hartzen diren neurriekin eta 65 urtetik gorako pertsonak dira ondoen ikusten dituztenak.

	Adina			
	16-24 urte	25-44 urte	45-65 urte	65 urte baino gehiago
Ez	73,97%	63,68%	63,2%	48,2%
ED/EdE	9,04%	20,64%	23,5%	35,8%
Bai	16,99%	15,68%	13,4%	16,0%

	Lan egoera				
	Lanean	Langabezian	Erretiratuta	Ikasten	Etxeko lanetan
Ez	58,62%	66,35%	56,9%	84,6%	63,5%
ED/EdE	26,7%	19,3%	29,1%	6,0%	20,2%
Bai	14,6%	14,3%	14,0%	9,3%	16,2%

2.6. Publizitatea eta ausazko jokoak

Publizitateak jokoaren eskaeran duen eraginari dagokionez, jendearen % 83k uste du publizitateak eragin handia izan dezakeela. Iritzi hori ez da aldatu azken urteotan.

Jendearen % 50,5ek publizitatea mugatu egingo luke, adingabeak eta jokoarekin arazoak dituzten pertsonak babesteko, eta % 26k publizitate oro debekatuko luke. 2007ko datuekin konparatuz gero, desberdintasunak ez dira handiak, baina debekatzeari dagokionez, ordea, 2007an % 19k uste zuen debekatu egin behar zirela eta 2014an, % 26k.

Publizitateak eragina izan dezake pertsonengan eta gehiago jokarazi?



-Ausazko jokoen publizitatea baimendu egin beharko litzateke ala debekatu edo mugatu?



Gizartearen segmentu guztiak aztertuta, ikusten da publizitatea mugatzearen aldeko gehien 16-44 urte bitartekoen arten daudela eta ikasten edo lanean daudela. Baina, debekatzearen aldeko gehien 65 urtetik gorakoen artean daude.

	Adina			
	16-24 urte	25-44 urte	45-65 urte	65 urte baino gehiago
Denak baimendu	11,4%	12,9%	12,8%	5,6%
Denak debekatu	11,4%	15,3%	28,4%	40,3%
Mugatu	58,3%	62,6%	47,7%	37,9%

	Lan egoera				
	Lanean	Langabezian	Erretiratuta	Ikasten	Etxeko lanetan
Denak baimendu	12,4%	21,3%	7,4%	3,8%	1,4%
Denak debekatu	17,4%	18,1%	42,6%	15,4%	36,2%
Mugatu	58,3%	38,2%	38,2%	73,1%	50,7%

M.Arrazola/ej-gv

3. Euskal Autonomia Erkidegoko araudia

3.1. Sarrera

Atal honen helburua da Euskadin jokoaren sektorea arautzen duen legeriaren diagnostiko bat eskaintzea.

Txosten honen lurralde esparrua Euskal Autonomia Erkidegora mugatzen da eta bertoko lege sistemaren ezaugarria dugu eskumenen banaketa nahiko konplexua, Europako erkidegoetako, Estatuko, erkidegoko eta lurralde historikoetako legeak aplikatzen baitira. Hortaz, arrazoi sistematikoak direla medio, diagnostiko hau hiru atal berezitan egituratu dugu.

Lehenengo eta behin azalduko dugu sektorea zein eskumen esparrutan dagoen kokatuta.

Bigarrenik, Euskadin jokoaren sektorea arautzen duten eta indarrean dauden arau guztiak garatuko dira.

Amaitzeko, jokoaren jardueraren Euskal Autonomia Erkidegoko zerga esparrua azalduko da.

3.2. Eskumenen esparrua

Sarreran azaldu denez, Euskal Autonomia Erkidegoaren arau sistemak eskumenen banaketa konplexua du, legeak egiteko agintea bat edo beste baita gaiaren arabera: batzuetan, Europar Batasunaren eskumen esklusiboa da; beste batzuetan, Estatuarena, Autonomia Erkidegoarena edo, inoiz, Lurralde Historikoarena; eta gerta daiteke arautzeko eskumena goian aipatutako erakunde batzuen artean banatuta egotea ere.

Alde horretatik, Europako Erkidegoetako politiken barruan, jokoaren sektorea osasun publikoari eta kontsumitzailearen babesari buruzko politiken barruan kokatzen da. Europar Batasuna Eratzeko Tratatuaren 152. eta 153. artikuluak osasun publikoari eta kontsumitzailearen babesari buruzkoak dira eta gai horiek estatu kideekin partekatzen ditu EBk.

Europar Batasuna Eratzeko Tratatuaren 5. artikuluan[5] dioenarekin bat, orain aztergai ditugun kasuetan, hau da, eskumena EBrena soilik ez denetan, subsidiariotasun printzipioak agintzen du. Horren arabera, EBk esku hartzen du baldin eta estatu kideek ezin badituzte Tratatuaren helburuak behar adina iritsi. Hortaz, jokoaren arloan legeak egiteko aginte nagusia estatu bakoitzeko erakundeen esku geratzen da; hala ere, estatuetako araudiek ezin dituzte inola ere urratu Europar Batasuna Eratzeko Tratatuan ezarritako politikak eta helburuak. Bestela, Erkidegoetako erakundeek beharrezko neurriak hartu beharko lituzkete urraketa hori saihesteko. Azken kasu horren adibide argia dugu Europako Batzordeak Estatu Frantsesari eta Greziarrari egindako eskakizunak joko arloko araudia alda dezaten, EBko zerbitzu emate askea inolako arrazoirik gabe urratzen dutela iritzita.

Puntu horretan, bereizketa egin behar da erakundeek dituzten eskumenen artean, jokoaren araudiko legezko irismen zehatzari eta sektoreari aplikatu beharreko zerga araudiari dagokienez.

1. Jokoaren arloko araudiaren eskumena

EBren 148. artikuluan, printzipioz autonomia erkidegoek beren gain har ditzaketen eskumenen zerrenda bat ageri da; horien artean, ez dago, baina, jokoaren sektorea. Hala ere, 149. artikuluak, Estatuaren eskumen esklusibo diren gaien zerrenda luze bat egin ondoren, amaierako klausula batean zehazten du estatuei espresuki esleitu ez zaizkien gaiak autonomia erkidegoek beren gain hartu ahal izango dituztela autonomia estatutuetan[6].

EBren 149.3. artikuluan xedatutakoan oinarriturik, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak (abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartuak), bere eskumen esklusibotzat hartzen du, 10.35. artikuluan, kasino, joko eta apustuei dagokiena Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen barruan, salbu eta Kirol eta Ongintzako Elkarrekiko Apustuen arloa. Bestela

[5] EBET, 5. art.: "Bere eskumen esklusibokoak ez diren esparruetan, Erkidegoak bakarrik hartuko du esku, subsidiariotasun printzipioaren arabera, baldin eta egin nahi den ekintzaren helburuak Estatu kideek behar den neurrian lortu ezin badituzte eta, ondorioz, ekintzaren tamaina edo eraginak direla eta, hobetu lortu ahal badira erkidego mailan. Erkidegoaren ekintzak ez dira inoiz izango Tratatu honen helburuak lortzeko behar den baino haragokoak".

[6] EAE, 149.3. art.: "Konstituzio honek Estatuari berariaz esleitu ez dizkion gaiak Autonomia erkidegoen esku gera litezke, haien Estatutuen arabera".

esanda, gai horretako lege eta betearazpen funtzio guztiak hartzen ditu bere gain.

Autonomia Estatutuaren harira, Presidentziako Ministerioak kasino eta jokoen arloko zerbitzuak Estatutik Euskal Autonomia Erkidegora eskualdatzeko abenduaren 15eko 3257/1982 Errege Dekretuaren bidez onartu zuen Batzorde Mistoak 1982ko urriaren 14ko osoko bilkuran hartutako akordioa. Horrela eskualdatu ziren kasino, joko eta apustuen inguruko zerbitzu, bitarteko pertsonal eta aurrekontu guztiak Euskal Autonomia Erkidegora. Harrezkero, euskal erakundeek (Eusko Legebiltzarrak, Barne Sailak, Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak, etab.) hainbat arau onartu dituzte jokoaren arloan.

Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen esklusiboa du jokoarekin lotutako gaietan, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 10.35. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan Jokoa Arautzen duen 4/1991 Legea, azaroaren 8koa, goian aipatutako eskumena garatzeko eman zen. Bertan adierazten da Eusko Jaurlaritza dela lege hori garatzeko eta betearazteko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko (Ertzaintzaren Joko eta Ikuskizunen Unitatearen bidez) eta zigorrak ezartzeko eskumena duena.

Jokoaren jarduera modalitate guztietan arautzen duen maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen ondoren (BOE, 2011/05/28), eskumena mugatuta geratzen da Euskadiko lurraldean aurrez aurre egiten den jokora, Euskal Autonomia Erkidegoak baimendutako enpresek antolatutako online jokora eta Erkidegoan bizi diren pertsonek egiten dutenera.

Liburu Zuri honen B tituluko 2. atalean azalduko denez, jokoa arautzen duen maiatzaren 27ko 13/2011 Legea (hemen Estatuko Jokoaren Legea esango diogu) da estatu mailan egiten den jokoa arautzen duena, bereziki bide elektroniko, informatiko, telematiko eta elkarreraginezkoen bidez egiten bada. Nahiz eta lege horren edukia B tituluko 2. atalean garatuko den, legezko joeren arloan, nabarmendu behar da Estatuko Jokoaren Legeak berak aipatzen duela autonomia erkidegoen eskumenak zorrotz errespetatu behar direla jokoaren inguruan (lizitazio prozesuan, esaterako, jasotzen da autonomia erkidegoek txosten bat egin behar dutela, beren lurraldean, habilitazioko tituluen eskaeren inguruan). Dena den, Estatuko Jokoaren Legeak Joko Politiken Kontseilua sortzea ezartzen du, autonomia erkidegoen partaidetzako organo gisa.

2. Jokoaren sektoreko zergak arautzeko eskumena

Zergen esparruan, arautzeko eskumena ez dator bat jokoaren araudiaren inguruan zentzu hertsian dagoen araudiarekin (funtsezko araudiarekin). Izan ere, EBren 149.14. artikuluak xedatutakoaren arabera, Estatuko Ogasuna eta Estatuaren Zorra Estatuari soilik dagozkion gaiak dira. Hala ere, EBren beraren lehenengo xedapen gehigarriak ezartzen du Foru Lurraldeen Eskubide Historikoen babes eta errespetuko esparru orokorra (Nafarroa eta Euskadiko Lurralde Historikoei erreferentzia eginez). Kasu horretan, eguneratzea, EBren beraren eta autonomia estatutuen barruan egiten dela aipatzen da.

Aurreko horren argitan, jokoaren arloko Estatu mailako zerga eskumena hiru erregimenetan zehazten da:

1) **Euskal Autonomia Erkidegoa. Ekonomia Ituna**

Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskadiko Autonomia Estatutua onartzen duen abenduaren 18ko 3/1979 Lege organikoak ezartzen du, 40. artikuluan eta ondorengoetan, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoak bere Ogasun Autonomoa izango duela, egoki jarduteko eta berari dagozkion eskumenak finantzatzeko; eta, bestetik, Estatuaren eta Euskadiren arteko zerga arloko harremanak ohiko foru sistemako Ekonomia Itunak arautuko dituela. Alde horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak ezartzen du jokoaren gaineko zergak araudi autonomikoko itunpekoak direla baina muga batzuekin. Hala ondorioztatzen da 35. eta 37. artikuluetan. Laburbilduta honakoa xedatzen dute:

- Jokoaren gaineko zergak itunpekoak dira, baimena Euskadin eman behar denean.
- Estatuak ezarritako araudia aplikatuko da zerga egitateari eta subjektu pasiboari dagokienez.
- Zorizko, enbidozko edo ausazko jokoen gaineko tasa lurraldean eskuduntza duen foru aldundiak ordainaraziko du, zerga egitatea Euskadin egiten denean.
- Zozketa, tonbola, apustu eta ausazko konbinazioen gaineko zerga tasa lurraldean

eskuduntza duen foru aldundiak ordainaraziko du, baimena Euskadin eman behar denean.

2) Gainerako autonomia erkidegoak: tributuak lagatzea

Araubide erkidea duten autonomia erkidegoei dagokienez, 21/2001 Legea, abenduaren 27koa, Araubide Erkidea duten Autonomia Erkidegoen eta Autonomia Estatutua duten Hirien finantzaketa sistema berriaren zerga eta administrazio neurriak arautzen dituena, hartu behar da kontuan[7].

Hain zuzen ere, 26. artikuluan ezartzen da jokoaren zergen lagapenaren norainokoa. Edukia honela laburbildu daiteke:

- Erkidego bakoitzari lagatzen zaio bere lurraldean ekoiztutako tributuen errendimendua (bilketa).
- Lurraldean ekoitzitakotzat jotzen da zorizko, enbidozko edo ausazko jokoen gaineko Estatuko tasa, zerga egitatea lurralde horretan egin denean.
- Lurraldean ekoitzitakotzat jotzen da zozketa, tonbola, apustu eta ausazko konbinazioen gaineko Estatuko tasaren errendimendua, baldin eta erkidego horretako administrazioak halakoak egiteko baimena eman badu edo eskudun izan bada baimena emateko, eta baimen hori eskatu gabe antolatu bada.

Azkenik, 42. artikuluak ezartzen duenez, jokoaren gaineko tributuetan, erkidegoek arautzeko eskumenak izango dituzte...

- salbuespenetan
- hobarietan
- zerga oinarrian
- sortzapenetan
- tasa kargan eta kuota finkoan
- kudeaketan, likidazioan, bilketan eta ikuskaritzan.

Horrela bada, azaldutako arau multzoaren bidez eratzen den eskumenen banaketatik honako hau ondorioztatzen da: joko arloan (zerga esparrua alde batera utzita), Euskal Autonomia Erkidegoak duela, gaur egun, eskumen esklusiboa kasino, joko eta apustuen arloan; hau da, eskumena du gai horren inguruko lege eta exekuzio funtzioak guztiz garatzeko. Hortaz, egoki iruditzen zaizkion arau juridikoak onar ditzake eta egoki iruditzen zaion zabaltasunez. Hala ere, euskal erakundeek onartzen dituzten arauek Europako Erkidegoen Tratatuko politika eta helburuak errespetatu behar dituzte. Bereziki, euskal araudiak errespetatu egin behar du zerbitzuak emateko askatasuna EBren barruan, ordena publiko, segurtasun edo osasun publikoko arrazoiengatik ezarri daitezkeen mugak salbuetsita. Bestela, erkidegoetako erakundeek egoki iruditzen zaizkien neurriak hartu ahal izango dituzte Tratatuko xedeak lortzeko, kasu honetan, erkidegoetako lurraldean zerbitzuak emateko askatasuna.

Autonomia erkidegoko mugez gaindiko baina Estatuko lurralde osokoak ez diren jokoen garapenari dagokionez, 2012ko martxoaren 15eko Auzitegi Konstituzionalaren 35/2012 epaiak argitu zuen ezin zaizkiola automatikoki Estatuari egotzi eskumen esklusiboak jokoaren arloan, jokoa autonomia erkidego batez gaindiko esparruan garatzen bada ere. "Lurraldeaz gaindiko" kasuetan, Estatuaren eta autonomia erkidegoen arteko koordinazio eta lankidetzarako mekanismoak erabiltzearen alde ageri da Konstituzio Auzitegia, joko eta apustuetan sor daitezkeen autonomia esparruaz gaindiko eta Estatuaz beherako arazoei irtenbidea emateko. Estatuaren eta autonomia erkidegoen arteko lankidetza mekanismo gisa aipatzen du Joko Politiken Kontseilua. Erakunde horren osaera mistoa da, Estatuko eta autonomia erkidegoetako ordezkariak dituena, eta 13/2011 Legeak sortu zuen figura hori, erregimen juridikoaren eta fiskalaren bateratzea errazteko, eta edozein joko modalitate eta operadoreri Estatu osoko lurraldean aplikatu beharreko publizitate erregimenaren bateratzea errazteko.

Aurreko lerroaldeetan esandakoa gorabehera, zerga arloan arautzeko ahalmena ez da jokoaren araudiari (funtsezko araudia) dagokionaren parekoa zentzu hertsian. Zehazki, jokoaren sektorean zerga arloan arautzeko eskumena Lurralde Historikoetako erakunde eskudunei dagokie (Batzar Nagusi eta Foru Aldundiei), Ekonomia Itunaren legean aurreikusitako mugekin.

Nafarroako Foru Erkidegoari dagokionez, foru lurraldea izanik, abuztuaren 10eko 13/1982 Lege organikoak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak ezartzen du 45. artikuluan, Nafarroako zerga eta finantza jarduera ohiko Hitzarmen Ekonomikoak arautzen duela.

[7] EAEko Autonomia Estatutuaren 10. art.: "Euskal Herriko Komunitate Autonomoak ondoko gaiei dagozkienean konpetentzia exklusiboa du: (...) 35. Kasino, joko eta apustuak Apuestas Mutuas Deportivas Benéficas deritzenak izan ezik".

3.3. Arau esparrua

3.3.1 Sarrera

Aurreko atalean azaldu dugun bezala, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen esklusiboak ditu Euskadin garatzen diren kasino, joko eta apustuei dagokienez.

Eskumen horien oinarri harturik, eskumena duten erkidegoko agintariek sektorea arautu dute. Araudi horren guztiaren buruan dago 4/1991 Legea, Euskadin jokoa arautzen duena. Bertan zehazten da Euskadiko jokoaren jarduera. Lege hori hainbat araudik eta aginduk garatu dute, Euskadin egin daitezkeen joko modalitateak zehaztuz.

Euskadin indarrean dagoen araudia aztertuko dugu, arautzen dituen joko jardueren arabera sistematizatuta.

Horrekin batera aztertuko ditugu, txosten honek eskaini nahi duen sektorearen diagnostikoa osatzeko, gaur egun jokoaren sektorean arautu gabe dauden alderdiak, espazioak edo jarduerak eta negozioak ere.

3.3.2. Indarrean dagoen araudia

Euskadiko jokoaren sektorean indarrean dagoen araudiaren azterketa sistematizatzeko, ondoren ageri den ordenari jarraitu zaio.

Lehenengo eta behin, funtsezko araudi orokorra aztertu da: (i) 4/1991 Legea, ekainaren 18koa, Euskadin Jokoa arautzen duena (aurrerantzean Jokoaren Euskal Legea). Bertan ezartzen dira sektorea arautzen duten oinarri orokorrak eta zehatzeko araubidea; eta Jokoaren Erregistro Nagusia sortzen du. (ii) 277/1996 Dekretua, azaroaren 26koa, Euskadiko Jokoen Katalogoa onartzen duena.

Bigarren maila batean, Katalogoaren arabera, Euskadin onartzen diren joko modalitateak arautzen dituen legedia. Onartutako joko modalitateen ugaritasuna eta Katalogoak egiten duen sailkapena kontuan harturik, bost azpisektoretan sistematizatuko dugu:

a. Joko makinak.

b. Bingoa.

c. Kasinoak.

d. Apustuak.

e. Zozketak.

f. Joko aretoak.

Aipatutako sektore bakoitza arautzeko lege multzotik, txosten honetarako garrantzizkotzat jotzen diren elementuak aztertzen dira, negozio bakoitzeko araudiaren eta, ondorioz, jokoaren sektorearen ikuspegi globala, osoa eta fidela emateko. Hortaz, oro har, sakonago aztertuko diren elementuak honako hauek izango dira:

Esparru materiala.

- Finantzak.
- Baimenen araubidea.
- Publizitatearen araubidea.
- Baimena duten lokalak.
- Zehapen araubidea.
- Sari eta apustuen mugak, halakorik egonez gero.

3.3.3. Araudi orokorra

Araudi orokorra

Bi dira gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko jokoaren sektorea arautzeko ildo nagusiak ezartzen dituzten xedapenak, nahiz eta unean uneko kontuak arautzen dituzten bestelakoak ere izan.

a. 4/1991 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoan Jokoa Arautzen duena (aurrerantzean, Jokoaren Euskal Legea)

b. 277/1996 Dekretua, azaroaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jokoen Katalogoa onartzen duena.

c. Beste arau orokor batzuk.

Ondoren, arau orokor horien oinarrizko edukia azalduko dugu.

JOKOAREN EUSKAL LEGEAREN LABURPEN TAULAK

Xedea	Esparru materiala	Jokoak	Baimena	Debekuak
EAEn, joko eta apustuen inguruko jarduera guztiak arautzea, modalitate eta izen guztiak; bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoen bidez edo urrutiko bestelako komunikazio bideren baten bidez eginak.	a. EAEko katalogoan dauden jokoak. b. Horretan diharduten enpresak. c. Joko aretoak. d. Jardueretan esku hartzen duten pertsonak.	1. a. Joko makinak 2. Bingoa 3. Kasinoetako jokoak 4. Apustuak 5. Txartel eta loteria jokoak. 6. Zozketak, tonbolak eta ausazko konbinazioak. 3.4. art.: Debekatuta daude EAEko katalogoan ageri ez diren jokoak edo baimenik gabe edo lokaletatik kanpo edo baimenik ez duten pertsonek eginak.	Baimena ematea araututa. Transferiezinak. Balioa izango dute, indarrean dauden bitartean indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Ez da aurretiazko baimenik beharko ausazko konbinazioak izan daitezen; erantzukizunpeko aitorpena baino ez da aurkeztu beharko.	Debekatu egiten zaie sarbidea egoerarik ahulenean dauden sektoreetakoei: adingabeei, erabakitzeko ahalmena murriztua dutenei, sarbidea debekatuta dutenen zerrendakoei, joko enpresetako langileei, etab.

Lokalak	Publizitatea	Homologazioa
1. **Joko eta jolas aretoak** 2. **Bingo aretoak.** 3. **Jokoetarako kasinoak.** 4. **Apustuko jarduera egiten den esparrua.** 5. **Ostalaritzako establezimenduak.** 6. **Jolas aretoak.** **Barruan daude euskarri informatikoak, elektronikoak, telematikoak, edo urrutiko bestelako komunikazio bideak.**	Gobernu Batzarrari dagokio lokalen kanpoaldeko publizitatea arautzea. Arau bidez ezarriko da lokalen barruko publizitatea. (Bi motak arautzen dira legez).	Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak zehaztuko, homologatuko eta ikuskatuko ditu jokoan erabiltzen diren materialak eta tresnak.

Jokoaren erregistroa	Zehapen araubidea	
	Arau-hausteak	**Zehapenak**
8.1. art. Jokoaren Errolda Nagusia sortzea aurreikusten du. Bertan egon beharko dute izena emanda sektorean ustiapenean diharduten pertsona fisikoek eta juridikoek, fabrikatzaileek, baimena duten lokalek, joko makinek, etab. **Erroldan izena emanda egon beharko da jarduera horietan Euskadin aritu nahi izanez gero.** **Arau bidez ezarriko da zein datuk egon behar duen Erroldaren atal bakoitzean.**	**Oso larriak** **Larriak** **Arinak**	60.101,21 €-tik 601.012,10 €-ra 6.010,12 €-tik 60.101,12 €-ra 60,10 €-tik 6.010,12 €-ra
	Zehapen osagarriak	
	Zehapen larri edo oso larrietan: **(i) Baimenak etetea edo atzera botatzea.** **(ii) Establezimendua aldi baterako edo behin betiko ixtea.** **(iii) Jarduera horretan aritzeko aldi baterako edo behin betiko desgaitzea.** **(iv) Elementuak konfiskatzea, suntsitzea edo ezgaitzea.**	
	Prozedura	
	Prozedura administratibo orokorra, epeetan berezitasun batzuk dituelarik. **(Isiltasun negatiboa: Administrazioak administratuari erantzunik ez ematea epe jakin batean; halakoetan, Legeak ezeste balioa ematen dio.**	Organo zehatzailea: (i) Arin eta larrietan: Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritza. (ii) Oso larrietan: Segurtasun Sailburuordetza. (iii) 300.506,05 € baino gehiago: Segurtasun Saila.

	Gobernu Batzarraren ahalmenak eta funtzioak		
	Kontsulta	**Informazioa**	**Plangintza**
Jokoaren Euskal Kontseilua	Xedapen berrien inguruko txostena, Baimen, homologazio eta bestelakoak onartzeari edo atzera botatzeari buruzko txostena.	Sektorearen garapenari buruzko urteroko txostena.	Sektorea planifikatzeko estatutuak, irizpenak eta proposamenak.

EAEKO KATALOGOAREN LABURPEN TAULA

Esparrua	Xedea	
	Tipologia	Debekua
Erakunde baten esparruan egindako eta pertsona fisiko edo juridiko publiko edo pribatuek kudeatutako joko modalitateak, eta jarduera horretatik irabaziak eskuratzeko eginak. Kanpoan geratzen dira apustuen zenbatekoa Lanbide arteko Gutxieneko Soldata baino altuagoak eta ezohikoak direnak. Salbuetsita daude Kirol eta ongintzako elkarrekiko apustuak.	- a. Joko makinak: AR, B eta C. - Bingo jokoa. - Kasinoetako jokoak. Katalogoaren azken aldaketan poker jokoaren modalitate asko erantsi dira. - Apustuak. - Loteriak. - Txartelak. - Zozketak - Tonbolak. - Ausazko konbinazioak-	Hirugarren xedapen gehigarria: Debekatuta daude espresuki EAEko katalogoan ageri ez diren jokoak edo baimenik gabe, lokaletatik kanpo edo baimenik ez duten pertsonek eginak. Muga horiek aplikatuko zaizkie Interneten bidezko jokoei edo urrutiko komunikazioko gailuen bidezkoei ere.

TRAMITAZIO ELEKTRONIKOARI BURUZKO BESTE ARAU BATZUK

2004ko urtarrilaren 23ko Joko Zuzendaritzaren ebazpena	Joko prozeduraren tramitazio elektronikoa arautzen du, baimena emateko prozedurak, berritzeak, bajak, zehapenak eta bestelakoak barne.
2002ko ekainaren 27ko Joko Zuzendaritzaren ebazpena	B motako joko makinen prozeduren tramitazio telematikoa arautzen zuen. Ebazpen honek zabaldu zuen teknologia telematikoaren erabilera jokoaren sektore profesional osora.
2006ko martxoaren 22ko agindua	Joko makinen prozeduren tramitazio telematikoa arautzen du (apirilaren 21eko EHAA, 78. zk.).

3.3.4. Joko makinen araudia

Joko makinen inguruko araudia bi lege xedapenen inguruan dago antolatuta:

a. 600/2009 Dekretua, azaroaren 17koa, Joko makina eta sistemen erregelamendua onartzen duena (aurrerantzean, makinen araudia).

   Xedapen horren bidez indargabetu zen abenduaren 24ko 308/1996 Dekretua. 2009ko arau horrek garatzen du joko makinen negozioa jasotzen duen araudia, berdin dio makina horiek jolasekoak, zorizkoak edo beste mota batekoak izan. Horrekin batera, beste negozio mota batzuetan (apustu, loteria eta zozketetan) erabiltzen diren makina laguntzaileak eta jokoak instalatzeko sistemak ere arautzen ditu araudiak.

   Arauaren esparru materialaren zabalera kontuan izanik eta negozioa arautzen duen arau esparruaren ahalik eta azalpenik argiena izateko, elementu bakoitzaren alderdi bereziak aztertuko dira lehenengo; eta, gero, denentzat komunak direnak azalduko dira.

b. 380/1994 Dekretua, urriaren 4koa, Joko Aretoen eta Jolas Aretoen Araudia onartzen duena (aurrerantzean, Jolas Aretoen araudia).

   Joko eta jolas aretoak dira, zalantzarik gabe, joko makinak ustiatzen diren lokalen espresio gorena; eta, ondorioz, Eusko Jaurlaritzak araudi bat onartu zuen 1994an, lokal horiek arautzeko oinarrizko irizpideekin, titularrak ahalik eta profesionalizazio mailarik altuena eta lokalek segurtasun bermea izan zitzaten.

3.3.5. Joko makinei eta sistemei buruzko erregelamendua

Makina mota	Esparru materiala	Prezio, sari, iraupen eta itzulketa mugak	Baimendutako / debekatutako lokalak	Interkonexioa
A MOTAKO MAKINAK	Jolas edo denbora pasako makinak, prezio batean erabiltzeko denbora bat edo aurretiaz kontrolatuta edo programatuta dagoen joko bat eskaintzen dutenak. Azpimota bereziak: - AR makinak edo erredentzioko jolas makinak	Ez ditu aplikatzen	Jolas aretoak "B" motako joko makinak instalatzeko baimendutako lokalak. Bingo eta kasino aretoak. Kanpin, jolas parke eta azoka esparruetan prestatutako aretoak. Gehienez 5 makina. Lokal publikoak, ostalaritzako jarduera esklusiboa edo osagarria dutenak: 2ko muga. A motako makinak.	Ez dagokio.
Makina mota	**Esparru materiala**	**Prezio, sari, iraupen eta itzulketa mugak**	**Baimendutako / debekatutako lokalak**	**Interkonexioa**
"B" MOTAKO MAKINAK	Jolas makinak, erabiltzaileari, araudian ezarritako mugekin, prezio baten truke, denbora baterako erabilera eta noizbehinka dirutan saria ematen diotenak Azpimota bereziak: - BM makinak edo postu anitzekoak. - BC makinak edo partekatuak. - BS makinak edo sari bereziko jolas makinak. - BG makinak edo bingo aretoetarako sari bereziko jolas makinak.	Partidako gehieneko prezioa: 0,20 €. Gehieneko saria: 500 €. Gutxieneko iraupena: 5 segundo, eta ezin dira 30 minutuan 360 baino gehiago egin. Dirua itzultzea: apustuen balioaren % 70 gutxienez, gehienez 40.000 partidatan. Eskakizun gehigarriak BS eta BG makinetarako.	Joko aretoak: 12 eta 50 makina bitartean. Bingo aretoetan prestatutako lokalak eta aretoak: 12 eta 50 makina bitartean. "C" motako joko makinak instalatzeko baimendutako lokalak. Apustu etxeak. Ostalaritza, dantzaleku eta diskoteketako lokalak eta instalazioak: 1 makina. BM eta BS makinak "C" motako makinak jartzeko baimena duten lokaletan soilik jar daitezke, hau da, areto eta bingoetan.	Gehieneko zenbatekoa: ez da gutxituko guztizko ehunekoan. Interkonektatutako makina bakoitzean jarri beharko du agerian saririk handiena. Gehieneko prezioa: ez da izango interkonektatuta dagoen makina bakoitzaren saririk handienaren batura baino gehiago. Informazioko panel bat egon beharko da.

Makina mota	Esparru materiala	Prezio, sari, iraupen eta itzulketa mugak	Baimendutako / debekatutako lokalak	Interkonexioa
"C" MOTAKO MAKINAK	Jolas makinak, erabiltzaileari, araudian ezarritako mugekin, prezio baten truke, denbora baterako erabilera eta noizbehinka dirutan saria ematen diotenak, beti zoriaren menpe.	Partidako prezioa eta saririk handiena: Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak ezarriko ditu makina modelo bakoitzerako, Modeloen Erregistroen homologazio eta inskripzioko ebazpenean. Gutxieneko iraupena: 2,5 segundo. Itzulketa: ez da inoiz apustuen % 80ko balioa baino txikiagoa izango.	Jokoetarako kasinoak. I. Berariazko aretoan: 15 makina gehienez, 50 pertsonako edukierako. II. Areto orokorrean: 2 makina joko mahai bakoitzeko. Baimendutako itsasontziak.	Kasino bateko edo batzuetako "C" makinak. Interkonektatutako 5 makina baino gutxiago ez. Saririk altuena: ezin izango da interkonektatuta dauden makinen saririk handienen batura baino gehiago. Aurretiazko baimena.

Makina mota	Esparru materiala	Prezio, sari, iraupen eta itzulketa mugak	Baimendutako / debekatutako lokalak	Interkonexioa
MAKINA LAGUNTZAILEAK	Txartel eta loteriako makinak. Ausazko konbinazioetarako makinak. Apustuetarako makinak.	Joko bakoitzaren mugak (berariazko araudia).	Joko bakoitzerako berariazko lokalak edo postuak. Berariazko araudiak ezarritako bestelako lokalak. Ostalaritzako lokalak: izan liteke apustu egiteko makina bat, txartelena edo ausazko konbinazioak egiten dituena.	Ez dagokio

Makina mota	Esparru materiala
JOKO SISTEMAK	Diruaren edo ordaintzeko beste bitarteko batzuen bidez, erabiltzaileari katalogoan ageri den edozein joko modalitatetan parte hartzeko modua ematen dioten elementu, euskarri informatiko edo telematikoak.

	Fabrikatzeko, inportatzeko eta merkaturatzeko baimena	Enpresen baimena	Ustiatzeko baimena	Instalatzeko baimena
Baldintza subjektiboak	Jokoaren Errolda Nagusian izena emandakoak: Pertsona fisiko edo juridikoak Izena emanda dagoen kontzeptu edo jarduerarako baimena soilik dutenak.	Pertsona fisiko eta juridikoak, sozietate mota baliozkoa dutenak: I. Jokoaren Errolda Nagusian izena emandakoak. II. Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza dutenak, Administrazioarekiko harremanetarako. III. Xede soziala: jokoko jarduerak. "B" motako makinen enpresa operadoreak: gutxienez, ustiatzeko 10 baimen.	Jokoaren Errolda Nagusian izena emanda duten makinen enpresa operadoreak. 1.000 baimeneko muga enpresa operadore bakoitzeko, makina laguntzaileetarako eta B motakoetarako.	Enpresa operadorearen titularra edo legezko ordezkaria, eta establezimendua ren titularra dena.
Iraupena	5 urte eta automatikoki berriztatzen da, baldintza guztiak betez gero.	5 urte eta automatikoki berriztatzen da, baldintza guztiak betez gero.	2 urte eta automatikoki berriztatzen da, izena emanez gero.	Ustiatzaileak eta lokalaren titularrak ezarritakoa: Gutxienez 3 eta gehienez 6 urte.
	Fabrikatzeko, inportatzeko eta merkaturatzeko baimena	**Enpresen baimentzea**	**Ustiatzeko baimena**	**Instalatzeko baimena**
Prozedura	Joko Zuzendaritzari eskaera egin eta agiriak erantsi. Araututako baimena, ezarritako baldintzak betez gero.	Joko Zuzendaritzari eskaera egin eta kaudimen tekniko, material eta finantzarioko dokumentuak eta ziurtagiriak erantsi. Araututako baimena, baldintzak betez gero.	Joko Zuzendaritzari eskaera egin. Araututako baimena, ezarritako baldintzak betez gero eta kontingentazioari loturik.	Aldeek sinatua eta Joko Zuzendaritzak diligentzia egina.
Fidantza	Ez dagokio	<u>AR motako makinak:</u> 4.000 euro <u>B motako makinak:</u> I. 1etik 25era: 45.000 €. II. 26tik 100era: 85.000 €. III. 101etik 250era: 210.000 €. IV. 251tik 500era: 350.000 €. V. 501etik 1.000ra: 550.000 €. <u>Makina laguntzaileak:</u> 16.000 €	Ez dagokio	Ez dagokio

Homologazioa	Publizitatea	Zehapen araubidea
Joko makinak fabrikatzeko, ustiatzeko, merkaturatzeko eta instalatzeko, beharrezkoa da makina mota aurretiaz homologatuta egotea eta Jokoaren Errolda Nagusian izena emanda egotea. **Araudiak ezartzen du zein irizpide hartzen diren kontuan makina motak homologatzeko. Batez ere, joko makinaren baldintza teknikoak eta funtzionatzeko arauak izaten dira.**	Joko makinen sektorerako informazio sustapenak egin daitezke, Joko Zuzendaritzari aurretiaz baimena eskatuta. Ez dute aurretiazko baimenik behar: I. Sektoreko aisia eta bidaietako aldizkari espezializatuetan egindako zabalkundeak. II. Jokorako lokalei buruzko liburuxkak prestatu eta zabaltzea. III. Joko aretoaren izena erabiltzea jendaurreko ikuskizunak eta jolas, kirol eta kultura jarduerak babesteko, adingabeentzako ikuskizunetan izan ezik.	Jokoaren Euskal Legean ezarritakora doituta dago. Hortaz, arau hausteek sailkapen berdina izango dute eta zehapenek zenbateko berdina.

3.3.6. Joko aretoei buruzko araudia

Esparru materiala	Baimenen araubidea	Fidantza	Zehapen araubidea
f. Joko aretoak: **Joko makinak ustiatzekoak, C motako makinak izan ezik.** **Jolas aretoak:** **AR motako makinak soil-soilik ustiatzekoak.** **- <u>Ziber aretoak:</u>** **Elementu, euskarri informatiko edo telematikoak instalatu eta ustiatzen diren jolas aretoak dira. Halakoetan, erabiltzaileari erabiltzeko edo jokorako denbora bat ematen zaio, zerbitzari lokal batera konektatuta, baimendutako sare batera edo sare informatiko, telematiko, satelite bidezko edo urrutiko bitarteko batera konektatuta.**	**Baldintza subjektiboak** **Pertsona fisiko edo juridikoak,zuzenbidean baliodun sozietatea eratuta.** **Jokoaren Errolda Nagusian izena emandakoak.** **Nazionalitateagatiko mugarik gabe.** **Prozedura** **Joko Zuzendaritzari eskaera egin eta proiektuaren kaudimen tekniko, material eta finantzarioko dokumentuak eta ziurtagiriak erantsi.** **Proiektua bideragarria bada, proiektuaren errealitatea ziurtatzen duen dokumentazioa.** **Araututako baimena, baldintzak betez gero.**	Jolas aretoen enpresa titularra izanez gero: 6.010,12 € Joko aretoen enpresa titularra izanez gero: 30.050,61 € Jolas aretoko banakako baimen bakoitzeko: 12.020,24 € Joko aretoko banakako baimen bakoitzeko: 30.050,61 €	Jokoaren Euskal Legean ezarritakora doituta dago. Hortaz, arau hausteek sailkapen berdina izango dute eta zehapenek zenbateko berdina.

3.3.7. Bingo jokoari buruzko araudia

Bingoari buruzko legezko xedapena Euskadin honakoa da:

– 31/2004 Dekretua, otsailaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko bingo jokoaren araudia onesten duena. (Aurrerantzean, Bingoaren Araudia).

Jokoaren Euskal Legearen mendeko hierarkikoa izanik, Bingoaren Araudia da Euskadin bingo jokoari aplikagarri zaion arau esparrua ezartzen duen legezko xedapena. Arau horren bidez ezartzen da operadoreentzako baimenen erregimenetik hasi eta joko bakoitzaren funtzionamenduko arauetaraino.

- Horrekin batera, 2012an, ekainaren 28ko aginduaren bidez onartu zen Bingo joko elektronikoaren araudia.

Araudi hori Bingoaren Araudia garatzeko egin zen, 45. artikuluan eta ondorengoetan eta lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituz. "Bingo deribatua" izeneko modalitatea arautu zuen. Modalitate hori bingo jokoaren bertsio bat da, euskarri elektronikoetan egin eta kudeatzen dena, sistema informatikoen bidez.

3.3.8. Bingoari buruzko araudia

Esparru materiala	Baimenen erregimena	Baimena duten lokalak
Araudiak espresuki aurreikusitako modalitateak: - **Bingo tradizionala.** - **Bingo pilatua.** - **Interkonektatutako bingo pilatua eta sari "berezia".** - **Bingo deribatua.**	**Motak** **Enpresa titularra izateko baimena.** **Joko aretoa izateko baimena.** **Onuradunak** **Pertsona fisikoak:** **Ezin izango dira bingo jokoko hiru enpresa titular baino gehiagoren akziodun edo partizipazioen titular izan, ezta bingo jokoko hiru lokal baino gehiagoren titular izan ere.** **Pertsona juridikoak:** I. **Zuzenbidean onartutako sozietate forma.** II. **Kapital soziala: 1. kategoria - 90.000,00 €** **2. kategoria - 48.000,00 €** **Ezin izango dira bingo jokoko hiru enpresa titular baino gehiagoren akziodun edo partizipazioen titular izan, ezta bingo jokoko hiru lokal baino gehiagoren titular izan ere.** **Prozedura** **Joko Zuzendaritzari eskaera egin.** **Eskabideak egiteko administrazio prozedura orokorra, 30/1992 Legearen 70. artikuluan ezarria.** **Araututako baimena, baldintza guztiak betez gero.**	Horretarako baimendutako bingo lokaletako joko aretoetan. Sare informatiko, telematiko, satelite bidezko edo urrutiko bitarteko batera konektatuta. Bingo aretoen edukiera: I. Euskal Autonomia Erkidegoko bingo areto guztien gehieneko edukiera: 10.000 plaza. II. 1. kategoriako lokalen edukiera: 301etik 600era. III. 2. kategoriako lokalen edukiera: 150etik 300era.

Fidantza	Sarien muga	Murrizketak eta debekuak
Bingo tradizionala, pilatua edo deribatua. 18.000,00 € **Interkonektatutako bingo pilatua: 10.000,00 €** **Horri gehituta, baterako fidantza solidarioa bingo areto guztien artean: 25.000,00 €. Bingo pilatuko sarien, interkonektatutako bingo pilatuaren sarien eta sari "bereziaren" ordainketari baino ez dio eragiten.**	Bingo tradizionala: partida bakoitzean saltzen diren txartelen balio izendatuaren % 66; % 10 lerroari dagokio eta % 56, bingoari. Bingo pilatua: euskarriaren balio izendatuaren % 2. Interkonektatutako bingo pilatua: partida bakoitzean saltzen diren txartelen balio izendatuaren % 64; % 10 lerroari dagokio eta % 54, bingoari (modalitate desberdinetan). Sari berezia: joko lokal bakoitzean jokatutako txartel guztien balio izendatuaren % 3 pilatu.	Sektorerik ahulenak: adingabeak eta adimen urritasunak dituztenak, bereziki. Ezin izango dira sartu aretoetan sartzea debekatuta duten pertsonen zerrendan daudenak. Ofizioz ageri direnez gain, borondatez hala eskatzen dutenak ere ez dira sartuko.

Ordutegia	16:00etatik ordutegien berariazko araudian ezarrita dagoen itxiera ordura arte. Ordu horren aurretik, bingo jokoaz aparteko beste erabilera batzuetarako erabili ahal izango da lokala, Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak baimena emanda.	
Gelaurrea eta zerbitzu osagarriak	**Gelaurrea**	Derrigorrezko harrera, gutxienez, 1 m2-koa 15 pertsonako baimendutako edukierarako. Sistema informatikoa izango du, sartzen direnen datuak egiaztatzeko. Era berean, nahitaezkoa da sartu nahi dutenei NANa edo baliokidea eskatzea. Ez da espresuki debekatzen bertan jokorako elementuak (makinak) egotea.
	Zerbitzu osagarriak	Ostalaritza eta ikuskizun zerbitzuak erabiltzaileentzat. Joko makinetarako berariazko lokalak. Joko aretoen araudian ezarritakoa bete beharko dute.
Publizitatearen erregimena	Baimenduta daude, oro har, informazioko sustapen jarduerak eta, edozein kasutan, hauek: I. Lokalaren aipamena, kokapena eta zerbitzu osagarriak eguneroko prentsan, iragarkietan, erreportaje turistikoetan eta aisiako edo sektoreko aldizkari espezializatuetan. II. Lokalari buruzko liburuxkak. III. Ikuskizun publiko edo kirol, jolas, kultura ekintzak edo erakundeek antolatutakoak babestea (adingabeei zuzenduak izan ezik). IV. Urteko jai bat ospatzea lokalaren barruan. Baimenduta egongo dira beste hauek ere: I. Prentsa eta irratiko sustapena, establezimendua jarraian 3 egunetan itxita geratuko bada hobetzeko obrengatik. II. Sei hilean behin, sektoreko informazio sustapenak. Debekatuta daude betiere. Mezu limurtzaileak edo zuzenean jokora bultzatzen dutenak.	

Zehapen araubidea	Jokoaren Euskal Legean ezarritakora doituta dago. Hortaz, arau hausteek sailkapen berdina izango dute eta zehapenek zenbateko berdina.



M.Arrazola/ej-gv

3.3.9. Bingo elektronikoaren araudia.

Esparru materiala	Baimenen erregimena	Baimena duten lokalak
Bingo elektronikoa bingo deribatuaren modalitate bat da. Bingo tradizionalean oinarritutako apustu mota bat egiten da, homologatutako sistema, euskarri eta ekipo informatikoen bidez, bingo tradizionalerako erabiltzen direnetatik aparte. **Erregimen juridiko gehigarria** **3. art.: Ordezko izaeraz, bingo elektronikoa jokatuko da bingo jokorako araudian jasotzen diren espezifikazioen arabera.**	**Motak** **Bingo aretoetan ustiatzeko aurretiazko baimena.** **Bingo areto batzuetan aldi berean ustiatzeko aurretiazko baimena.** **Onuradunak** **Ustiapena bingo aretoetan: Aretoaren enpresa titularra.** **Bingo areto batzuetan aldi berean ustiatzea: Interkonexioko zerbitzuen enpresa.** **Prozedura** **Joko Zuzendaritzari eskaera egin.** **Eskabideak egiteko administrazio prozedura orokorra, 30/1992 legearen 70. artikuluan ezarria.** **Araututako baimena, baldintza guztiak betez gero.**	Bingo aretoak.

Ordutegia	Bingo tradizionaleko aretoetarako ezarritako ordutegi orokorra izango du: 16:00etatik ordutegien berariazko araudian ezarrita dagoen itxiera ordura arte.
Sarien muga	Jokatutako partida guztietan banatutako sarien ehunekoa, gutxienez, jokorako terminal guztietan kartoi elektronikoen salmentan bildutako kantitateen % 70ekoa izango da. Interkonektatutako bingoa: goiko lerroaldeko ehunekoaren % 40 gutxienez.
Publizitatearen araubidea	Bingo jokoaren araudian aurreikusitakoa.
Zehapen araubidea	Bingo jokoaren araudian aurreikusitakoa.

3.3.10. Kasinoei buruzko araudia.

Kasinoei buruzko araudia honako xedapen honetan dago, soil-soilik:

–39/2012 Dekretua, martxoaren 20koa, joko-kasinoen erregelamendua onartzen duena.

Dekretu honek aurretik kasinoen inguruan zegoen araudia biltzen du. Horrez gain, jardueraren zenbait alderdi ere arautzen ditu: joko kasinoetako jarduera propioak eta osagarriak; zein establezimendutan garatzen diren jarduerak, zein baldintza bete behar dituzten jarduera hau garatzen duten pertsona fisiko eta juridikoek; jokalarien eskubide, betebehar, muga eta debekuak; kasinoen sustapeneko jarduerak eta zehapen erregimen propioa.

3.3.11. Joko kasinoen erregelamendua.

Esparru materiala	Baimena duten lokalak	Aurretiazko baimena
Kasinoetako jokotzat soilik hartzen direnak: 1.- Erruleta frantsesa. 2.- Zero bakarreko erruleta amerikarra. 3.- Hogeita bata edo «Black Jack». 3.1.- Black Jack hirukoitza. 4.- Bola edo «boule». 5.- Hogeita hamar Berrogei. 6.- Dadoak edo «craps». 7.- Puntu eta Bankua. Mini eta Midi Puntua eta Bankua. 8.- Trenbidea, «Bacarra» o «Chemin de Fer». 9.- Bi oihaleko «Bacarra». 10.- Zori erruleta. 11.- Karta uzterik gabeko pokerra. 12.- Pokerra karta uztearekin. 13.- Trijoker pokerra. 14.- Pai Gow pokerra edo poker txinatarra. 15.- Hiru kartako pokerra edo Tripokerra. 16.- Texas pokerra. 17.- Zirkuluko pokerra. 17.1.- Bost kartako poker estalia karta uztearekin. 17.2.1.- Omaha ageriko pokerra. 17.2.2.- Bost kartako Omaha pokerra. 17.2.3.- Omaha Hi&Low Pokerra. 17.3.1.- Texas Hold´em ageriko pokerra. 17.3.2.- Double Hold´em pokerra. 17.4.- Poker Five Stud pokerra. 17.5.- Seven Card Stud pokerra. 17.6.- Poker sintetikoa. Bingo aretoetarako eta joko aretoetarako baimendutako jokoak egin ahal izango dira eta makinak ere jarri ahal izango dira Joko Zuzendaritzak aurretiaz baimena emanda. Joko kasinoek txapelketak antolatu eta egin ahal izango dituzte: - Kasinoetako jokoetakoak. - “C” motako makinetakoak. - Joko ezagun edo tradiziozkoetakoak.	Joko kasino izateko baimendutako lokaletan. Sare informatiko, telematiko, satelite bidezko edo beste komunikabide edo urrutiko bitarteko batera konektatuta. Edukiera: Gutxienez, 300; gehienez, 1.000.	Motak: - Instalatzeko baimena. - Funtzionatzeko baimena.

Instalatzeko aurretiazko baimena	Funtzionatzeko aurretiazko baimena
Baldintza subjektiboak	
Pertsona fisikoak. **Pertsona juridikoak:** - **Merkataritza edo kooperatiba sozietateko forma juridikoa.** - **Gutxieneko kapital soziala: 1.200.000 €** - **Helburu sozial bakarra: joko kasinoen ustiapeneko jarduerak.** - **Atzerriko kapitalaren partaidetza atzerriko inbertsioei buruzko legedira egokituko da.** - **Akzioen / partizipazioen transmisioa Joko Zuzendaritzak baimendu beharko du.** **Ez da ezartzen, hortaz, inolako mugarik doakionaren nazionalitateagatik.**	Instalatzeko baimena duten titularrek, bertan adierazitako epearen barruan.
Prozedura	
Lehiaketa publikoa, aurretiaz deialdia eginda. **Joko Zuzendaritzari eskaera egin.**	Instalatzeko baimenaren indarraldiari lotuta. Joko Zuzendaritzari eskaera egin.
Ebazpena	
Honako kontuak zehazten ditu, besteak beste: I. **Funtzionatzeko gehieneko ordutegia.** II. **Baimendutako jokoen zerrenda.** **III. Zabaltzeko gehieneko data.**	Honako kontuak zehazten ditu, besteak beste: I. Funtzionatzeko gehieneko ordutegia. II. Baimendutako jokoen zerrenda. III. C motako makinen gehieneko kopurua. IV. Apustuen gehieneko eta gutxieneko mugak.
Fidantza	
300.000 €	
Indarraldia	
10 urte berriztagarri, baldintza guztiak betez gero.	

Debekuak	Sektorerik ahulenak: adingabeak, adimen urritasunak dituztenak eta sarrera debekatua duten pertsonen zerrendakoak (borondatez izena eman ahal izango dute). Kasinoen titularrek sartzeko baldintzak ezarri ahal izango dituzte jantziari dagokionez.
Ordutegia	Funtzionatzeko baimenean ezarritako ordutegia. Enpresak berak ezarriko ditu aretoetako jokoen ordutegiak eta tarteak. Ordutegia Joko Zuzendaritzari jakinarazi beharko zaio.
Publizitatearen araubidea	Informazioko sustapenak, aurretiaz Joko Zuzendaritzak espresuki baimena emanda. Ez da aurretiazko baimenik beharko honetarako: I. Prentsa, irrati, telebista, turismo erreportaje edo iragarkietan aipatzeko. Aldizkari espezializatuetako zabalkunderako. II. Kasinoaren izena ikuskizun publikoen babesle gisa erabiltzeko, adingabeentzako ikuskizunetan izan ezik. III. Kasinoari buruzko liburuxkak egiteko. IV. Komunikabideetan informazioko erreportajeak egiteko. V. Eraikinaren fatxadan errotuluak jartzeko eta kokapena adierazteko errotuluak jartzeko. VI. “Kasino” hitza izen komertzialaren barruan erabiltzeko. VII. Izen komertzialarekin edo anagramarekin objektuak egiteko eta saltzeko, adingabeentzat izan ezik. VIII. Erabiltzaileei izen komertzialarekin edo anagramarekin balio gutxiko objektuak doan emateko. Ohiz kanpokoa izango da telebistan sustapen jarduerak egiteko baimena ematea. Emisioa ordu jakin batzuetara mugatuta egongo da: 22:00etatik 07:00etara.
Zehapen araubidea	Jokoaren Euskal Legean ezarritakora doituta dago. Hortaz, arau hausteek sailkapen berdina izango dute eta zehapenek zenbateko berdina.

3.3.12. Apustuei buruzko araudia

Apustuek tradizio handia dute euskal kulturan. Hori dela eta, erakunde autonomikoek independentzia eman diete zaldi lasterketetako apustuei, apustu orokorretatik, eta lehenengoz arautu dituzte sistema telematikoen bidezko apustuak. Hala, Euskadik honako xedapen hauek ditu:

- 95/2005 Dekretua, apirilaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Apustuen Erregelamendua onesten duena (aurrerantzean, Apustuen erregelamendua).

Apustuen erregelamendua legezko xedapen bat da, apustuen negozioari, lehenengoz, berariazko arau esparrua eman ziona, Jokoaren Euskal Legean zeuden xedapen orokorretatik harantzakoa.

– 2011ko uztailaren 7ko agindua, euskarri telematikoen bidez apustuak ustiatzeko joko sistemak eta elementuak homologatzeari buruzkoa.

Apustuen erregelamendua garatzeko emandako agindu bat da. Beraren bidez ezartzen da erabiltzen diren sistemak homologatzeko prozedura.

- 68/2005 Dekretua, apirilaren 5ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko zaldi lasterketetako apustuei buruzkoa (aurrerantzean, Zaldi lasterketetako apustuen erregelamendua).

Zaldi lasterketetako erregelamendua eta Apustuen erregelamendua bat datoz, biak onartu baitziren garai bertsuan eta helburu berdintsuarekin: Euskadik apustuen negoziorako berariazko araudia izatea. Hala ere, logikoa denez, zaldi lasterketetako apustuen erregelamenduak berezitasun batzuk ditu, arautzen duen apustu motari begira. Hortaz, behar gabe ez errepikatzeko, zaldi lasterketetako apustuen erregelamenduaren edukiaren analisirako epigrafean, apustu mota horri dagozkion berezitasunak baino ez ditugu aipatuko. Gainerakoetan (bereziki publizitatearen eta zehapeneko araubidean), aurreko atalean aztertutako Apustuen erregelamenduan esandakoari lotuko gatzaizkio.

M.Arrazola/ej-gv

3.3.13. Apustuen erregelamendua

Esparru materiala	Baldintza subjektiboak	Baimenen erregimena	Fidantza	Homologazioa
Apustuak **Dekretuaren eranskinean jasotako ekitaldiei buruz.** **Motak:** **I. Elkarrekiko apustuak, ordainetakoak eta gurutzatuak.** **II. Sinpleak, konbinatuak edo anizkoitzak.** **Apustuak egiten diren tokiaren arabera, barnekoak edo kanpokoak izango dira.** **Debekatuta daude honelako apustuak:** **I. Oinarrizko eskubideen kontrakoak.** **II. Delitu edo hoben gisa tipifikatutakoak.** **III. Gertakari politiko edo erlijiosokoak.** **IV. Legez debekatutakoak.** **Beste elementu batzuk** **Apustuak ustiatzen dituzten enpresak.** **Apustu etxeak.** **Makina laguntzaileak.**	EBko estatu kide bateko herritar diren pertsona fisikoak. Pertsona juridikoak: I. Zuzenbidean balioko den sozietatea. II. Gutxieneko kapital soziala: 1.000.000 € III. EBko kide den estatu bateko herritartasuna. IV. Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza dutenak, Administrazioarekiko harremanetarako. V. Helburu sozial esklusiboa. apustuen eta lotuta dauden beste jarduera batzuen ustiapeneko jarduerak garatzea. VI. Jokoaren Erroldan izena emanda. Muga: Baimendutako enpresek ezin izango dute % 5eko partaidetza baino handiagoa izan Autonomia Erkidegoan baimendutako beste edozein enpresatan.	**Prozedura** **Lehiaketa publikoa, joko arloan eskumena duen Sailak deituta.** **Muga kuantitatiboa** **Gehienez, 3 baimen.** **Lehiaketa huts deklaratu daiteke.** **Ebazpena** **Erakundea: Joko Zuzendaritza.** **Eskumeneko muga:** **I. Baimendutako apustu motak.** **II. Zeren gainean egin apustu.** **III. Apustuen gutxieneko eta gehieneko mugak.** **Indarraldia** **10 urte berriztagarri, baldintzak betez gero.**	500.000 €	Apustuen ustiapen eta kudeaketarekin zerikusia duten elementu guztiak (Apustuen Unitate Zentrala, makina laguntzaileak, txartelak, erabili beharreko domeinu eta sistema informatikoak, apustu interaktiboetan, etab.) Joko Zuzendaritzak homologatuak izan behar dira. 2011ko uztailaren 7ko aginduak araututako prozedura.

Debekuak	Sektorerik ahulenak: adingabeak, adimen urritasunak dituztenak. Titularrak, akziodunak, kapitalaren ordezkariak eta apustuaren sozietate ustiatzaileetako partaideak, zuzendariak eta enplegatuak, baita lehen mailako senide eta ezkontideak. Apustuaren gai den kiroleko epaileak eta horien erabakien kontrako helegiteak ebazten dituzten pertsonak eta Apustuen Batzordeko kideak. Apustuen kontrola eta ikuskaritza eginkizun duten funtzionarioak.

Baimena duten lokalak	Makina laguntzaileak	Publizitatearen araubidea	Zehapen araubidea
Kanpoko apustuak: **I. Joko Zuzendaritzak berariaz baimendutako lokala.** **II. f. Joko aretoak.** **III. Kasinoak.** **IV. Ostalaritzako lokalak.** **Barneko apustuak:** **Apustu egiten den ekitaldiaren esparrua.** **Apustu tradizionalak: Pilota, estropadak, herri kirolak, etab. Apustu egiten den jarduerako tokiak, pilotalekuak edo aire zabaleko espazioak.** **Apustuen ustiapena makinen, sistema informatikoen, elkarreraginekoen, telefonikoen edo bestelako komunikabide edo konexioen bidez.**	**Enpresa ustiatzailea** **Apustuak ustiatzeko baimena duten enpresa operadoreak (goian aipatutako baldintza subjektiboak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak).** **B eta C motako joko makinak ustiatzeko baimena dutenak.** **Lokalak eta mugak** **Apustuko jarduera egiten den esparrua.** **Apustu etxea: gehienez, 10 makina lokaleko.** **Ostalaritzako lokalak: makina bat.** **Joko aretoak, kasinoak eta bingoak: 3 makina laguntzaile B edo C motako 12 makinako edo frakzioko.** **Apustu etxe gisa gaitutako joko aretoak: gehienez, apustuen 5 terminal.** **1.500 makina gehienez Autonomia Erkidegoko lurralde osoan.**	**Baimendu beharra** **Aldizkari espezializatuetan.** **Apustu egiten den jarduerari buruzko informazioko liburuxketan.** **Baimendutako lokalen barruko merkataritzako publizitatean.** **Baimena** **Sustapen informatibo soilak: irratian eta telebistan ezin dira egin 7:00etatik 09:00etara eta 17:00etatik 21:30era.** **Erakunde publikoek antolatutako kirol jardueren babesa, adingabeentzako jarduerena izan ezik.**	Jokoaren Euskal Legean ezarritakora doituta dago. Hortaz, arau hausteek sailkapen berdina izango dute eta zehapenek zenbateko berdina.

3.3.14. Zaldi lasterketetako apustuen erregelamendua

Esparru materiala	Baimena duten lokalak	Fidantza	Muga kuantitatiboak
Zaldiek parte hartzen duten kirol ekitaldi edo txapelketetan oinarritutako apustuak. **Motak:** **I. Elkarrekikoak eta ordainetakoak.** **II. Debekatuta daude gurutzatuak.** **Zaldi lasterketetako apustuetarako makina laguntzaileak.**	Barneko apustua: I. Apustuaren gai den ekitaldia gertatzen den hipodromo baimendua. Kanpoko apustua: I. Baimendutako berariazko lokalak. II. Joko aretoak, bingoak edo kasinoak.: III. Baimendutako ostalaritzako lokalak. Zioen azalpenean aipatzen da apustu hauek interakziozko edo urrutiko konexioko bitartekoak erabiliz egiteko aukera, baina ez da halakorik arautzen; hortaz, ez dago baimenduta lokal horietatik kanpoko apusturik, ez euskarri informatiko edo interakziozkoetan ere.	Barneko apustua: 60.000 € Kanpoko apustua: 180.000 €	Berariazko lokalak: I. Gehienez 15 lokal Autonomia Erkidegoan. Makinak: I. Joko aretoak, bingoak edo kasinoak: 1 makina. II. Ostalaritzako lokalak: 1 makina. III. 100 makina Autonomia Erkidegoan. Sariak: Motaren arabera. Gutxienez, apustuaren zenbatekoa 20 aldiz (hirukoitz bikia, boskoitzak, etab.). Gehienez, apustuaren zenbatekoa 1.000 aldiz (kate soilean).

Debekuak	Titularrak, akziodunak, kapitalaren ordezkariak eta apustuaren sozietate ustiatzaileetako partaideak, zuzendariak eta enplegatuak, baita lehen mailako senide eta ezkontideak ere. Apustuaren gai den kiroleko epaileak eta horien erabakien kontrako helegiteak ebazten dituzten pertsonak. Entrenatzaileak, zaldizko profesionalak edo jockeyak eta ikastunak. Apustuen kontrola eta ikuskaritza eginkizun duten funtzionarioak

Baimenen erregimena	Funtsean, apustu orokorretarako ezarritako lehiaketa publikoko sistema bera da, baina berezitasun batzuekin: I. Bi baimen mota: - Enpresa ustiatzaileen baimena (enpresa guztiek eskuratu behar dute). - Kanpoko apustu bat ustiatzeko baimena (kanpoko apustuen enpresa ustiatzaileek baino ez dute eskuratu behar). II. Baldintza subjektiboak: Gutxieneko kapital soziala baino ez da aldatzen. - 120.000 € kanpoko apustuen enpresa ustiatzaileentzat. - 60.000 € barneko apustuen enpresa ustiatzaileentzat. III. Muga kuantitatiboak: - Barneko apustua: 3 baimen Autonomia Erkidego osorako. Nahi eta nahi ez, apustuen gai diren ekitaldiak izango diren hipodromoak kudeatzen dituzten enpresei eman behar zaizkie. - Barneko apustua: Baimen bat Euskal Autonomia Erkidego osorako. IV. Muga subjektiboak: - Ezin dira enpresa ustiatzaileen titular izan joko makinen enpresa operadoreen, bingo etxeen edo kasinoen ustiatzaile direnak, ezta haietan partaidetza nagusia duten pertsona fisikoak ere. - Konpainia bakar batek kanpoko apustuen ustiatzaile izateko baimena eta barneko apustuen ustiatzaile izateko baimena eduki ditzake aldi berean.

3.3.15. Zozketei buruzko araudia

Zozketen kategorian hainbat joko mota sartzen dira, zoriak joko horietan duen paper garrantzitsua ezaugarri dutenak. Bi dira, batez ere, negozio hori arautzen duten arauak:

-314/1994 Dekretua, uztailaren 19koa, boletoen bidezko jokoa arautzen duena (aurrerantzean, Txartelen jokoaren araudia).

Txartelen jokoaren araudiak hainbat joko mota biltzen ditu. Denek dute ezaugarri bat: txartel bat erosten da aurretiaz ezarrita dagoen prezio batean, eta aurretiaz ezarritako sari bat eskuratu daiteke txartel horrekin. Araudiak ez du joko bakoitzaren kasuistika zehazten. Txartelen bidezko joko guztien ustiapenaren jarraibide orokorrak baino ez ditu ezartzen.

– Agindua, 1991ko irailaren 2koa, Herrizaingo Sailarena, konbinazio aleatorioak izenez ezagutzen den joko modalitatea arautzeari buruzkoa (aurrerantzean, Konbinazio Aleatorioen Agindua).

Konbinazio aleatorioen Aginduak jokoaren kasu jakin bat arautzen du, sustapen edo publizitate helburua duena: ausazko konbinazioena.

3.4. Zerga esparrua

3.4.1 Sarrera

Lurralde Historikoek arautzeko eskumenak dituzte joko arloan eta modalitateak arautzen dituzte Foru Arauen bidez. Arau horiek ia berdinak dira, aitorpenak eta autoaitorpenak arautzean izan ezik.

Zerga esparruak, lehenengo, jokoaren jarduera antolatze hutsari dagozkion tributuak aztertzeari ekin dio eta tributu zuzenak eta zeharkakoak bereizi ditu. Bigarrenik, jokoaren tributua deskribatzen duten ezaugarri nagusiak aztertu ditu.

Gaiaren berezitasuna kontuan harturik, ondoren aipatzen diren joko modalitateen tributua osatzen duten elementuak hartuko ditu ardatz analisiak:

- Joko makinak
- Bingoa, bingo elektronikoaren modalitatea barne.
- Txartelak
- Zozketak
- Tonbolak
- Ausazko konbinazioak
- Euskal Autonomia Erkidegoko jokoen katalogoan sartuta dagoen beste edozein joko mota.

3.4.2 Zerga esparruaren baterako azterketa

Zergak bi kategoria nagusitan sailkatzen dira: zuzeneko zergak eta zeharkako zergak.

A. Zuzeneko zergak

Zuzeneko zergen kasuan, bereizi egin behar da jokoaren jarduera bera antolatze hutsa eta jokalariaren eta enpresaburuaren (jokoa antolatzen duenaren) gaitasun ekonomikoari aplikatzen zaion zerga ordainketa.

Jarduera bera Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren bidez zergapetuta dago, eta halako jardueretatik datozen sarrerak, berriz, Sozietateen gaineko Zergaren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren bidez ordaintzen dira, pertsona fisikoa edo juridikoa den kontuan hartuta.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga

Enpresa edo lanbideko jardueretan aritzea, kasurako joko bat antolatzea eta egitea, Ekonomia Jardueren gaineko udal tributuari lotuta dago. Zerga arauak jarduera hauek bereizten ditu: alde batetik, zozketak, tonbolak, apustuak eta ausazko konbinazioak antolatzekoak; eta, bestetik, enbidoko edo ausazko jokoak. Esan dezagun, zerga horrek zergapetzen dituen jarduerak salbuetsita geratuko direla subjektu pasiboak pertsona fisikoak direnean edo, pertsona juridikoak izanik, 2.000.000 € baino gutxiagoko eragiketa bolumena dutenean, Gipuzkoan izan ezik. Lurralde horretan 1.000.000 € baino gutxiagokoak izan behar du, 4/2014 Foru Araua, uztailaren 4koa, indarrean sartu denetik.

Sozietateen gaineko Zerga

Sozietateen gaineko zerga itundutako tributu bat da, autonomia erkidego mailakoa, zuzena eta izaera pertsonalekoa, sozietateen eta gainerako erakunde juridikoen errenta zergapetzen duena. Hori dela eta, zergapetuta daude bai jarduera antolatzen duen pertsona, bai jokalari gisa parte hartzen duen enpresa.

Zerga oinarria honela osatzen da: zergaldiko errentaren zenbatekoa ken aurreko ekitaldietako zerga oinarri negatiboen konpentsazioa, halakorik egonez gero. Kontabilitate emaitzatik abiatuta kalkulatzen da, Foru Arauetan aurreikusitako manuekin zuzendurik.

Pertsona juridikoa jokoa antolatzen duen erakundea denean (enpresaburua), zerga oinarria honela kalkulatuko da: ekitaldian izandako sarrerak ken jokoa antolatzen izandako gastuak. Era berean, jokoaren gaineko zergetan ordaindutakoa kengarria izango da; izan ere, kontabilitatean ekitaldiko sarrerak eskuratzeko beharrezko gastutzat jasota daude.

Pertsona juridikoak jokalari gisa diharduenean, jarduera horietan parte hartzetik eskuratzen dituen sarrerak beste edozein sarrera gisa ordaindu beharko ditu sozietateen gaineko zergan. Hala ere, sarrerekin gertatzen ez den bezala, sozietateen gaineko zergari buruzko arauan ezarritakoaren arabera, jokoa dela eta izandako galerak ezin izango dira deduzitu sozietateen

gaineko zergan. Abenduaren 27ko 16/2012 legetik hasita, tasa karga berezia duen saria eskuratzen duten sozietateen gaineko zerga ordaindu behar dutenek sariaren zenbatekoa sartu beharko dute epealdi horretarako lotuta dauden errenten barruan eta atxikipena/konturako sarrera, beste konturako sarrera bat balitz bezala. Araudi berriarekin dagoen alde bakarra hau da: sari horiek % 20ko atxikipena edo konturako sarrera egin beharra dute.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ)

PFEZ autonomia erkidegoko itunpeko tributu bat da, zergadunaren ohiko bizitokiarekin lotua. Subjektu pasiboak pertsona fisikoak dira eta zergadun horrek eskuratutako errenta da zerga egitatea. Hortaz, bereizi egin behar da puntu honetan jokoa antolatzen duen pertsona fisikoa eta jokoan parte hartzen duena.

Jokoan aritzetik ateratako errentak jarduera ekonomikoen errendimendutzat hartzen dira. Hortaz, eragiketa honen emaitzari aplikatuko zaio karga tasa: ekitaldian izan dituen sarreren batura ken ekitaldian izandako gastuak. Aplikagarri den karga-tasari dagokionez, pertsona fisikoari karga tasaren eskalan aplikagarri zaiona izango da.

Jokoaren jardueran aritzetik jokalariak eskuratzen dituen errentak ondare irabaziak izango dira. Hala ere, ez dira inoiz ondare galeratzat hartuko jokoan parte hartzeagatik izandakoak. Jokoko irabaziei aplikagarri zaien tasa pertsona fisikoari karga tasaren eskalan aplikagarri zaiona da. Aipa dezagun karga tasa berezia, abenduaren 27ko 16/2012 legeak ezarria, eta lurralde historikoetan Foru Arau hauen bidez aplikatzen dena: Araba (11/2013 Foru Araua, martxoaren 18koa), Gipuzkoa (4/2012 Foru Araua, uztailaren 4koa) eta Bizkaia (13/2013 Foru Araua, abenduaren 5ekoa).

Zein jokori aplikatzen zaion karga tasa berria:

a) Estatuko Loteria eta Apustuen Estatuko Sozietateak eta autonomia erkidegoetako erakundeek antolatutako loteria eta apustuen sariei, Gurutze Gorriak antolatutako zozketen sariei eta Espainiar Itsuen Elkarte Nazionalak baimendutako joko modalitateen sariei.

b) Europar Batasuneko beste estatu batzuetako edo Europako Esparru Ekonomikoko erakunde publikoek edo bertan kokatuta dauden irabazi asmorik gabeko jarduera sozial edo asistentziala duten erakundeek (aurreko letran aipatutako erakundeek dituzten helburu berdinak dituztenek) antolatutako loteria, apustu edo zozketen sariei.

Karga tasa berezi hori saria abonatzean edo ordaintzean sortuko da. Saria ordaintzen duenak % 20ko atxikipen edo konturako sarrera egin beharko du. Kitatzeko indarra izango du eta salbuetsi egingo du zergaduna autolikidazioa aurkeztetik.

Ez dute karga tasa ordaindu beharrik izango 2.500 euroko zenbateko osoa edo txikiagoa duten sariek. 2.500 eurotik gorako zenbateko osoa dutenak zergapetuta egongo dira zenbateko horretatik gorako zatiagatik.

Lurralde Historikoetako foru aldundiek Foru Arauen bidez egokitu zituzten karga tasa horiek.

Baina ez dituzte subjektu pasiboak eskuratutako gainerako irabaziak murrizten. Beste ondare irabazi batzuetan gertatzen ez den bezala (zerga tasa finkoa dute), jokoan izandako irabaziei aplikatzen zaien zerga tasa pertsona fisikoari karga tasaren eskalan aplikagarri zaiona da.

B. Zeharkako zergak

Zeharkako zergek, zuzenek ez bezala, jarduera zergapetzen dute. Subjektu pasiboak produktu eta zerbitzuak eskaintzen dituztenak izaten badira ere, kontsumitzaileetan ere eragiten du. Zerga kategoria horren barruan daude Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) eta Jokoaren gaineko Tasa. Gu aztertzen ari garen kasuan, Jokoaren gaineko Zergak du garrantzia.

Balio Erantsiaren Gaineko Zerga (BEZ)

BEZa zeharkako tributu bat da, kontsumoaren gainean aplikatzen dena, eta honako eragiketak zergapetzen ditu, legeak ezarritako era eta baldintzetan: enpresaburuek edo profesionalek emandako ondasun eta zerbitzuak. BEZaren arauan, zerga hau ordaintzetik salbuetsita daude zozketa, tonbola, apustu, ausazko konbinazio eta enbidoko, zorizko edo ausazko jokoen antolaketatik datozen zerga egitateak. Ez daude salbuetsita,

ordea, jarduera horien kudeaketarako jarduera osagarriak.

Jokoaren gaineko tasak

Ondoren azalduko dugun bezala, Jokoaren gaineko Tasa zeharkako zerga bat da, jokoaren antolaketa zergapetzen duena.

3.4.3. Jokoaren gaineko tasa

A. Tributuaren izaera: tasa ala zerga?

Jokoaren gaineko Zergaren asmoa ez da Estatuak emandako zerbitzu bat edo jarduera bat erabiltzearen ordaina izatea; aitzitik, gastu edo kontsumo jakin bat bereziki zergapetzen duen zerga bat da. Hortaz, bereizi egin behar da Jokoaren gaineko Tasa, joko jakin batzuen emakida administratiboa jasotzean ordaindu beharreko bestelako tasetatik.

B. Jokoaren gaineko zergaren araudia

Lurralde Historikoek dute eskumena tasa hori arautzeko. Ondoren ageri dira lurralde bakoitzeko arauak:

BIZKAIA

I. 3/2005 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoan Jokoaren gaineko Zerga arautzen duena.

II. 113/2009 Foru Dekretu Arauemailea, uztailaren 21ekoa, bingoko kartoien salmentaren gaineko tasaren zenbatekoa aldatzen duena.

III. 4/2012 Foru Araua, irailaren 4koa, aurreko araua aldatzen duena, bingo elektronikoaren tributuaren zerga egitatea sarturik, eta bingo tradizionalaren tributu tasa berria jartzen duena.

IV. 7/2014 Foru Araua, ekainaren 11koa, joko jardueren gaineko zergari buruzkoa.

V. 6/1992 Legea, urriaren 16koa, Eusko Legebiltzarrarena, bingo jokoaren gaineko zergari eta zoripeko jokoak egiteko bide ematen duten makinez eta gailu automatikoez baliatuz egiten diren jokoen gaineko tasaren errekarguari buruzkoa.

VI. 5/2010 Legea, abenduaren 23koa, aurreko legean ezarritako bingo jokoaren zerga bereziaren karga tasa aldatzen duena.

ARABA

I. 5/2005 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, Arabako Lurralde Historikoan Jokoaren gaineko Zerga arautzen duena.

II. 57/2009 Foru Dekretu Araugilea, uztailaren 14koa, bingoko kartoien salmentaren gaineko tasaren zenbatekoa aldatzen duena.

III. 5/2013 Foru Araua, urtarrilaren 28koa, aurreko araua aldatzen duena, bingo elektronikoaren tributuaren zerga egitatea sarturik, eta bingo tradizionalaren tributu tasa berria jartzen duena.

IV. 23/2014 Foru Araua, uztailaren 9koa, joko jardueren gaineko zergari buruzkoa.

V. 6/1992 Legea, urriaren 16koa, Eusko Legebiltzarrarena, bingo jokoaren gaineko zergari eta zoripeko jokoak egiteko bide ematen duten makinez eta gailu automatikoez baliatuz egiten diren jokoen gaineko tasaren errekarguari buruzkoa.

VI. 5/2010 Legea, abenduaren 23koa, aurreko legean ezarritako bingo jokoaren zerga bereziaren karga tasa aldatzen duena.

GIPUZKOA

I. 1/2005 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Jokoaren gaineko Zerga arautzen duena.

II. 30/2009 Foru Dekretu Araugilea, irailaren 15ekoa, bingoko kartoien salmentaren gaineko tasaren zenbatekoa aldatzen duena.

III. 5/2010 Foru Araua, abenduaren 23koa, 1/2005 Foru Araua, martxoaren 10ekoa aldatzen duena, bingo tradizionalari eta kasinoari aplikagarri zaion tributuari buruzkoa.

IV. 3/2012 Foru Araua, uztailaren 27koa, 1/2005 Foru Araua, martxoaren 10ekoa aldatzen duena,

bingo elektroniko jokoaren tributuaren zerga egitatea erantsirik.

V. 6/1992 Legea, urriaren 16koa, Eusko Legebiltzarrarena, bingo jokoaren gaineko zergari eta zoripeko jokoak egiteko bide ematen duten makinez eta gailu automatikoez baliatuz egiten diren jokoen gaineko tasaren errekarguari buruzkoa.

VI. 5/2010 Legea, abenduaren 23koa, aurreko legean ezarritako bingo jokoaren zerga bereziaren karga tasa aldatzen duena.

C. Jokoaren tributuen elementuak

Lurralde Historikoetako araudiak ia berdinak dira. Hortaz, ondoren datorren analisia hirurei zaie aplikagarri, printzipioz.

Zerga erregimena aldatu egiten da, joko edo jarduera motaren arabera. Alde batetik, Joko Jarduerei (tonbolak, zozketak, apustuak eta ausazko konbinazioak) buruzko Zerga berrian jasotzen den zerga tasa aplikatzen zitzaizkien jarduerak daude. Zerga berri hori 13/2011 Legeak, maiatzaren 27koak, jokoa arautzen zuenak, sortu zuen. Indarrean zegoen lurralde erkidean 2011ko maiatzaren 29tik. Lege horrek zergapetzen ditu estatu mailako joko, zozketa, txapelketa eta apustuak, batez ere, bitarteko elektroniko, informatiko, telematiko eta interaktiboen bidez egiten direnak eta bitarteko presentzialek izaera osagarria dutenak.

Zerga berriarekin batera, Zorizko, Enbidoko edo Ausazko Jokoei buruzko Tasen araudia ere aldatzen da, aipatutako zergak arututakoak izan ezik. Zozketa, tonbola, apustu eta ausazko konbinazioei buruzko zerga tasa lurraldez eskudun den foru aldundiak ordainarazten du, Euskadin baimena eman behar denean; eta enbidozko edo ausazko jokoei aplikatzen zaien tasa lurraldez eskudun den foru aldundiak ordainarazten du, zerga egitatea Euskadin egin behar denean.

Hala, ondoren aztertuko dugun Zorizko, Enbidozko edo Ausazko Jokoei buruzko Tasaren aldaketan ikusten da (13/2011 Legearen bosgarren azken xedapenaren bidez) tasaren zerga egitatea aldatzen duela, zerga berrira lotutako zerga egitateak salbuetsiz. Hortaz, egokitzapen teknikoa egiten da Ekonomia Itunean, apirilaren 21eko 7/2014 Legearen bidez, eta 36. artikuluan finkatzen dira beharrezko lotura puntuak, zerga berrian aplikagarri den araudia, ordainarazpena eta ikuskaritza zehazteko. Lotura puntu horiek ondoren ageri dira laburtuta:

- Joko Jarduerei buruzko Zerga berria araudi erkideko zerga da. Hala ere, Euskadiko erakundeei aukera ematen zaie zerga tasak igotzeko % 20ra arte, Estatuan une horretan aplikatzen diren tipoak kontuan izanda, baldin eta zerga horrek zergapetzen duen jarduera garatzen duten operadore, antolatzaile eta garatzaileek Euskadin egoitza fiskala badute. Igoera hori bakarrik egingo da euskal lurraldean egoitza fiskala dutenen jokoaren partaidetzaren zerga oinarriari dagokion zatian.

- Subjektu pasiboek, nolanahi ere, ekitaldian zehar lurralde bakoitzean egin duten eragiketa bolumenaren proportzioan ordaindu beharko dituzte zergak, Euskadin eta lurralde erkidean egoitza duten jokalariek jokatu dituzten zenbatekoen pisu erlatiboaren arabera. Proportzio berdina aplikatuko zaie jokalariaren egoitza identifikatu ezin deneko joko modalitateetatik sortutako kuota likidatuei eta espainiar lurraldean bizi ez diren jokalariei dagozkien kuotei ere.

- Zergaren ikuskaritza subjektu pasiboaren egoitza fiskaleko Administrazioari dagokio, salbu eta jokatutako zenbateko pilatua 7 milioi euro baino gehiago bada eta eragiketa guztiak beste lurralde batean egin badira (erkidean edo euskal lurraldean, kasuaren arabera). 36. artikulu horretan jasotakoa testu itunduaren hamabigarren xedapen iragankorrarekin osatzen da. Xedapen horrek dio Estatuaren eskumen esklusiboa dela, aldi baterako, kirol eta ongintzako elkarrekiko apustuen eta Estatuko zaldi lasterketetako elkarrekiko apustuen zerga ordainaraztea.

Ondoren azaltzen dira aipatutako zergen elementuak:

Joko jardueren gaineko zerga, zozketa, tonbola, apustu eta ausazko konbinazioei aplikagarri zaiena

Izaera eta helburua

Joko jardueren gaineko zerga itundutako tributu bat da, Estatuak une bakoitzean ezarritako arau substantibo eta formalek arautua.

Zergaren ordainarazpena

Zergadunek, egoitza fiskala daukaten lekuan daukatela, dagokien foru aldundiari ordainduko diote, ekitaldian lurralde historiko horretan egindako eragiketa bolumenaren proportzioan. Ekitaldian egindako eragiketen bolumenaren proportzioa lurralde historiko bakoitzean egoitza duten jokalariek jokatutako kantitateen pisu erlatiboaren arabera zehaztuko da. Proportzio hori jokalariaren egoitza identifikatzeko modurik ez dagoen joko modalitateetatik sortutako kuota likidatuei eta espainiar lurraldetik kanpo egoitza duten jokalarien kuotei ere aplikatuko zaie. Dena dela, jokalariaren egoitza identifikatu ezin den kasuetan, kirol eta ongintzako elkarrekiko apustu eta Estatuko zaldi lasterketetako elkarrekiko apustuetatik sortutako zergaren ordainarazpena foru aldundiei dagokie, apustua egiten den salmenta puntua lurralde historikoetako batean badago.

Zerga egitatea

a) Loteria, apustu eta bestelako jokoetako jarduerak, diru kopurua edo nola edo hala ekonomikoki ebaluatu daitezkeen objektuak arriskatzen badira, etorkizuneko eta ziurrak ez diren emaitzen inguruan, eta parte hartzaileen artean transferitzeko modua ematen badute, jokalarien trebetasun maila gorabehera, edo zorte, enbido edo ausazkoak badira erabat edo batez ere.

b) Zozketak eta lehiaketak, ordain ekonomiko baten truke parte hartzen bada.

c) Noizean behingo jokoak, gainerako jokoetatik noizean behingotasun horregatik bereizten badira.

d) Mugaz gaindiko joko jarduerak, hau da, espainiar lurraldetik kanpo bizi diren pertsona fisiko edo juridikoek eginak eta espainiar lurraldean bizi direnei jokoak antolatu edo eskaintzen dizkietenak.

Joko kontzeptutik baztertuta egon arren, zerga egitatearen barruan sartzen dira publizitate edo sustapenerako egindako ausazko konbinazioak, estatu mailakoak, jokoa arautzen duen maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen 2. artikuluko 2. ataleko c) letran.

Zergari lotuta ez dauden kasuak

Ez daude zergari lotuta estatu mailako loteria jokoak, antolatzen edo egiten dituen operadorea (publikoa edo pribatua) edozein dela ere. Nolanahi ere, zergari lotuta egongo dira estatu mailakoak izan eta loteria ez diren gainerako jokoak, aurreko lerroaldean aipatzen diren operadoreek antolatuak edo eginak badira.

Sortzapena

Zerga baimena ematean, jokoa egitean edo antolatzean sortuko da. Denboraldi baterako luzatzen diren baimen, egite edo antolaketak direnean, sortzapena urte natural bakoitzeko lehenengo egunean izango da, baimena eskuratzen den lehenengo urtean izan ezik. Kasu horretan, sortzapena baimena ematen den egunean izango da.

Zergadunak

Zerga horren zergadunak izango dira Lurralde Historikoetako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak aipatzen dituen pertsona fisiko, juridiko eta entitateak, zerga horrek zergapetzen dituen jarduerak garatu, antolatu edo egiten dituztenak.

Erantzuleak

Zergaren ordainketaren erantzule solidarioak izango dira, oro har, espainiar lurraldean egoitza fiskala duten pertsonei joko jarduerak eskaintzen dizkietenak, bitartekoa edozein dela ere; baita jokotik irabaziak eskuratzen dituztenak ere, berdin dio zein lurraldetatik diharduen jokoaren operadoreak, betiere joko jarduera horiek antolatzen edo egiten dituztenek gaitzen dituzten tituluak dituztela egiaztatu ez badute. Erantzule solidarioak izango dira, halaber, azpiegituren jabe edo enpresaburuak eta informazioaren gizarteko zerbitzuen emaileak, gaitzen dituzten tituluak daudela egiaztatzen ez badute, zentzuz susmatzen badute azpiegitura edo zerbitzu horiek Foru Arau horrek araututako jokoetarako erabiltzen edo baliatzen direla. Atal honetan arautzen den erantzukizunean ez erortzeko, edozein pertsonak edo erakundek egiaztatu ahal izango du, Jokoaren Batzorde Nazionalaren web orriko informazioan, jarduera jakin batek horretan jarduteko behar diren tituluak dituen, artikuluan ezarritakoaren arabera.

Zerga oinarria

Zerga oinarria honakoek osatuko dute, joko motaren arabera:

a) Sarrera gordinek, hau da, jokoan parte hartzera emandako guztizko zenbatekoek, baita jokoa antolatzetik edo egitetik zuzenean eskuratzen den beste edozein sarrerak ere.

a) Sarrera garbiek, hau da, jokoan parte hartzera emandako guztizko zenbatekoek, baita jokoa antolatzetik edo egitetik zuzenean eskuratzen den beste edozein sarrerak ere, operadoreak parte hartzaileei emandako sariak kendu ondoren. Apustu gurutzatuak direnean edo jokatutako zenbatekoak zergadunak sarrera propiotzat jasotzen ez dituenean, hau da, jokalari irabazleei zuzenean helarazten dizkietenean, komisioek eta joko jarduerarekin zerikusia duten zerbitzuengatik (berdin dio zein izen hartzen duten) jokalariek zergadunari ordaindutako zenbatekoek osatuko dute zerga oinarria.

Publizitate edo sustapenetarako ausazko konbinazioetan, eskaintzen diren sarien edo parte hartzaileei eskaintzen zaizkien abantailen merkatuko balio osoa izango da zerga oinarria.

Zenbatekoa tarifikazio erantsiko tresnen bidez ordaintzen bada, jokoan parte hartzeko eman den kopurua izango da tarifikazio erantsiaren zenbatekoa, dagokion zeharkako zerga kenduta. Tarifikazio erantsitzat hartuko da jokoan parte hartzeko ematen den zenbatekoa, deiak merkatuan duen balioaren kostua kenduta, Sozietateen Zergaren Foru Arauaren 42. artikuluan xedatutakoa aplikagarri denean, ondorio horietarako eragiketen gaineko zeharkako zergak kontuan hartu gabe.

Karga tasak

1. Kiroletako elkarrekiko apustuak: Goian deskribatutako a) letraren zerga oinarriaren % 22.

2. Ordainetako kirol apustuak: goian deskribatutako b) letrako zerga oinarriaren % 25.

3. Kiroletako apustu gurutzatuak: goian deskribatutako b) letrako zerga oinarriaren % 25.

4. Zaldi lasterketetako elkarrekiko apustuak: goian deskribatutako a) letrako zerga oinarriaren % 15.

5. Ordainetako zaldi lasterketetako apustuak: goian deskribatutako b) letrako zerga oinarriaren % 25.

6. Elkarrekiko beste apustu batzuk: goian deskribatutako a) letrako zerga oinarriaren % 15.

7. Ordainetako zaldi lasterketetako apustuak: goian deskribatutako b) letrako zerga oinarriaren % 25.

8. Beste apustu gurutzatu batzuk: goian deskribatutako b) letrako zerga oinarriaren % 25.

9. Zozketak: goian deskribatutako a) letrako zerga oinarriaren % 20. Onura publikoko edo ongintzako izendapena dutenek zerga oinarri beraren % 7 ordainduko dute.

10. Lehiaketak: goian deskribatutako a) letrako zerga oinarriaren % 20.

11. Bestelako jokoak: goian deskribatutako b) letrako zerga oinarriaren % 25.

12. Publizitate edo sustapenetako ausazko konbinazioak: Horietarako ezarritako zerga oinarriaren % 10.

Zorizko, enbidoko edo ausazko jokoen gaineko tasa

Tributu bakoitzean bezala, komentatutako figura bakoitzak baditu bere ezaugarriak. Ondoren, haien azterketa sakona egingo da, eskema honi jarraituta:

I. Izaera eta helburua

II. Esparru materiala

III. Zerga egitatea

IV. Subjektu pasiboa

V. Erantzuleak

VI. Zerga oinarria

VII. Karga tasa

VIII. Sortzapena

Xedapen orokorrak

Izaera eta helburua

Jokoaren gaineko tributua zeharkako zerga mota bat da, jokoaren jarduerak zergapetzen dituena.

Esparru materiala

Aplikazio eremua hau da: baimena Euskadin jaso behar duten joko jarduerak eta lurralde historikoetako batean egin behar direnak.

Zerga egitatea

Jokoaren gaineko tributuaren zerga egitateak honakoak dira: behean zehazten diren joko jarduerak baimentzea, antolatzea edo egitea, edozein bitarteko erabiliz: eskuzkoa, teknikoa, telematikoa edo interaktiboa.

- Kasinoko jokoak.
- Bingoa, bingo elektronikoa barne.
- Txartelak.
- Ausazko makinak
- Euskal Autonomia Erkidegoko jokoen katalogoan sartuta dagoen beste edozein joko mota.

Subjektu pasiboa

Subjektu pasiboak izango dira administrazioaren baimena jaso duten pertsona fisikoak, juridikoak edo erakundeak. Halakorik ez denean, subjektu pasiboak izango dira joko jarduerak egitea edo antolatzea jardueratzat dituzten pertsona fisikoak, juridikoak edo entitateak.

Erantzuleak

Erantzule solidarioak izango dira jokoak egiten diren instalazio edo lokaletan joko jardueraz bestelako jarduera ekonomikoa burutzen duten pertsona fisikoak, juridikoak edo entitateak.

Joko moten berezitasunak

Ondoren, joko mota bakoitzean kontuan izan behar diren berezitasunak azalduko ditugu; hots, gorago azaldu ditugun xedapen komunetatik bereizten direnak.

A. Joko makinak

«B» eta «C» motako makinak baina ez daude lotuta jokoaren gaineko zergari.

Subjektu pasiboa

Gorago azaldu denez, subjektu pasiboa baimen administratiboa edo ustiatzeko baimena jaso duen pertsona fisikoa, juridikoa edo erakundea da. Kasu honetan makinen enpresa titularra da eta ez makina kokatuta dagoen ostalaritzako establezimenduaren jabea. Horrela ba, nahiz eta makinen titularra den enpresak zerga ordaintzeagatiko kantitate bat kentzen duen makinaren irabazitik, ostalaritzako lokalaren jabea zergaren ordainketan erantzule solidarioa da.

Zerga oinarria

Ustiatzen diren «B» edo «C» motako makina edo aparailu automatikoen kopuruak osatzen du zerga oinarria.

Karga tasa

Urtean, makina edo aparailu bakoitzeko kuota finko bat eska daiteke.

Kuota hori aldatu egiten da «B» edo «C» motako makinen arabera eta parte har dezaketen jokalarien arabera.

Foru errekargua

6/1992 Legeak % 12ko errekargua ezartzen du, subjektu pasiboak ordaindu behar duen urteko kuota finkoaren gainean.

Sortzapena

Ustiaketa baimendutakoan eta baimen hori eman ondorengo urteetan, zerga urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean ordainduko da. Makina bat mota eta baldintza bereko beste batekin ordezkatuz gero, aldi berean egiten bada, ez da beste kuotarik ordaindu beharko.

B. Bingo jokoa

Zerga oinarria

Jokalariek kartoiak erosteagatik ordaindutakoaren baturak osatuko du zerga oinarria, kenkaririk gabe. Bingo elektronikoan, zerga oinarria hau izango da: jokatutako zenbatekoaren eta saritarako jarritako kopuruaren arteko aldea, jokoa burutzen den areto edo lokal bakoitzari egozgarri zaiona.

Karga tasa

Zerga tasa hirukoitza da.

• Alde batetik, % 18,4ko zerga tasa zaio aplikagarri 2011tik aurrera. Karga horrek izaera orokorra du arauan eta goiko atalean adierazitako zerga oinarriaren gainean egiten da. Bingo elektronikoaren tasa % 25 da.

Bestalde, 5/2010 Legeak, abenduaren 23koak, % 3,6ko foru errekargua ezartzen du kartoien balio izendatuaren gainean. Ondorio horietarako, kartoi bakoitza jokatzen duen pertsonak ordaintzen duen kopurua da kartoien balio izendatua.

• Azkenik, bingoko kartoiei aplikatu beharreko tasari erreferentzia egiten dioten dekretuek ezartzen dute kartoi bakoitzeko 0,006784 euroko zerga tasa aplikatu behar dela. Zenbateko hori bingoko kartoi bakoitzaren kostuaren arabera ezarriko da, balio izendatua edozein dela ere.

C. Txartelak

Zerga oinarria

Zerga oinarria jokalari bakoitzak txartelak erostearren ordaindu duen guztiaren baturak osatuko du, inolako kenkaririk gabe.

Txartelen bidezko joko bat antolatu edo egiten bada eta baimen administratiborik ez badu, saldutako txartel guztien prezioaren batura izango da zerga oinarria.

Karga tasa

Txartelen bidezko jokoaren zerga tasa % 15 izango da.

Sortzapena

Txartelen kasuan, sortzapena baimena ematean sortuko da eta, jokoa antolatzean edo egitean.

D. Kasinoak

Zerga oinarria

Zerga oinarria kasinoetan jokotik datozen sarrera gordinek osatuko dute. Eta sarrera gordintzat hau hartuko da: jokotik jasotako sarreren zenbateko guztia ken jokalariei euren sari edo irabaziengatik emandako zenbatekoak. Sarreren zenbaketatik kanpo geratzen dira jokorako aretoetan sartzeagatik ordaintzen den kopurua.

Karga tasa

Kasinoko jokoetan ondoren ageri den urteko tarifa aplikatuko da.

Bizkaia:

0-3 milioi bitartean, % 20.

3-10 milioi bitartean, % 33.

10 milioi baino gehiago, % 40.

Gipuzkoa:

0-2 milioi bitartean, % 20.

2 milioi baino gehiago, % 33.

Tarifan ezarritako tarteak independenteak dira. Hortaz, zerga oinarriaren zati bakoitzari tarte bakoitzerako ezarritakoa aplikatuko zaio.

3.4.4. Jokoak baimentzeagatiko tasa

Jokoak baimentzeagatiko tasa

Irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuak onartutako EAEko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko testu bateginaren V. kapituluan ezartzen da (100.-103. artikuluetan) jokoak baimentzeagatiko tasa (V. eranskina).

Hainbat zerbitzuk osatzen dute tasa horren zerga egitatea. Laburtuta, hauek nabarmenduko ditugu:

- Jokorako materialen homologaziorako saio teknikoak.
- Erregistroetan izena ematea.
- Agiri profesionalak ematea eta berritzea.
- Baimen administratiboak.
- Arauz eskatzen diren liburuak izapidetzea eta dokumentuak konpultsatzea.
- Instalatzeko baimenak eskatzea.
- Peritu txostenak edo txosten teknikoak egitea jokoaren arloko prozedura batean.

Zerga egitatea osatzen duten zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak dira tasaren subjektu pasiboak.

Zerga egitatea osatzen duten zerbitzuak emateko momentuan sortuko da tasa. Hala ere, eskabidea egiten den mementuan eskatu ahal izango da ordainketa.

Tasaren kuota kalkulatzeko aplikatzen den tarifan, zerga egitate bakoitzerako zenbat ordaindu behar den zehazten da.

103. artikuluan adierazten dira tasari dagozkion kuotak. Jarraian ageri dira:

103. artikulua. Kuota:

1. Tasa tarifa (eurotan) honen arabera eskatuko da tasa:

1- Jokorako materiala homologatzeko saio tekniko bakoitzeko.
- 1.1. Bingo eta kasinoetako jokorako materiala: 348,57
- 1.2. Joko makinak edo joko makinetarako programak: 45,32
- 1.3. Bingo jokorako sistema informatikoak: 348,57
- 1.4. Joko makinak interkonektatzeko sistemak; makina bakoitzeko: 104,57
- 1.5. Joko sistema edo materialen beste homologazio batzuetarako: 313,73

2. Modeloen erregistroan izena ematea
- 2.1. “AR” motako edo jolas makinak, makina laguntzaileak eta beste batzuk. 69,72
- 2.2. “B”motako makinak edo jolaseko makina saridunak: 104,57
- 2.3. “C” motako makinak edo ausazkoak: 139,41
- 2.4. Unitate zentrala duen joko sistema: 491,87

3. Joko enpresen erregistroetan izena ematea
- 3.1. Enpresa operadoreak, fabrikatzaileak, banatzaileak eta aretoetakoak: 174,30
- 3.2. Joko kasinoetako enpresak: 522,87
- 3.3. Bingo jokoko, txartelen ustiapeneko, apustuen ustiapeneko eta joko enpresak: 348,57
- 3.4. Izen ematea berritzea, ebazpena sortzen badu: Izena emateko tarifaren % 50

4. Agiri profesionalak luzatzea
- 4.1. Joko kasinoetakoak: 27,89
- 4.2. Bingo aretoetakoak, apustuen analistentzakoak eta beste jarduera batzuk.

5. Baimenak:
- 5.1. Joko kasinoak: 1742,85
- 5.2. Bingo aretoak: 871,44
- 5.3. Joko aretoak, apustuetarako lokalak eta jokoen erroldan sartuta dauden jokoetarako beste areto batzuk: 418,28
- 5.4. Zozketak eta tonbolak: 118,17
- 5.5. “C” edo ausazko makinak ustiatzeko baimenak: 55,14
- 5.6. Beste joko makina batzuk ustiatzeko baimenak: 34,86
- 5.7. Kasino, bingo eta beste joko enpresetako publizitatea: 69,72
- 5.8. Bingo pilatu interkonektatua: 69,72
- 5.9. Akzioen transmisioa joko enpresetan. 69,72
- 5.10. Joko lokalak instalatzeko eta funtzionatzeko baimenen transmisioa: 139,41
- 5.11. Edukiera aldaketak joko aretoetan: 69,72
- 5.12. Kasinoetako jokoen txapelketak: 160,72

6. Baimenak berritzea edo aldatzea
- 6.1. Joko kasinoen baimenak berritzea edo aldatzea: 592,57
- 6.2. Bingo aretoen baimenak aldatzea: 278,84

6.3. Jolas eta joko aretoen baimenak aldatzea: 139,41
6.4. Apustu lokalen baimenak aldatzea: 139,41

7. Ebazpena eskatzen duten beste baimen batzuk

8. Joko makinei buruzko beste izapidetze batzuk
8.1. “AR”, “B” eta “C” motetako makinak ustiatzeko baimenak transmititzea. Makina bakoitzeko: 11,85
8.2. Ustiatzeko baimenen aldi baterako bajen altak. Baimen bakoitzeko: 11,85
8.3. Establezimendu aldaketa edo “AR”, “B” eta "C" motako makinen eta makina laguntzaileen aldaketa: Makina bakoitzeko: 11,85
8.4. Instalatzeko baimena edo kopia: 17,44
8.5. Ustiatzeko baimenaren kopia: 34,86

9. Liburuen diligentzia. 100 orriko edo frakzioko
9.1. Liburuen diligentzia. 100 orriko edo frakzioko: 17,44
9.2. Dokumentuak konpultsatzea. Lehenengo 10 orriak: 3,49
Gainerakoa, 0,36 euro konpultsatutako orri bakoitzeko.

10. Instalatzeko baimena
10.1. Instalatzeko baimenaren inprimakia: 0,37

11. Adituen eta teknikarien txostena egitea, Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak peritu txostenak edo txosten teknikoak egitea jokoaren arloko prozedura batean: 45,32

2. Sailak tasaren izapidetze telematikoa egiteko baimena ematen duenetan, % 20ko beherapena egingo da, tarifa honetan ezarrita dagoen zenbatekotik.

B. Jokoaren sektoreko joerak eta jardunbide egokiak

1. Joera ekonomikoak eta enpresenak

1.1 Sarrera

Sektorearen analisi ekonomikoa egin ondoren, atal honetan etorkizunari begira zer joera eta jardunbide egoki ikusten diren azalduko dugu. Horretarako, Europan eta munduan zer joera diren nagusi erkatu da hainbat arlo kontuan hartuta: online jokoa, joko mota berriak, negozio egiturak eta joko arduratsuaren sustapena.

Online jokoaren analisiak bi iturri nagusi ditu: PwCren "Online betting and gaming regulation 2014" txostena eta European Betting and Gaming Association erakundearen informazioa.

Beste arloetako joeren analisirako, hainbat txosten sektorial erabili dira: erakundeenak (Europako Batzordea, Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusia, Gambling Comission, European Gaming and Amusement Federation), elkarteenak (FEJAR, FACOMARE, COFAR, Jdigital) eta sektoreko operadore nagusienak; baita Euskadiko jokoaren sektoreko hainbat eragileri (Egasa, Euskadiko Bingo Elkartuak eta Hipódromos y Apuestas Hípicas de Euskadi S.A.) egindako elkarrizketetan lortutako informazioa ere.

1.2 Jokoaren kopuruak Europan

Sektoreko eskariak gorakada izan zuen 90eko hamarkadan eta hazkunde horrek 2008ra arte iraun zuen; hau da, atzeraldi ekonomikoa hazi zen arte. Teknologia berrien eta online jokoaren etorreraren ondorioz, aldiz, susperraldiaren zantzuak nabari dira sektorearen esparru globalean. Haatik, joera hori modu doian aztertzeko, *online* eta *offline* modalitateak bereizi beharra dago; izan ere, nahiz eta lehena hazten ari den, bigarrena oraindik ari da jasaten atzeraldiaren ondorioak.

Offline edo aurrez aurreko modalitatea

Hona hemen aurrez aurreko jokoaren bilakabidean ustez eragina izan duten faktore nagusiak:

- **Finantza krisia.** Nahiz eta jokalarien kopurua ez den gutxitu, herritarren erosteko ahalmenaren murrizketak batez beste jokatzen den diru kopuruaren jaitsiera ekarri du.
- **Presio fiskala.** Handitu egin da eta marjinak murriztu ditu. Izan ere, zergen igoera offline jokoan handia izan da, online jokoaren edo beste sektore batzuen aldean; ondorioz, operadoreek sariak gutxitu behar izan dituzte eta eskaintza ez da hain erakargarria jendearentzat.
- **Gizartearen jokoari buruzko iritzia** txarragoa da azken urteotan.
- **Tabakoaren aurkako legea** ezarri da herrialde gehienetan eta kaltea ekarri dio sektoreari.

Online modalitatea

Herrialde askotan arautu da modalitate berri hau eta horrek, teknologia berrien aurrerabideari lotuta, bultzada eman dio sektoreari. Hazkundea, ordea, ez da handia, sektorea berria baita. Hauek dira bultzada ekarri duten faktoreak:

- **Teknologia berrien aurrerakuntza.** Horri esker, operadoreek hainbat gailuren bidez (mugikorra, tableta, TB) eskain ditzakete zerbitzuak eta modu pertsonalizatuan.
- **Zerga karga txikiagoa** du aurrez aurreko jokoak baino.
- **Publizitaterako murrizketa gutxiago.**
- Merkatuaren aldaketetara **moldatzeko erraztasuna.**
- **Jende gehiagorengana iristeko erraztasuna.**

Grafikoan ageri denez, bi joera edo epe bereizi behar dira: 2008tik 2010era bitartean beherakada gertatu zen, krisiak eraginda; 2011tik aurrera, berriz, hazkundea, hainbat herrialdetan egin den arauketak eraginda. 2008-2011 urteetan, sektoreak behera egin zuen eta -% 1,82 izan zen urteko hazkunde tasa konposatua. 2011-2012 urteetan, hainbat herrialdetako arauketaren ondorioz, sektoreak bultzada izan zuen eta urteko hazkunde tasa konposatua % 2,6ra igo zen.

-Jokoaren sektorearen balioa 2008-2012 epean, bilioi eurokotan.



Iturria: Marketline Industty Profile, Casinos & Gaming in Europe. 2013ko ekaina

Europan zer joko modalitatek duten eskari handiena aztertu ondoren, azpimarratu behar da loteriak direla eskari handiena dutenak, Euskadin eta Estatuan bezala.

-Joko kategoriaren araberako banaketa 2012an



Iturria: Marketline Industty Profile, Casinos & Gaming in Europe. 2013ko ekaina

Beheko taulan ikusten denez, Europan modalitate gehienak daude onartuta. Kirol apustuei dagokienez, Alemanian baino ez daude debekatuta.

Bestalde, herrialde gehienek arautu zuten online modalitatea 2011n eta orduan egin ez zutenak orain ari dira.

-Europako joko eskaintza eta online sektorearen arauketa-

M.Arrazola/ej-gv

	Kasinoak	Loteria	B makinak	Apustuak	Bingoa	Online arautua
Alemania	Bai	Bai	Bai (kasinoetan)	Ez	Bai (irabazi asmorik gabeko erakundeetan)	Bai
Austria	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai	Bai
Belgika	Bai	Bai	Bai (kasinoetan)	Bai	Bai	Bai
Bulgaria	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Zipre	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Kroazia	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Danimarka	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bidean
Eslobakia	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Eslovenia	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Espainia	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Estonia	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai (irabazi asmorik gabeko erakundeetan)	Bai
Finlandia	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Frantzia	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Grezia	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bidean
Hungaria	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Irlanda	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Italia	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Letonia	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Lituania	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bidean
Luxemburgo	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai	Bai
Malta	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Herbehereak	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai (irabazi asmorik gabeko erakundeetan)	Bidean
Polonia	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Portugal	Bai	Bai	Bai (kasinoetan)	Bai	Bai	Bidean
Erresuma Batu	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Txekiar Errepu	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Errumania	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Suedia	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bidean

1.3 Europako joko arautzaileak

Hainbat eratako egiturak daude sektorea arautzeko eta gobernatzeko: arautzaile independente bat, ministerio bat, berariazko sail bat, etab.

Are gehiago, organismo arautzailea ministerio baten barruan dagoen herrialdeetan ere beti ez dago ministerio berdinean sartuta. Adibidez:

- Barne Arazoetako Ministerioan: Alemania, Finlandia, Frantzia...
- Justizia Ministerioan/Sailean: Irlanda, Holanda, Suitza...
- Finantza-Ekonomia Ministerioan: Austria, Belgika, Hungaria, Eslovenia...
- Etab.

  Iturria: Gaming Regulators European Forum

Bestalde, nabarmendu beharra dago bi ereduek dituztela abantailak, bai jokoa arautzeko organo independentea edukitzeak, bai ministerio baten ardurapean egoteak.

Lehenengo kasuan, independentzia handiagoa dago eta, hortaz, zailagoa da gobernuak eta dirua biltzeko helburuak arautzailearengan eragina izatea. Hortaz, egitura horrekin barruko interes gatazkak ekiditen dira eta politikariek ez dute erantzukizun zuzenik arauketa kontuetan.

Bigarren kasuan, berriz, ministerioek malguago eta azkarrago joka dezakete gizarteko edo politikako eskari eta gertakariei erantzuteko.

Europar Batasuneko estatu asko ari dira erreformak egiten araudian,baina Europako lege, gizarte eta teknologia kontuek eragotzi egiten diete estatuei prozesu hori nork bere kasa egitea.

Horregatik, Europako Batzordeak zeregin hauek ditu bere gain:

- estatuek Europako araudia bete dezaten begiratzea
- estatuetako administrazioen arteko lankidetza hobetzea
- herritarrak babestea (adingabeak eta ahulenak bereziki)
- iruzurra eta kapital zuritzea prebenitzea
- kiroletan zintzotasuna zaintzea eta iruzurrak saihestea

1.4 Kasinoak eta turismoa erakartzea

Kasinoen azpisektorean joera argia ageri da mundu osoan: aisiagune bihurtzekoa.

Gaur egun, kasinoen sektorea hazten ari da mundu mailan, Asiako emaitzei esker; izan ere, bertako gobernuak, ekonomia sustatzeko asmoz, ahalegin handia ari dira egiten turismoa erakartzeko kasinoen konplexu turistikoak eraikiz, hala nola Singapurrekoak edo Macaokoa, Las Vegas baino handiagoak. Asiako beste herrialde batzuetan ere badira halako proiektuak: Japonian, Filipinetan, Errusian, Hego Korean, Sri Lankan, etab. Horrenbestez, estimatzen da 2017rako kasinoen merkatu globalaren % 42,5 kontinente horretan egongo dela.

Europan ez dago halako hazkunderik: azken urteetan behera egin dute sektoreko diru sarrerek eta egoera horretatik irteteko aisiaguneen eredua hartu beharko omen da.

Joera hori ikusita, enpresa handiak inbertitzeko aukera berrien bila ari dira mundu osoan, leku turistikoetan konplexu turistiko handiak sortzeko asmoz. Hartara, jokoari eskainitako kasino handiaren kontzeptua *megaresort*aren kontzeptu bilakatzen ari da, joko jarduerak, ostatuak, biltzarretarako tokia, ikuskizunak, golf zelaiak eta merkataritzaguneak bilduz.

Horren adibide dugu Egasa taldeak mundu mailako proiektuetan darabilen estrategia. Maila txikiagoan, ildo horretakoa da Gran Casino Bilbaok 2014. urtea ezkero hartutako bidea.

Estatuan ere, era horretako egitasmo batzuk izan dira azken urteetan: konplexu turistiko handiak egitekoak, Las Vegasen antzekoak, hotel, kasino eta bestelako aisiaguneekin. Dena dela, halako egitasmoek inbertsio handiak behar dituzte eta, Espainiako Estatuan 2008an hasitako krisi ekonomikoaren ondorioz, geldituta daude. Horietako bat da El Reino de Don Quijote aisiagunea, 2005ean sortutako egitasmoa, zeinak Ciudad Realen, 6000 m²-ko eremu batean, kasinoa, hotelak, auditoriuma, biltzar zentroa eta spa batu behar zituen. Beste horrenbeste gertatu zen Aragoiko Erkidegoan. Antzeko gune bat, baina handiagoa, eraiki nahi izan zuen International Leisure Development (ILD) taldeak Monegroseko basamortuan, baina, azkenean, asmoa ezerezean geratu zen. Geroago, 2012an, Sheldon Adelson enpresagizon estatubatuar aberatsak, Las Vegas Sand-eko exekutiboak, halako egitasmo bati ekin zion Madrilen. Eurovegas izenez, Europako aisiako gunerik handiena eraiki nahi izan zuen Madrilgo Erkidegoan, baina azkenean ez zen aurrera atera, Gobernuaren eta enpresaren arteko desadostasunak zirela eta.

Ageri denez, nahiz eta inbertsiogileek oztopoak topatzen dituzten, eredu horren alde egiten dute eta, hortaz, esan liteke kasinoen negozio eredua aldatzeko joera sendoa dela. Ildo horretan, gaur egun bada Bartzelonan proiektu bat, BCN World izenekoa, turismo eta aisiako makrokonplexu bat sortzekoa 825 hektareako eremu batean. 2015eko uztailaren 30ean jaso behar omen du onarpena.

Europa mailan ere ikusten da joera bera. Gaur egun antzeko proiektuak daude; esaterako, Zipren , kasinoen konplexua egiteko asmoa dago uhartearen hegoaldean.
Bestalde, bada beste joera bat kasinoen azpisektorean: online kasinoak.

Nabarmena da modalitate berri honen hazkundea merkatuan; izan ere, mugaz gaindikoa eta orokorra da. 2011. urtearen amaieran agertu zen Estatuko lehenengo legezko online kasinoa, Madrilgo Gran Casinoren eskutik.

Online modalitatearen eskaria gero eta handiagoa izanik, kasinoen aurrez aurreko eskaintza hobetzeko ahaleginak ausazko jokoen online merkatuaren hazkundeari aurre egitera bideratu dira, haietatik bereizi ahal izateko. Ildo horretan, establezimendu fisikoen planteamendua bikoitza da: batetik, eskaintza hobetzea aisiako aukerak areagotuz eta, bestetik, online merkatuaren hazkundea aprobetxatzea eta, horretarako, bertan sartzea eta dibertsifikatzea, hots, online eta offline bideak eskaintzea elkarren osagarri. Hartara, bi

modalitateen arteko sinergiak sor daitezke eta gerta liteke online jokalariak kasino fisikoetara erakarriak izatea eta alderantziz.

1.5 Bingoaren modalitate berriak

Ohiko bingo jokalarien profila adineko jendearena izan da.

Bezero berriak eta, bereziki, bezero gazteak erakartzea da bingoen egungo erronka. Publizitatean dauden murrizketak, ordea, eragozpen handia dira helburu hori lortzeko.

Gauzak horrela, bingoaren azpisektorean joera bat antzematen da: eskaintza dibertsifikatzea eta modernizatzea, bezeria gazteagoa erakartzeko. Ildo horretan, bingo areto gehienek bingo elektronikoa eskaintzen dute ohiko bingoaren kaltetan, eskaintza jende gazteari hurbiltzeko ahaleginean, gazteak ohituta baitaude teknologia berria erabiltzera.

Gaur egun, Euskadiko eta Estatuko areto gehienak ari dira eskaintza bingo elektronikora moldatzen eta modalitate berria kuota irabazten ari zaio betikoari eta azpisektorearen motorra bihurtu da azken urteetan. Izan ere, teknologia berriak sartu ditu jokoetan eta abantailak eskaintzen ditu, hala nola bonuak eta sustapenak, bingo tradizionaleko sariez gain, pribatutasun handiagoa eta jokatzeko erraztasuna.

Bestalde, bingo elektronikoak aretoak interkonektatzeko aukera ematen du; hartara, botea handiagoa da eta eskaintza erakargarriagoa. Estatuko eta Euskadiko areto gehienek aukera horren alde egin dute eta emaitzak oso onak dira.

Horrez gain, bingo modalitate berri bi agertu dira berriki: bingo dinamikoa eta bingo mistoa. Bingo dinamikoa elektronikoaren aldaera da eta aukera bikoitza ematen du: tresna elektronikoetan jokatzekoa eta kartoiak inprimatzekoa. Bingo mistoan, berriz, jokalariek nahieran konbinatu dezakete kartoi fisikoekin edo kartoi birtualekin jokatzea. Euskadin E-plus bingo modalitatea arautu da duela gutxi.

Online bingoari dagokionez, hazten ari da ausazko online jokoen sektorearekin bat. Oraingo joera da zerbitzu horiek gailu eramangarrien bidez eskaintzea, hala nola smartphone eta tableten bidez. Live Bingo Network enpresa britainiarra ari da bidea urratzen. Erresuma Batuko bingo operadore nagusi horrek 15 webgune eta 12 bingo areto ditu sarean eta bere joko eskaintza guztia dauka, 50 joko baino gehiago alegia, mugikorretarako eta gailu eramangarrietarako prestaturik.

Azkenik, Erresuma Batuko zenbait enpresak bezero gazteak bingora erakartzeko aurrera eraman dituzten ekimenak aipatu behar ditugu. “Gaueko bingoa”ren kontzeptu berria sortu da. Modalitate berri horretan, gazteek sarrera ordaintzen dute aretoan sartzeko eta bingoan jokatzen dute jaten, edaten eta rock edo dj kontzertua gozatzen duten bitartean. Enpresa horrek hainbat herrialdetan antolatzen ditu era horretako ekimenak, Espainian besteak beste.

1.6 Makinen azpisektoreko berrikuntzak

Ausazko makinen azpisektorea izan da tradizioz Euskadiko jokalarien artean eskaririk handiena eduki duena; gaur egun, ordea, gainbeheran dago. Beheranzko joera horretan eragina izan duten faktoreen artean, 2011n Erretzea debekatzen duen Legea indarrean sartzea aipatu behar dugu, kontuan izanik makinak zer establezimendutan egoten diren (taberna, kasino, bingo areto eta joko aretoetan); baita establezimenduak eurak ixtea ere.

Gainera, halako makinek eskaintzen dituzten jokoetan ez da berrikuntza handirik egon. Azpisektorean ez da espero eskaintza berririk etorkizun hurbilean. Gaur egun merkatuan aurkitzen diren berrikuntza bakarrak makinaren egiturari dagozkionak dira; besteak beste, erruletak, argiak eta C makinetako jesarlekuen ergonomia modernizatu dira alde teknologikotik.

Estatuan makinetako jokoak ez eguneratzean autonomia sistemaren faktore batek ere eragin du: homologazioek.

Orain arte, autonomia erkidegoek izan duten homologatu beharra eragozpena izan da; izan ere, fabrikatzaileentzat kostu handia du autonomia erkidego bakoitzean sartzeko ahalegin komertziala egiteak bertan dagoen merkaturako. Hori mesedegarri gertatu zaie Estatuko fabrikatzaile apurrei.

Haatik, homologazio kontua bideratu ahala, multinazional handiak hasi dira sartzen, merkatu horretarako teknologia dutenak, alegia.

Interkonexioak dira azken berrikuntza eta joera. Esaterako, Recreativos Franco-k, sektoreko teknologiaren hornitzaile nagusienetakoak, ostalaritzako ausazko makinen interkonexioa ekarri zuen 2013an. Berrikuntza horri esker, batetik, eskaintza erakargarriagoa eskain dakioke kontsumitzaileari eta, bestetik, bide ireki eta moldagarria operadoreari, hainbat produkturekin eta ordainbide malguekin.

Bestalde, azken berrikuntza online kanala da, berriki arautu baitira online ausazko makinak. Jokoaren Espainiako Enpresarien Konfederazioak (COFAR) mesfidantzazko harrera egin dio kanal berri horri, joko tradizionalarentzako mehatxua delakoan.

Estatuko mugetatik harago begiratuta, Erresuma Batuko joerak aztertu behar dira, sektore honetan erreferentziazko herrialdea denez gero. Bada, Erresuma Batua online edo lineako ausazko makinak bultzatzeko neurriak hartzen ari da. Neurri horietako bat izan da jokoaren zerga erregimenean aldaketa sakonak egitea: winaren edo gastu errealaren % 20ko tasa ezarri die joko eta ostalaritza establezimenduetan dauden ausazko makina guztiei. Jokoaren sarrera gordinen gaineko zerga proportzional berri horrek % 21eko BEZa ordezkatuko du joko gehienetan, baita jokorako lizentziagatiko zergak ere, eta aldakorra izango da, marjinaren araberakoa, alegia. Gainera, beste neurri batzuk ari dira hartzen, segmentuen arteko zerga egoera orekatuagoa lortzeko eta, hartara, segmentu guztiak antzeko baldintzetan lehiatzeko.

Bestalde, joko arduratsua bultzatzeko neurriak ere ari dira hartzen Erresuma Batuan. The Association of British Bookmakers-ABB konpainiak (makinen banaketan aitzindaria) apustuaren zenbatekoa eta jokatzeko denbora mugatzeko sistemak ezarriko ditu makinetan. Horrez gain, bada asmoa joko areto eta ostalaritza establezimenduetako enplegatuak prestatzeko, arazoak eduki ditzaketen jokalariei aholkua eman diezaieten. Hartara, joko arduratsua sustatu nahi da, baita azpisektorearen irudia hobetu ere.

Hortaz, Erresuma Batua da makinen azpisektorea (azken urteetan gainbehera etorri dena) bultzatzeko eredua, betiere jokalarien on beharrez.

1.7 Loteria

Gaur egun, loteriak dira sektorearen beherakadaren barruan jaitsierarik txikiena izan dutenak. Gauzak horrela, Loteria Nazionalak garatzeko aukera eta bide berrien bila ari dira mundu zabalean, beren egoera hobetzeko asmoz.

Azken urteetan, munduko hainbat herrialdetan loteria nazionalak pribatizatzeko joera egon da (adibidez, Irlandan edo AEBko Indianan), ekonomia eta finantza krisiak ekarri duen likidezia eskasiak eraginda. Estatuan, 2011n, Gobernuak Loteria Nazionala pribatizatzeko prozesuari ekin zion, baina, azkenean, ez zen burutu, jokotik datorren diru bilketak eta jokoaren gaineko zergak Sozietatearen balioa eskastu dutelako.

Beste joera global bat da sektorea merkatu digitalera eta smartphoneetara hurbiltzea, lau abantaila kontuan hartuta:

- Smartphoneen bidezko erosketen gorakada aprobetxatu liteke, produktuak gailu horien bidez eskaintzeko.
- Sare sozialak erabil litezke publizitatea egiteko. 2013an loterien % 70 bide horiek erabiltzen hasita zeuden.
- Produktua berritu liteke joko lehiakorragoak eskaintzeko; izan ere, sektore honek eskaintzen dituen produktuak ez dira aldatu azken urteetan herrialde gehienetan.

1.8 Online jokoaren booma

IKTen eta bereziki Interneten erabilera hainbeste hedatzeak goitik behera aldatu du jokoaren ikuskera tradizionala Euskadin, Estatuan eta beste herrialde batzuetan.

Azken urteetan online jokoak izan duen hedapena sektorearen errealitate berria definitzen ari da eta hala ikusten da jokoaren enpresa eta elkarte guztietan. Online jokoak abantailak ekar diezazkieke offline operadoreei; izan ere, jokoan online hasten diren pertsonak modu tradizionalean ere jokatzen hasi ohi dira, bereziki pokerrean, Erresuma Batuko kasino batzuetan egiaztatu denez.

Modalitate horren egungo egituran sartuz gero, ikusten da online jokoen hainbat aldaera daudela. Oro har, sei diziplina bereiz ditzakegu: pokerra, kasinoko jokoak, zaldi lasterketetako apustuak, kirol apustuak, online bingoa eta online loteriak.

Online jokoen munduko merkatuan lege barruko eta legez kanpoko hainbat jarduera daude. Zehaztuta, lau multzotan sailka genitzake online jarduerak:

1. Lizentzia duten operadoreen bidezko online jokoa.
2. Lizentziarik ez duten operadoreen bidezko online jokoa.
3. Beren produktuak bide tradizionaletik ez ezik, online ere komertzializatzen hasi diren operadoreek eskaintzen dituzten jokoak. LAE; ONCE, eta beste enpresa batzuk, hala nola Codere.
4. Joko sozialak, ausazkotzat hartzen ez direnak benetako dirurik jokatzen ez delako, baina diru birtuala darabiltenak. Modalitate hori ez dago araututa oraindik.

Gauzak horrela, online jokoak munduan 26,6 bilioi euro fakturatu zituen 2013an. Europako merkatua da munduko online industriarik handiena, guztizko gastu errealaren % 47,7 hartzen baitu, Asiaren eta AEBren aurretik, zeinek % 29 eta % 2 hartzen baitute hurrenez hurren. Europaren barruan, kirol apustuetan dago eskaririk handiena, merkatu kuotaren %29 hain zuzen ere.

Ordaintzeko moduak

ORDAINTZEKO MODUAK		
Kreditu edo debitu txartelak	Online jokorako kontua finantzatzeko modurik azkar eta errazenetakoa. Txartela jaulkitzen duen enpresak berehala prozesatzen ditu transakzioak eta, behin onartuta, dirua jokalariaren kontuan sartzen da.	VISA, MasterCard, VISA Electron, Maestro, entropay
Diru poltsa elektronikoak	Sarean ordaintzeko modurik seguruenetakoa. Erabiltzaileak bertan sar dezake dirua eta diru transakzioak egin ditzake sarean. Abantaila nagusiak: transakzio arinak eta komisio txikiak.	PayPal, Skrill, Ticket Premium, NETELLER, clickandbuy, WebMoney
Aurreordainketako txartela	Aurreordainketako kupoien moduan funtzionatzen du eta sarean ordainketak egiteko balio du. Ez da beharrezkoa banku kontu baten edo kreditu txartel baten datuak ematea; beraz, Interneten ordaintzeko modurik seguruena da.	paysafecard, U kash
Transferentzia	Operadoreek aukera ematen diete jokalariei banku transferentzien bidez online kontuetan dirua sartzeko. Gaur egun, transferentziak estatuen barrukoak zein nazioartekoak izan daitezke, online modalitatea mugaz gaindikoa da eta. Jokalariaren kontura transferentzia elektronikoa egitea gero eta ohikoagoa da jokoan irabazitakoa kobratzeko.	Western Union, Bank Transfer
Banku igorpena	Banku igorpenak edo txekeak egokiak dira jokalariak irabaziak postaz jasotzeko, baina ordaintzeko biderik motelena da.	

Milaka enpresa daude Interneten ordainketa zerbitzuak ematen dituztenak eta horixe da online jokoaren alde positiboetako bat.

Diru poltsa elektronikoak eta aurreordainketako txartelak dira diru kopuru handiak mugitzen dituzten ohiko jokalariek gehien erabiltzen dituzten ordainbideak, operadore eta erabiltzaileen arteko

kobroen kudeaketa errazten dutelako. Aipa dezagun, bidenabar, zer desberdintasun dagoen diru poltsa elektronikoen eta aurreordainketako txartelen artean. Lehenek operadoreen kontuetatik dirua ateratzeko zein sartzeko balio dute; bigarrenak, ostera, erabiltzailearen kontuan dirua sartzeko baino ezin dira erabili.

Haatik, kreditu txartelen kasuan, behar ez den moduan erabiltzeko arriskua dago, dirua fisikoa ez denez erraza delako hura gastatzea jokalaria gastuaz jabetu gabe. Era horretan, arrisku handiagoa dago ludopatian erortzeko eta ordaindu ezinak gertatzeko, operadoreen kaltetan. Hori dela eta, 2010ean online jokoa arautu zuen UIEGA legea indarrean sartu zenean, Visa eta MasterCard txartelen bidez ordaintzea murrizten hasi ziren.

Ziurtasun eza arauetan eta gizartean

Gaur egun, azpisektore honetan ziurtasun eza dago lege kontuetan.

Dena dela, aurrekontuetan murrizketa handiak dituztenez, gobernuak konturatuta daude sarrera publikoak areagotzeko bide bat izan litekeela online jokoak legeztatzea lizentzia bidez eta horrela zergak biltzea. Agintariek, jakinik kontsumitzaileek legez kanpo ere jokatuko luketela online, uste dute hobe dela online jokoak arautzea eta zergapetzea modalitate hori inolako kontrolik gabe uztea baino.

Ildo horretan, mundu guztiko gobernuak ari dira online jokoak eta haien inguruko jarduerak legeztatzen eta baimentzen. Herrialde edo estatu bakoitza bere arauketa ari da ezartzen eta online jokoetarako lizentziak ematen.

Horren erakusgarri garbia dugu nola ugaritu den online jokoa araututa duten herrialdeen kopurua: 2010ean 8 herrialde ziren eta 2014an 16.

Hala ere, herrialde askotan kezka legal eta moralak daude jokoaren gainean oro har eta online jokoen gainean bereziki. Kezka horiekin batera, merkatuan finkatuta dauden operadoreen sen protekzionista eta presioa ere badira, eta horiei gehitu behar zaie atzerrian dauden eragileak arautzeko zailtasunak.

Jokalarien babesa eta adingabeen prebentzioa

Europar Batasunak, online jokoak hazkunde handia izan duela jakinik eta modalitate horren irisgarritasunaz jabeturik, estatu kideei gomendatu die kontsumitzaileak (eta adingabeak) babesteko eta komunikazio komertzial arduratsua bultzatzeko politikak egitea.

Gomendio horren helburua da jokoak entretenimendurako izaten segi dezan bermatzea, jokalariek joko inguru segurua izan dezaten ziurtatzea, kalte ekonomiko edo sozialak hartzeko arriskua saihestea eta adingabeak jokoan aritu ez daitezen prebentzio neurriak hartzea.

Europar Batasunak, gomendioen artean, zenbait eskakizun egiten dizkie online jokoaren operadoreei informazio kontuetan: konpainiarekin harremanetan jartzeko informazioa jartzea jokalariaren esku, klik bakar bat eginda joko arduratsuaren gaineko informazioa eskaintzea, jokoan aritzeko gutxieneko adinari buruzko informazioa, etab.).

Aldaketarako joerak

Joko modalitate honetan, besteen aldean, legez kanpoko jarduera asko daude eta haien bolumena neurtezina da. Egoerak ezin du horrela iraun eta halabeharrez aldaketak etorriko dira. Aurreko lerroaldeetan aipatu diren joerak kontuan izanik, online jokoa normalizatzeko lau joera antzematen dira:

1. Mugen arteko likidezia sustatzea: aipatu denez, gaur egun hasita dago online jokoa arautzen herrialde eta eskualdeetan. Merkatu nazional babestuak sortzea pokerra bezalako jokoetarako bideragarria izan liteke herrialde handietan. Baina herrialde txikietan gerta liteke hazkundeari eusteko adina jokalari ez egotea.
   Merkatuek gero eta presio handiagoa izango dute interkonektatzeko eta likidezia partekatzeko, behin herrialde txikiak online jokoak legeztatu eta lizentzia bidez baimenduz gero.

   Faktore hori kontuan hartuta, sarreren hazkundea eta zergen bilketa finkatzeko, likidezia fluxuak eta lurraldeen arteko mugaz gaindiko jokoak onartzeko joera nabari da.
   Europako Batzordea horretarako presioa egiten hasita dago: lege neurriak definitzen hasi da herritarrek Europar Batasuneko edozein lurraldetan kokatuta dauden mugaz gaindiko jokoetan aritzeko aukera izan dezaten.

Joera horren erakusgarri da Euro milioia, loterien kasuan.

2. Zerga maila errealistak jartzea: Gobernuak online joko zerbitzuak legeztatu eta lizentzia bidez baimentzeko prest egoteko, herritarrak babesteko asmoaz gain (joko arduratsua bultzatzeko politikak eginez), jarduera horretatik zerga bilketa garrantzitsua egiteko aukera ere badago.

   Dena dela, zergak biltzeko helburua merkatuaren hazkundearekin orekatu beharra dago. Horretarako, badirudi bideragarriagoa dela operadoreen irabazi gordinen gaineko zerga jartzea jokalariak zergapetzea baino.

   Frantziak ez dio bide horri jarraitu eta bertan ikus ditzakegu ondorioak: Frantziako zerga sistemak erabiltzaileen online apustuak zergapetzen ditu eta, ondorioz, sektorearen errentagarritasunak behera egin du nabarmen.

3. Arau bide desberdinak ezartzea online joko modalitatearen arabera: Merkatu desberdinetako online jokoen arauketa eta hazkundea modalitate bakoitzari ematen zaion ikuspegiaren arabera garatuko dira.

   AEBn bi eredu ari dira martxan jartzen:

   - online pokerrak baimena izango du estatuen artean aritzeko hurrengo urteetan
   - loteriek jarraituko dute beren erakargarritasuna zabaltzen bertako mugetatik harago.

4. Online jokoak sare sozialekin konbinatzea: Etorkizunean, sare sozialak online jokoen jarduera eta hazkundearen eragile handiak izango dira mundu guztian. Horren erakusgarri garbia dugu Second Life. Garai batean, errealitate birtualeko gune horretan hainbat eta hainbat kasino birtual, loteria joko eta bestelako apustu bildu ziren. Jokoetan Second Lifeko dirua erabiltzen zen eta benetako diruarekin alda zitekeen. Azkenean, 2007an, gune horrek apustu birtualak debekatu bazituen ere, zehapenak ekiditeko, esperientziak agerian utzi zuen online jokoak ederki konbina zitezkeela sare sozialekin.

1.9 Publizitatea jokoan

Kontuan izanik gizarteak nolako iritzia duen jokoaz eta administrazioen babesteko asmoa, publizitatea beti egon da joko arduratsua sustatzeko politikei lotuta. Europako joera kontrol hori egiten jarraitzekoa da, eta jokoa babesteko jarduerak ikuspegi arduratsutik egin daitezen ahalegintzekoa. Europar Batasuneko herrialde gehienek komunikazio komertzialetarako jokabide kodeak sortu dituzte, sektoreko enpresek legea bete dezaten ziurtatzeko.

Estatuan, 2012an sortu zen jokabide kodea, Jokoaren Antolaketarako Zuzendaritza Nagusiaren, Informazio Sozietatearen Edukien Zuzendariordetza Nagusiaren eta Komunikazio Komertzialaren Autoarauketarako Elkartearen arteko akordioa sinatu ondoren. Kode horren helburu nagusia da kontsumitzaileen babesa sustatzea, bereziki adingabeena eta beste pertsona eta talde ahulena, joko arduratsua bultzatzeko politiken esparruan. 69 erakunde lotu zitzaizkion Joko Jardueren Komunikazio Komertzialei buruzko Jokabide Kodeari, baina haietariko 4k joko operadore izateari utzi diote; beraz, 2013an 65 erakunde zeuden Kodeari atxikita.

Euskadin, azaroaren 8ko 4/1991 Legean ezarritakoaren arabera, Gobernu Kontseiluak arautuko du jokoaren publizitatea lokalen kanpoaldean eta komunikabideetan eta, gainera, lokalen barruan zer publizitate erregimen egongo den zehaztuko du eta behar diren arauak ezarriko ditu erabiltzaileek joko bakoitzaren arauak eta baldintzak ezagut ditzaten.

Lege hori garatzeko, joko modalitate bakoitza garatzeko araudietan publizitateari buruzko xedapenak daude. Guztietan ezartzen da Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzaren baimenaren beharra, baita publizitate kanpainak informatibo hutsak izan beharra eta jokora bultzatzeko mezuen debekua. Kasinoen araudian, esaterako, berariaz aipatzen da sustapenean argi adierazi behar dela jokoa debekatuta dagoela adingabeentzat eta joko arduragabeak ondorio kaltegarriak dakartzala.

Europa

Gaur egun, Europar Batasunean ez dago batasunik ausazko jokoen kontsumitzaileak babesteko arauetan. Hori dela eta, Europako Batzordea lanean

ari da, Europako Normalizazio Batzordearen bitartez, guztientzako ildo batzuk ezartzeko sektoreko komunikazio politiketan. Kontuan izanik Europako hainbat herrialdetan online jokoa arautzen ari dela, behar-beharrezkoa da arau esparru orokor bat edukitzea, operadoreek modu arautuan egin dezaten publizitatea herrialde guztietan. Horrekin lotuta, aipatu behar da Europar Batasuneko Auzitegiak argitu zuela estatuek ezin dutela beste estatu kideen publizitatea debekatu.

Arau esparru orokorra

Europako Batzordeak, 2014ko uztailean, gomendio multzo bat argitaratu zuen estatu kideentzat, sektoreko publizitatea arautzeari begira. Gomendioak hiru multzotan laburbil daitezke:

- Estatuek ardura hartu behar dute publizitatea egiten duen operadoreak gardentasunez egin dezan eta jokoaren arriskuen gainean ohartaraz dezan.
- Ordain ekonomikorik ez duten jokoek eta haien pareko ordain ekonomikodunek arau berberak eduki behar dituzte.
- Estatu kideek ardura hartu behar dute komunikazio komertzialek online jokoak duen arriskua kontuan izan dezaten.

Nazioartea

Nazioarteko ikuspegitik hiru joera handi daude: globalizazioa, digitalizazioa eta merkatuen liberalizazioa eta, horien eraginez, operadore monopolio handien komunikazio politikek mugak zeharkatu dituzte eta herrialde askotako publikoarengana iritsi dira. Goterburgeko Unibertsitateak eta Responsible Gambling Trust erakundeak elkarlanean egindako ikerketa batek ondorioztatu duenez, joera hori hedatuz joango da. Horrek erronka handiak dakartza sektoreko publizitatea arautzeko ez ezik, baita kudeatzeko eta kontrolatzeko ere.

Dena dela, aipatu beharrekoa da joko arazoen prebalentziak ez duela zertan lotuta egon ausazko jokoak komunikabideetan egotearekin.

Jokoak ekar ditzakeen arazoei buruzko 202 ikerlan bildu dituen metaikerketa batek erakutsi du beheranzko joera dagoela halako arazoen prebalentzian. Ikerketak adierazten duenez, joera hori AEBn, Kanadan eta Australian hasi zen 1997an eta munduko gainerako lekuetara zabaldu zen 2004tik 2008ra (Williams et al., 2012). Garai hartan munduko herrialde askotan publizitateak gora egin zuela kontuan hartuta, ondorioztatzen du komunikazio politikek ez dituztela areagotu arazo horiek.

1.10 Joko arduratsua

Joko arduratsua

Joko arduratsua hautaketa arrazional eta zentzudunarekin lotzen da; hau da, modu arduratsuan jokatzea zera da: jokalariak, bere egoera eta ezaugarriak kontuan hartuta, joko aukerak zentzuz hautatzea, jokoa arazo pertsonal, familiar edo sozioekonomikoa bihur ez dadin. Joko arduratsuaren kontzeptua organismo arautzaileek, joko operadoreek eta kontsumitzaileek eurek zehaztu behar dute elkar hartuta, joko arduratsua sustatzeko ekimen komun, koordinatu eta eraginkorrak eramateko aurrera.

Joko patologikoa

Batzuetan, pertsona batzuek ausazko jokoetan aritzeko arazoak dituzte. Arazo horiek era askotakoak izan daitezke, larriagoak edo ez hain larriak eta iraunkorrak edo aldi batekoak; baina arazo horiek direla eta, jokoa dibertimendu izatetik beharrizan izatera pasatzen da eta joko patologikoa

izatera irits daiteke. **Joko patologikoa** nahasmendu bat da: pertsonak jokoarekiko jokabidearen kontrola galtzen du eta horrek ondorio larriak dakarzkio berari eta bere inguruari.

Joera nagusiak

Europako eta estatuetako erakundeak ahalegin handia egiten ari dira joko arduratsua bultzatzeko. Munduan eta Europan diren jokoaren sektoreko batzordeek gogor lan egiten dute ludopatiari aurre egiteko eta aurrea hartzeko, Joko arduratsurako estrategiak ezarriz, ausazko jokoek eragin lezaketen kaltea ahalik eta gehien murrizteko. Horrez gain, ahalegin handiak egiten ari dira adingabeak babesteko.

Erresuma Batuan, jokoaren sektorean eta arauketan tradizio handia duen herrialdea izaki, Jokoaren Batzordeak (Gambling Comission) hiru ekintza ildo definitu ditu:

1. **Kontsumitzaileen ezaguera hobetu** jokoaz eta jokoak dituen arriskuez eta, horretarako, sektoreko publizitatea eta marketina egokitu eta kontsumitzailearengana modu garden eta arduratsuan irits dadin ziurtatu.

2. **Kontsumitzaileari jokoarekiko jokabidea kudeatzeko tresnak eskuratu** operadoreekin batera lan eginez.

3. **Funtsak banandu.** Jokalariek jokoaren gastuetarako eta sarietarako aparteko kontuak eduki ditzaten bultzatu, horrela autokontrol handiagoa izan dezaten eta behar baino diru gehiago horretan erabil ez dezaten.

Erresuma Batuak argi erakutsi du zer bideri jarraitu behar zaion joko arduratsua sustatzeko, sektoreko eragile guztiak biltzen dituzten estrategien bidez.

Bestalde, joko modalitate desberdinei erreparatuta, esan behar dugu azken urteetan ekimen berriak jarri direla martxan azpisektore batzuetan, hala nola ausazko makinetan; esaterako, jokatzeko denbora eta joka litezkeen diru kopuruak mugatu edo operadoreei makinetan informazioa itsasteko eskatu. Hori lehenengo pausoa izan daiteke aurrerago bingo eta joko aretoetatik kanpo dauden makinak kontrolatzeko, halakoetan ez baitago sartzeko kontrolik.

Kontsumitzailea informaturik egon dadin, online operadoreek estekak dituzte beren webguneetan, arazoak dituzten jokalariei laguntzeko elkarteetara edo erakunde publikoetara jotzeko, arazorik edukiz gero.

Jarraian, online sektorearen ikuspegitik helduko diogu joko arduratsuari. Izan ere, gobernuek modalitate horretan jarri dute begia, oso iristerraza delako bai adingabeentzat bai mendekotasuna duten pertsonentzat; beraz, zeregin asko dago arlo hori arautzeko.

Online joko arduratsua

Azken urteetan online jokoak izan duen gorakada ikusita, legeztatuta dagoen herrialdeetan marko juridikoa aztertzen eta moldatzen dabiltza, egoera berrira egokitzeko. Ahalegin horren barruan, kezka nagusietako bat da kontsumitzaileak babestea jende guztiarentzat hain eskura dagoen joko bide horretatik.

Europako Batzordeak, 2014ko uztailaren 14an, gomendio multzo bat argitaratu zuen estatu kideak gidatzeko. Bertan esaten zaie nolako neurriak hartu behar dituzten online jokoen erabiltzaileen babesa ziurtatzeko eta adingabeak jokoan has daitezen prebenitzeko. Hona hemen, adibide gisa, neurri horietako batzuk:

Europako Batzordearen gomendioak joko arduratsua dela eta:

- Enpresari buruzko datuak jartzea orri nagusian, harekin harremanetan jarri ahal izateko. Jokatzeko gutxieneko adina jartzea, bai eta jokoak ekar ditzakeen nahasmenduei buruzko informazioa eta laguntza ematen dituen erakunderen baten esteka ere.

- Gurasoen kontrolerako estekak jartzea, adingabeei sarbidea eragozteko.

- Erregistro prozesua jartzea, erabiltzaileek izen-abizenak eta adina eman ditzaten. Hortaz, estatu kideei gomendatzen zaie datu base eta erregistro nazionaletarako sarbidea erraztu dezaten.

- Ez uztea operadoreei erabiltzaileei maileguak eman diezazkieten eta sar dezaketen diru kopurua mugatzea.

- Publizitate eta babes jarduerak modu arduratsuan egitea.

Lehenago esan dugunez, herrialde batzuek aintzat hartu dituzte gomendio horiek beren legeak moldatzeko eta joera hori Europar Batasun osora hedatzea espero da.

Espainiako online jokoaren araudiak bi ezaugarri aipagarri ditu: (i) operadoreak joko arduratsuaren aldeko politika egitera behartzen ditu eta (ii) joko arduratsua sustatzeko neurri zehatzak jasotzen ditu (jokalarien nortasuna egiaztatu, autoesklusiorako sistemak, egunean/astean/hilean zenbat diru sartu mugatu, jokalariei maileguak ematea debekatu, etab.).

Bestalde, 2013ko otsailean, Joko Arduratsurako Aholku Batzordea sortu zen, jokoa arautu zuen maiatzaren 27ko 13/2011 Legeak bere zioen azalpenean xedatutakoa betez. Izan ere, lehentasunezko helburu hauek ezarri zituen: "ordena publikoa mantentzea, mendekotasunezko jokabideak prebenitzea, adingabeak babestea eta parte hartzaileen eskubideak zaintzea."

Joko Arduratsurako Aholku Batzordeak funtsezko helburu bat du: Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiari aholkua ematea joko arduratsua bultzatzeko estrategia definitu eta diseinatzeko orduan.

Joko Arduratsurako Aholku Batzordean sektoreko agente guztiak daude ordezkatuta: jokoaren industria, mendekotasun arazoak dituzten jokalarien elkarteak, ludopatiako adituak eta tratamenduko zentroak, eta autonomia erkidegoetako joko agintariak, Joko Politiken Kontseiluaren ordezkaritzaren bitartez.

Joko Politiken Kontseiluan Joko eta Ikuskizunen zuzendariak hartzen du parte, Madrilgo Autonomia Erkidegoko ordezkariarekin batera, autonomia erkidegoen izenean.

2. Araudi konparatua eta benchmarka

2.1 Sarrera

Atal honen helburua da gaur egun legegintzan dauden joera nagusiak azaltzea, nola estatukoak hala nazioartekoak.

Atal honetan, lehendabizi, Estatuko lege esparruaren azterketa egingo da, autonomia erkidegoen arteko desberdintasunak azpimarratuz. Bigarrenik, nazioarteko joerak zein diren ikusteko, Europa eta mundu mailako lege esparruaren azterketa egingo da.

Azkenik, jokoaren eta online jokoaren publizitatearen lege esparrua azpimarratuko da, azken urteetan gertatu diren lege aldaketak gogoan harturik; eta etorkizunera begirako erronkak aurkeztuko dira.

2.2 Lege esparrua

Joko modalitateen onespena autonomia erkidegoetan

Autonomia erkidegorik gehienen araudia joera liberalekoa da, Europa eta mundu mailako beste herrialde batzuekin konparatuta. Abiapuntua hau da: jokoa aisiako legezko jarduera bat da baina arautu beharrekoa, agintari publikoen aurretiazko kontrola (jarduera gauzatu ahal izateko baimen administratiboen bidez) eta ikuskaritza behar duena, joko jarduerak desegoki erabiltzetik sor daitekeen edozein eragin kaltegarriri aurrea hartzeko (horretarako ezartzen dira jokoa sustatzeko mugak, alegia, ludopatiei aurrea hartzeko eta kontrolatzeko, adingabeak babesteko, etab.).

Hala ere, jardueraren kontrolean inolako murrizketarik gertatu gabe, autonomia erkidegoek Jokoaren Lege orokor bat onartzearen aldeko hautua egin dute, jokoaren oinarriak eta arau esparrua zehazteko euren eskumeneko lurraldean. Geroagorako utzi dute baimena duten jokoak arautzeko garapena, sektoreko gizarte eragilerik adierazgarrienek egin ditzaketen aurrerantzeko eskaerei malgutasun handiagoz erantzuteko.

Oro har, baimena behar duten jokoak Jokoen Katalogo batean zehazten dira. Horren barruan, oso aukera zabala dago, gizartearen errealitatearekin bat datorrena. Aukera zabala egon arren (apustuetan izan ezik), autonomia erkidegoetako legeek eskaintzari garrantzizko mugak jartzen dizkiote: joko baimenen eta ustiatzeko baimenen epemugak; muga kuantitatiboak, bereziki kasinoen kasuan (zenbat kasino egon daitekeen autonomia erkidegoaren barruan); baita sarien mugak ere (izan ere, joko makinek eta bingoek mugatuta dauzkate partida bakoitzean eskuratu daitezkeen zenbatekoak).

Estatu mailan, Jokoa arautzen duen 13/2011 Legeak, maiatzaren 27koak (aurrerantzean Estatuko Jokoaren Legea), arautu zuen lehenengoz online jokoaren ustiapena espainiar lurraldean. Lege horrek berorrek arautzen du online operadorea izateko eskatzen diren baldintzak, gaitzeko tituluak eta Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiak egiten duen ikuskaritzaren araubidea. Zuzendaritza nagusi hori Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioaren menpe dago eta berak arautzen du jokoaren jarduera. Estatuko Jokoaren Legea Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren hainbat errege dekretuk eta ebazpenek garatu dute. Nabarmendu dezagun hemen (i) 1614/2011 Dekretua, azaroaren 14koa, jokoa arautzen duen 13/2011 Legea, maiatzaren 27koa, garatzen duena, lizentzia, baimen eta joko erregistroei dagokienez. Azpimarratzekoa da, halaber, 1613/2011 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, jokoa arautzen duen 13/2011 Legea, maiatzaren 27koa, garatzen duena, joko jardueraren baldintza teknikoei dagokienez. Gaur egun, baimena duten 48 operadore daude Estatu mailan online jokoa ustiatzeko, Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiak emandako gaitze tituluak direla medio.

Autonomia erkidegoetan, asko dira online jokoari buruzko araudiak sortu dituzten erkidegoak, Euskal Autonomia Erkidegoa haien artean. EAEk jokoaren oinarrizko erregulazioan jasotzen du jokoak sistema elektronikoen bidez garatzeko aukera; gerora, 2011ko uztailaren 7ko Aginduan garatzen du apustuak esleituta dituzten enpresek sistema telematikoen bidez apustuak ustiatzeko joko sistemak eta elementuak homologatzeko bidea. Gogoratu dezagun, berriro ere, arau horrek

Euskadin apustuak garatzeko eta antolatzeko baimenak dituzten hiru enpresei baino ez diela eragiten.

Publizitatearen araubidea

Publizitateko baldintzek eztabaida ugari sortzen dute joko elkarte eta operadoreen eta administrazioaren artean. Bada aukera eduki kaltegarririk gabeko kanpainak egiteko baimena emateko, mugak badaude ere. Adibide bat ematearren, Portugalen debekatuta dago joko kasinoei buruzko era guztietako publizitatea egitea.

Espainian, Estatuko Jokoaren Legeak jokoen publizitatea egiteko baimena ematen du, baldin eta iragarriko den joko operadoreak gaikuntza titulua badu, online jokoko jardueretarako baimena ematen diona, eta gaitzen duen titulu horretan jardueraren publizitatea egiteko ageriko baimena ematen bazaio. Joko jardueraren eta joko arduratsuaren inguruko publizitatea arautuko duen erregelamendu bidezko garapena egitea aurreikusten da legean. Dena den, Estatuko online jokoaren araudiak berak du autorregulazioa publizitatean. Horren inguruan, lehenago aipatu dugunez, jokoaren inguruko komunikazio komertzialei buruzko jokabide kode bat argitaratu da. Bertan jasotzen dira bete behar diren oinarri orokorrak, adingabeen babesa eta gai honen inguruko eztabaidak konpontzeko judizioz kanpoko ebazpenen araubidea.

Autonomia erkidegoen mailan, joko arloko publizitatearen araubidea askotarikoa da, autonomia erkidegoaren arabera. Joera irekia nabari da arlo horretan. Esaterako, Madrilgo Erkidegoko jokoari buruzko 6/2001 Legea aldatu egin zen: hasieran 5. artikuluan jokoari buruzko publizitatea debekatu egiten bazuen ere, gero baimena eman zien baimena zuten joko operadoreei publizitatea egiteko. Ildo berekoa da 4/1991 Legea, azaroaren 8koa, Euskadiko Jokoari buruzkoa, baina aldaketa batekin: oro har, baimena ematen du jokoari buruzko publizitate jarduerak burutzeko, baina jokoaren arloko agintaritzaren baimen administratiboa behar da.

Europako araubidean diren joerak

Euskal Autonomia Erkidego eta Estatu mailan bezala, jokoaren sektoreko Europako araudia etengabeko eboluzioan dago eta sektoreko egoera berrietara etengabe egokitzen ari da.

Gaur egun, garrantzi ekonomiko eta soziala izan arren, ez dago arautze sendorik jokoaren sektorean. Hori dela eta, Europako Batzordean dagoen joera da jokoaren arloko araudiak harmonizatzea lortzea, araugileen artean ahalik eta koordinaziorik handiena eta Europako jokalariak babestuko dituzten estandar komunak lortzea.

Hona hemen Europako herrialde batzuetako arau eredu batzuk:

- Alemania: Loteriak eta ausazko jokoen araudia estatu federal bakoitzaren esku dago, maila federalean baterako akordio bat egon badagoen arren.
- Belgika: Ausazko jokoaren Legea 2011ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean. Bertan ezartzen da operadoreek aurrez aurreko jokorako lizentzia izan behar dutela edo offline enpresa bat izan edo elkarte bateko kide izan behar dutela. Gainera, debekatu egiten die belgikar herritarrei baimendu gabeko webguneetan jokatzea eta zehapenak ezartzen ditu lizentziarik gabe diharduten operadoreen kontra.
- Finlandia: Ausazko jokoen merkatua gobernuak monopolizatzen du eta hiru operadore nagusi daude: Ray, Veikkaus Oy eta Fintloto.
- Frantzia: Berezitasunak ditu apustuen modalitatean. Online Jokoen Agintaritza Araugileak (ARJEL) kontrolatu eta ikuskatzen ditu jarduera batzuk, baina beste batzuk ez. Azken horiek Française des Jeux enpresak kontrolatzen ditu. Enpresa horrek monopolio gisa dihardu eta loteria, bingo eta harraska jokoak kontrolatzen ditu.
- Erresuma Batua: UK Gambling Commission da jokoaren sektorea ikuskatu eta arautzen duen organoa. Legeak Gambling Act delakoak ezartzen ditu 2005etik. Jokoaren merkatuaren atal bat UK Gambling Commission-en eskumen

arautzailetik kanpo dago, operadore askok Gibraltarren, Man Uhartean edo Maltan baitituzte egoitzak, erresuma Batuan zergak ordaintzea saihesteko. Hala ere, zerga ihes hori saihesteko, Erresuma Batuak erregulazio bat ezarri du: zergak ordainduko dira jokalaria bizi den tokian, berdin dio operadorearen egoitza fiskala non dagoen.

Online jokoaren erregulazio hasiberria

Online jokoaren merkatua era esponentzialean igo da azken urteotan, teknologien garapen azkarrak bultzatuta. Une honetan aldaketa eta egokitzapen prozesuan erabat murgildurik dagoenez, aparteko aipamena merezi du.

Espainian Estatuko Jokoaren Legeak online jokoaren merkatua zabaldu du, eta esparru juridiko bat eman dio lehenengoz Estatuko online jokoari.

Estatuko Jokoaren Legeak eta garatzen duen araudiak gaitzeko tituluen –lizentzia orokor eta berezien– ezaugarriak ezarri dituzte; baita titulu horiek emateko, transmititzeko eta iraungitzeko araubide bat ere.

Horrela bada, online jokoa ustiatzeko, gaitzeko titulu bat eduki behar dute joko jardueran ari diren pertsona fisiko eta juridikoek, baldin eta (i) jarduera horregatiko diru sarrera gordin edo garbiak, komisioak edo beste edozein kantitate jokoarekin lotuta badaude, eta (ii), aldi berean, joko jarduera komertzializatzeko edozein jarduera egiten badute; esate baterako, sarien edo lehiaketen zenbatekoak zehaztu, jokalarientzako, transakzioetarako eta ordainketen likidaziorako politikak kudeatu, jokoen plataforma kudeatu edo erabiltzaileen erregistroa eraman.

Gaitzeko bi titulu mota daude:

- Lizentzia orokorrak, joko modalitate jakin batzuk garatzeko baimena ematen dutenak: (i) apustuak, (ii) lehiaketak eta beste joko batzuk.
- Lizentzia bereziak: joko modalitate jakin baterako lizentzia orokorraren titular direnek lizentzia berezi bat edo batzuk eskatu ahal izango dituzte, oinarrizko araudia argitaratuta duten modalitateetako joko mota bakoitzerako (kasurako, "Beste joko batzuk" lizentzia orokorraren titular denak lizentzia berezi bat eskatu ahal izango du pokerra edo erruleta bezalako kasinoko jokoak eta *slot*ak edo bingoa garatzeko).

Lizentzia orokorrak emateko, aurretiaz deialdi bat egiten da, prozedura baten barruan, publizitate, konkurrentzia, berdintasun, gardentasun, objektibotasun eta bereizketarik eza oinarri harturik. Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioaren titularrak onartuko du oinarrien orria, Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiak proposatuta, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Lizentzia orokorra duen operadore titularrak edozein unetan eskatu ahal izango ditu lizentzia bereziak, lizentzia bereziak eskatzeko argitaratutako oinarrietan ezarrita dagoenaren arabera.

Lizentzia orokorrak emateko prozedura Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioak deitu dezake, ofizioz edo doakion parteak hala eskatuta. Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiak deialdiari ezezkoa eman diezaioke arrazoituta, adingabeak babesteko edo jokoaren mendekotasunari aurrea hartzeko.

Aipatutako prozedura horren lehenengo deialdia azaroaren 16ko EHA/3124/2011 Aginduari jarraituz egin zen Espainian. Bertan onartu zen lizentzia orokorren lehenengo deialdiko oinarrien orria, jokoa arautzen duen maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen joko jardueren garapen eta ustiapenerako.

Lizentzia orokorrak (eta berriki araututako *slot*en eta apustu gurutzatuen lizentzia bereziak) eskatzeko bigarren deialdia duela gutxi izan da (BOE, HAP/1995/2014 Agindua, urriaren 29koa, jokoa arautzen duen maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen arabera, joko jarduerak garatzen eta ustiatzen dituen lizentzia orokorren deialdia arautzen duten oinarrien orria onartzen duena).

Prozeduraren barruan honakoa eskatzen da:

(i) eskatzailearen kaudimen teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa ziurtatzea

(ii) deialdiaren oinarrietan eskatzen diren bermeak ematea

(iii) joko arduratsuaren oinarriak, enplegatuen prestakuntza, banaketa bideak, jokoen diseinua eta deialdiaren oinarrietan ezartzen diren jardueraren beste alderdiak kontuan dituen plan operatiboa izatea

(iv) joko jarduerak garatzeko sistema deskribatzen duen proiektu teknikoa

(v) jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiak ondorio horietarako izendatutako erakunde batek emandako ziurtagiria izatea, operadoreak erabiliko dituen sistema teknikoek aplikagarri zaien araudiak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituztela ziurtatzeko.

Jokoaren antolaketako Zuzendaritza Nagusiak 6 hilabeteko epea du ebazteko eta, kasua hori balitz, eskatutako online jokoen ustiapena baimentzeko. Operadoreek LRJk sortutako Jokorako Lizentzien Erregistro Orokorrean ematen dute izena.

Lizentzia orokorra ematea baldintzatuta dago: lizentzia eman izana jakinarazi eta lau hilabeteko epe luzaezinean aurkeztu behar da jokorako sistema teknikoak ziurtatzen dituen behin betiko txostena eta Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren homologazioa.

Gainera, Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiak beste erakunde publiko batzuei txostenak eskatu ahal izango dizkie prozeduran zehar (Kapitalak Zuritzearen inguruko agintariei, Datuak Babesteko Espainiar Agentziari eta agintari autonomikoei, online jokoaren garapenak autonomia erkidegoko jakin bati eragingo diola adierazten badu, batez ere, jokoa lurralde autonomikoan gailu fisikoak jartzea eskatzen duelako).

Lizentzia orokorrek 10 urteko indarraldia dute eta bereziek, 1etik 5era bitartekoa, baimentzen duten joko motaren arabera. Biak luzatu daitezke iraupen bereko ondoz ondoko aldietan.

Jokoak garatu ahal izateko, online jokoen araudiak bermeak eskatzen dizkie lizentzia eskatzaileei. Berme horiek eskudirutan, Espainian kokatutako higiezinen hipoteka bidez, jauzio aseguru edo lehenengo errekerimenduko berme bidez egin daitezke, Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren 2014ko urriaren 13ko Ebazpenak ezarritakoaren arabera.

Horrez gain, LRJk lizentziak indarrean dauden bitartean operadoreek dituzten betebehar batzuk ere ezartzen ditu (administrazioari egunean/hilean/hiruhilean behin berri eman beharra, jokoaren funtsen gaineko neurriak edo parte hartzaileak babesteko neurriak, besteak beste). Jokoaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren zereginen artean dago legez ezarritako betebeharrak ikuskatzea eta urratzen dituzten operadoreak zehatzea, baita parte hartzaileek operadoreen kontra aurkez ditzaketen erreklamazioak ebaztea ere.

Autonomia erkidego mailan, erakunde horietako batzuek baimendu egin dute online jokoa oro har, nahiz eta gutxi izan joko kanal hori garatu dutenak modalitate bakoitzaren berariazko araudian. Hala ikusten da ondoren txertatu dugun mapan.

- ONLINE JOKOAREN ARAUDI AUTONOMIKOAK 2014AN

Online jokoaren araudi autonomikoak	
Andaluzia	Andaluziako Joko eta Apustuen katalogoan arautzen da, baina ez dago garatuta.
Aragoi	Aragoiko Jokoaren Legean arautua, baina kirol apustuetan eta lehiaketetan bakarrik.
Asturias	Asturiaseko Printzerriko Jokoaren Legeak arautua, baina ez dago joko baterako ere garatuta.
Kantabria	Ez dago arututa online jokoa.
Gaztela-Mantxa	Apustuak; bingoa; lehiaketak; B eta C motako joko makinak; ezagutza, estrategia, trebetasun edo abilezia jokoak; black jacka, pokerra eta erruleta amerikarra.
Gaztela eta Leon	Gaztela eta Leongo Jokoaren Legean arautua, baina ez da joko baterako ere garatu.
Katalunia	Jokoaren Legeak ez du online jokoa arautzen. Apustuak egin daitezke, zaldi lasterketetakoak izan ezik.
Valentziako Erkidegoa	Valentziako Erkidegoko Jokoaren Legeak arautzen du online jokoa, baina kasinoetako jokoak, apustuak eta bingoak daude garatuta.
Euskadi	Euskadiko Jokoaren Legeak arautzen du. Zaldi lasterketetakoak ez diren apustuetarako baino ez dago garatuta.
Extremadura	Extremadurako Jokoaren Legeak arautzen du, eta katalogoak joko birtuala baimentzen du, baina apustuetarako eta kasinoko jokoetarako baino ez dago garatuta.
Galizia	Galiziako Jokoaren Legeak arautua eta era guztietako apustuetarako dago garatuta.
Balear Uharteak	Balearretako Jokoaren Lege berriak arautzen du (2014ko abuztuaren 8tik dago indarrean), baina erregelamendu bidezko garapenik gabe dago.
Kanariar Uharteak	Kanarietako Joko eta Apustuen Legearen bidez dago arututa. Zaldi lasterketetakoak ez diren apustuetarako baino ez dago garatuta.
Errioxa	Jokoen katalogoak eta Apustuen Araudiak online apustuak egiteko modua ematen dute.
Madril	Madrilgo Jokoaren Legeak arautua eta era guztietako apustuetarako dago garatuta.
Murtzia	Murtziako Jokoaren Legeak ez du arautzen, estatuko araudira jotzen du. Apustuetan arautzen da.
Nafarroa	Nafarroako Jokoaren Legean arautua, baina ez da joko baterako ere garatu.

Mundu mailan gobernuak konturatzen ari dira, alde batetik, beharrezkoa dela esparru hori arautzea; eta, bestetik, dirua bildu behar dutela, ikuspegi arautzailez, jarduera hori euren mugen barruan kontrolatzeko eta zergapetzeko.

Horrela, **Europako kasua aztertu da**. Bertan biltzen dira legearen barruko online jokoko jarduerarik gehienak munduan. Hori ikusirik, konturatu dira badagoela eboluzioa joko modalitate hori arautzeko. 2010ean, 8 herrialdetan bazegoen arututa online jokoa, lau urte geroago, 2014ko urtarrilean, 16 dira joko mota hori arututa dutenak. Gainera, gainerako herrialderik gehienak legea garatzen edo arautu beharra aztertzen ari dira, ondorengo mapan ikus daitekeenez:

-Online jokoa arututa duten Europako herrialdeak 2010ean-

Iturria: "Online betting and gaming regulation 2014" PwC

-Online jokoa arututa duten Europako herrialdeak 2014an-



Iturria: "Online betting and gaming regulation 2014" PwC

Halako jarduerak arautu gabe dauden herrialdeetan, online jokoa debekatuta daoela ulertu behar da, Errusian edo Ukrainan bezala.

Espainian, Estatuko Jokoaren Legeak arautu zuen online jokoa eta bere modalitateak, estatu mailan garatu zedin. Eskualde mailan, zenbait autonomia erkidegok online joko mota batzuk arautu dituzte, euren lurraldearen barruan garatzeko, Madrilek eta Euskadik, esaterako (Katalunia lanean ari da, une honetan indarrean dagoen legea aldatuko duen aurreproiektu bat ontzen, horrela, sektoreko aldaketetara egokitu ahal izateko).

Gaur egun, legezko online jokoen merkaturik handiena mundu mailan Erresuma Batua da.

Erresuma Batuan dagoen joera arautzaile nagusia zein den aipatu dugu: zerga arloa eta lizentziak esleitzea kontuan hartuko dituena. Hala, gobernu britainiarrak iragarri du lizentzien emakida erregimena aldatzea aztertzen ari dela, online jokoak eskaintzen dituzten enpresek lizentzia bat izan dezaten Erresuma Batuan. Era horretara, kontsumitzaile britainiarren bidez sortutako sarrerengatik ordainduko lituzkete zergak, sarrera gordinen % 15eko tasa bat, edo unean-unean indarrean legokeen tasa.

Erresuma Batuko araudian ez bezala, Italiak lizentziak emateko sistema berri bat jarri du indarrean; eta, sistema horren arabera, online atariek baimenduta egon behar dute herrialdean. Arau hori betearazteko, agintariek iragazki batzuk erabiltzen dituzte, italiar herritarrak Italian eman gabeko lizentziak dituzten atari horietara sar ez daitezen.

Munduko gainerako kontinenteei begira, Asiako kasuari erreparatu behar diogu. Bertan, online jokoa legez kanpokoa da ia herrialde guztietan eta, azken urteotan, aldaketa gutxi egin dira araudian. Legez kanpoko online jarduera handia badago ere, gobernuen ahalegin guztia turismoa erakartzera bideratu da, Macaon edo Singapurren dauden bezalako makrokasino fisikoak bezalako ekimenen bidez.

Estatu Batuetan, online jokoen legezkotasuna agerian jorratzen duen lege federalik ez egon arren, badira jarduera horri eragiten dioten bi lege garrantzitsu. 1961eko Federal Wire Act izenekoak (The Wire Act izenez ezagutzen denak) ez du telefono bidezko kirol apusturik egiten uzten. Noiz onartu zen kontuan hartzen badugu, ez da harritzekoa lege horretan online jokoei buruzko inolako aipamenik ez egotea. Era berean, lehenago azaldu den bezala, legeria horrek interpretazioak izan ditzake eta ziurgabetasuna sorrarazten du.

Esparru horretako funtsezko bigarren araudia Unlawful Internet Gambling Enforcement Act (Uigea) da, 2006koa. Legez kanpokotzat jotzen du arau horrek bankuek eta gainerako finantza erakundeek atzerrian dauden joko tokietara funtsak transferitzea, legez kanpoko online jokoen jarduerak babesteko. Are garrantzitsuagoa dena: Uigea legeak (2010eko ekainean sartu zen indarrean) ez du legez kanpoko online jokoaren definiziorik zehazten, baina ez da aplikagarria estatu baten mugen barruan egiten diren online jokoetan.

Ondorioz, PwCk argitaratutako "Online betting and gaming regulation 2014" txostenean aipatzen denez, araudietako joera izango da online jokoen zerbitzuen lizentziak ematea estatuen edo eskualdeen artean eta herrialdeen artean. Horretara bi helburu lortuko lirateke: jokalariek likidezia izatea eta zerga bilketa denen artean adostea. Azken batean, araubidea sendotzea izango da joera.

Europako Batzordea, bere aldetik, norabide horretan neurriak bideratzen hasita dago, monopolio nazionalei aurre egiteko. Etorkizun hurbilean herrialde eta eskualdeek mugaz gaindiko online joko motak harmonizatzea lortzea oso litekeena ez badirudi ere, ematen du pokerra eta kirol apustuak direla joko motarik egokienak ikuspegi zabal eta partekatu hori aplikatu ahal izateko.

2.3 Zerga araubidea

Sarrera

Herrialdeetako zerga araubide desberdinetatik sortzen diren kasuak ugari eta bereziak direnez, interesgarri izan daitezkeen eta sektorearen ikerketari oro har balioa erantsi diezaioketen joerak aztertuko dira atal honetan, zerga gaien xehetasunetan murgildu gabe.

Zerga arloko joerak Europan

Europak bizi duen krisi ekonomiko larriak eskastu egin ditu sektorearen diru sarrerak, oro har. Jokalarien kopurua ez da gutxitu, orotara, baina jokora bideratutako gastua urritu da. Sektorearen irabaziak zergapetuta daude herrialderik gehienetan, baina badira salbuespenak: Erresuma Batua, Frantzia, Suedia, Alemania, Italia (operadoreak beste herrialde batean lizentzia badu) eta Danimarka (operadoreek beste herrialde europar batean lizentziarik izanez gero).

Mundu mailako joera, orain arte, sektoreko zergak igotzea izan da. Hala ikusten da ondorengo adibideetan:

- Erresuma Batuko ogasunak iragarri du sari programatua duten makinen gaineko zerga igo egingo duela % 25eraino, irabazi maila handia dutelako. Neurri horren bidez, 335 milioi libera biltzea espero dute 2014 eta 2019 bitartean.

- Kroazian bat-bateko zerga igoera egon zen jokalarien apustuetako irabazien gainean, % 10 eta % 30 bitartekoa, irabaziaren zenbatekoaren arabera. Kroaziako Finantza Ministerioak legea indarrean sartu zen egun berean jakinarazi zuen eta operadoreek beren jarduera eten egin behar izan zuten sistemak aldatzeko.

Hona hemen beste adibide zehatzago batzuk:

AEB (Massachu-setts)	% 5eko atxikipena, 600 dolarretik gorako loteria eta apustuetako sarien gainean.
Argentina	2014an, jokoaren gaineko tasa igo zuen % 16tik % 22ra.
Txile	2030erako, jokoaren gaineko tasa % 20tik % 30era igotzeko asmoa dute.
Panama	Kasinoaren tributua bikoiztu egin da, 2010ean zuen % 10etik 2012ko % 15era; eta makinen gaineko zerga ere 2010eko % 10etik 2014ko % 22ra pasatu da.
Mexiko	Jokoaren gaineko zerga igo egin da, 2008ko % 20tik 2010eko % 30era.

Horrekin batera, ikusten da gobernuak hausnartzen ari direla egoera normalizatu beharraz, sektorean lehiakortasuna eta jasangarritasuna urritzen baitu.

Horrela, Erresuma Batua, erreferentziazko herrialdea, jokoaren zerga erregimenean aldaketa funtsezkoak onartzen ari da, kanal mota eta joko tipologia guztietan, zerga egoera orekatuagoa definitzeko segmentu desberdinen artean eta sektorea lehiakorragoa izan dadin.

Bestalde, jardueraren irabazietan oinarritutako zergak ezartzeko ari dira lanean, jarduera hutsean oinarritutakoak izan beharrean.

Bide horretatik, 2014an Erresuma Batuak hartu duen neurrietariko bat izan da *win*aren gaineko % 20ko joko tasa ezartzea, ausazko makinen kasurako. Jokoaren sarrera gordinen gaineko zerga proportzional berri horrek % 21eko BEZa ordezkatuko du joko gehienetan, baita jokorako lizentziagatiko zergak ere.

Zerga araubidea online sektorean

Online jokoan etengabe agertzen dira operadore eta joko berriak; horrek esan nahi du etengabe aldatzen ari dela eta zerga ikuspegitik ere aldaketa asko egitea eskatzen die administrazioei ere. Horri, sektorearen beraren idiosinkrasiaren zailtasuna erantsi behar diogu, zaildu egiten baitu jokalariak eta operadoreak kontrolatzea. Hori dela eta, zerga araubideari dagozkion joera nagusiak dira sektoreak bizi duen zabalkunde handiari erantzun eraginkorrak ematea eta politika egokiak aplikatzea zergapetzea arautzeko eta kontrolatzeko, zabalkundean oztoporik jarri gabe.

Jatorriari begiratzen badiogu, online jokoa honako zutabe hauek oinarri zituela sortu zen:

- Jokoaren gaineko irabazietan oinarritutako zerga baxuak edo ezdeusak.
- Jokalarientzako sari handiak, zergak baxuak izaki.
- Offshore jurisdikzioak.
- Lizentzia bakar batekin hainbat herrialdetan aritzeko baimena.

Oinarri horiek ezin hobeak ziren jokalari eta operadoreen aldetik, eta oso onuragarriak, gainerako modalitateekin konparatuta.

Horregatik bada, herrialde asko hasi dira online jokoa arautzen eta estatuko lizentziak konpainia pribatuei eskaintzen: Danimarka, Frantzia, Italia, Erresuma Batua eta Espainia. Konturatu dira araudi batzuk eman direla, kasu batzuetan diru sarrerak igotzeko zergen bidez; eta, beste batzuetan, estatuetako diru sarrerak babesteko nazioarteko monopolio handietatik. Erregulazioak igo egiten du herrialdeen diru bilketa, baina ez dio sektoreari bultzadarik ematen, nazioarteko operadoreek gero eta tasa handiagoak ordaindu behar dituztelako eta arautze kostuei aurre egin behar dietelako.

Aipa dezagun Erresuma Batuan onartu berri den Publizitate eta Lizentziei buruzko legea. Lege horren bidez, online jokoan diharduten enpresek, berdin dio non dauden kokatuta edo zein jurisdikziotakoa den euren joko lizentzia, Erresuma Batuan ordaindu behar dituzte zergak, kontsumoko puntuan ezarritako GGRaren % 15eko tasakoak. Hori dela eta ematen zaio POC edo Point of Consumption izena online jokoen oinarriari jokoaren jardueren zergak kobratzeko ondorioetarako.

Estatuko zergen analisia eta joerak

Egungo egoeraren ezaugarria da Administrazioaren eta jokoaren industriaren arteko interesen gatazka. Administrazioak, defizita jaitsi beharrak bultzatuta, zergak igo dizkio sektoreari; baina, operadoreek errezeloz ikusten dute neurria, sektoreak bizi duen egoera ekonomikoa dela eta.

Zerga igoera horren adibide bat dugu Estatuko Loteria eta Apustuen Sozietatearen sarien irabaziaren gainean egin den zerga aldaketa. Horrenbestez, % 20ko tasa ezartzen zaie irabazi

horiei, 2.500 eurotik gorako sarietan. Aldaketa hori izan da abenduaren 27ko 16/2012 Legearekin onartu den neurrietako bat, finantza publikoak eta jarduera ekonomikoa bultzatzera bideratuak.

Operadoreek, Estatu mailakoek ez ezik mundu mailakoek ere, ez dute zerga igoera onartzen; eta, gainera, horrek dakarren kaltea operadoreei eta kontsumitzaileei egozten die Zerga igoerak marjinak murriztea dakar eta horrek sariak jaistea dakar eta kontsumitzailearentzat ez dira hain erakargarri.

Horri loturik, Estatuan heterogeneotasun handia dago erkidegoen artean eta zerga eskumenen arteko lehia Administrazioen artean. Online jokoak gora egitean, arazo horiek ere gehiago azpimarratzen dira.

Hortaz, sektoreak etorkizunik izango badu, bi arazo hauek konpondu beharra dago:

- Operadoreek duten zerga presio handia eta erkidegoen eta jokoen modalitateen artean zerga arauetan dauden aldeak.
  Alde batetik, sektoreko zergen berrikusketa edo murrizketa prozesuak eta irabazi garbien tributazioak (GgR) ezartzeak, kantitate globalak zergapetu beharrean, ondorio hau ekarriko luke: sektore lehiakor bat sendotzea, baldintza berdinetan operatzea eta aberastasuna eta lanpostuak sortzea.
- Jokoaren barne merkatu bat homogeneizatzea eta sortzea, eta zerga erregulazio berdintsuagoa izatea.

Jarraian, autonomia erkidego bakoitzera aplikatutako zerga tasa ikusten da 2012an.

-KASINOAK: JOKOAREN GAINEKO ZERGA, ESKALAK ETA ZERGA TASAK (%)-

	ANDALUZIA	ARAGOI	ASTURIAS	BALEARRAK	CANARIAS	NARIAR UHARTE	GAZTELA ETA LEON		GAZTELA-MANTXA	KATALUNIA	EXTREMADURA		GALIZIA	MADRIL	MURTZIA		NAFARROA	EUSKADI		ERRIOXA		VALENTZIA		CEUTA ETA MELILLA
							Enplegua mantentzea				Enplegua mantentzea				Enplegua mantentzea			GIPUZKOA	BIZKAIA	Enplegua mantentzea		Areto luzakinak		(Estatua)
1.200.000 €	20	18	22	21	20	24	20	17	20	20	20	18	22	22	25	15	20	20	20	24	10	15	10	20
1.322.227 €					36					35							35							35
1.323.000 €																								
1.359.000 €																								
1.400.000 €																								
1.450.000 €						38			35															
1.573.200 €																								
1.606.800 €																								
1.650.000 €			38												42	35								
1.651.860 €																								
1.677.207 €																								
1.890.000 €													38											
1.987.382 €																								
2.000.000 €				39																				
2.187.684 €	35	30			45		35	30		45	35	31.5		30			45	33	33	38	30	30	30	45
2.190.300 €																								
2.200.000 €																								
2.250.550 €																								
2.300.000 €						49			45															
2.570.880 €																								
2.599.000 €																								
2.718.950 €																								
2.775.016 €																								
3.000.000 €													49											
3.288.276 €																								
3.500.000 €		40					45	39			45	40.5		40										
4.000.000 €	48																							
4.363.348 €																								
4.365.000 €																								
4.490.800 €			49	49											55	50				49	40	40	40	55
4.500.000 €																								
5.000.000 €																	56							
5.172.500 €	58	50			55	60	55	48	55	55	55	49.5	60	45						60	50	50	50	
5.431.125 €																								
5.534.778 €																								
6.000.000 €																								
6.300.000 €			60																					
6.558.363 €				59.5																				

-KASINOAK> JOKOAREN GAINEKO ZERGA, ZERGA TASA EFEKTIBOA, ZERGA OINARRIAREN ETA ERKIDEGOAREN ARABERA (%)

GGRa	ANDALUZIA	ARAGOI	ASTURIAS	BALEARRAK	CANARIAS	KANTABRIA	GAZTELA ETA LEON		GAZTELA-MANTXA	KATALUNIA	EXTREMADURA		GALIZIA	MADRIL	MURTZIA		NAFARROA	EUSKADI (Gipuzkoa-Bizkaia)	ERRIOXA		VALENTZIA	CEUTA ETA MELILLA
							Enplegua mantentzea				Enplegua mantentzea				Enplegua mantentzea				Enplegua mantentzea		Areto luzakinak	(Estatua)
1.250.000 €	20,0	18,0	15,0	21,0	20,0	24,0	2,0	17,0	20,0	20,6	20,0	18,0	22,0	22,0	25,0	15,0	20,0	20,0	24,0	10,0	15,0	10,0	20,0
1.500.000 €	20,0	18,0	15,0	21,0	21,8	24,5	20,0	17,0	21,0	23,0	20,0	18,0	22,0	22,0	25,0	15,0	21,8	20,0	24,0	10,0	15,0	10,0	21,8
17.500.000 €	20,0	18,0	15,0	21,0	23,7	26,4	20,0	17,0	23,0	24,7	20,0	18,0	22,0	22,0	26,4	16,6	23,7	20,0	24,0	10,0	15,0	10,0	23,7
2.000.000 €	20,0	18,0	15,1	21,1	25,1	27,9	20,0	17,0	24,5	27,0	20,0	18,0	24,0	22,0	28,3	18,9	25,1	20,0	24,0	10,0	15,0	10,0	25,1
2.250.000 €	21,7	19,3	16,8	23,1	25,5	29,0	21,7	18,4	25,7	27,0	21,7	19,5	25,6	22,9	29,9	20,7	26,5	21,4	25,6	12,2	16,7	12,2	26,6
2.500.000 €	23,0	20,4	18,1	24,7	28,3	30,8	23,0	19,6	26,6	38,8	23,0	20,7	26,8	23,6	31,1	22,1	28,3	22,6	26,8	14,0	18,0	14,0	28,3
3.000.000 €	25,0	22,0	20,1	27,1	31,1	33,8	25,0	21,3	29,7	31,5	25,0	22,5	29,5	24,7	34,8	26,4	31,1	24,3	28,7	16,7	20,0	16,7	31,1
3.500.000 €	26,4	24,6	21,5	29,4	33,1	36,0	27,9	23,9	31,9	33,4	26,4	23,8	32,3	26,9	37,6	29,8	33,1	25,6	30,0	18,6	21,4	18,6	33,1
4.000.000 €	29,1	26,5	14,9	31,8	34,6	37,6	30,0	25,8	33,5	34,9	28,8	25,9	34,4	28,5	39,8	32,3	34,6	26,5	31,0	20,0	22,5	20,0	34,6
4.500.000 €	31,2	28,0	27,6	33,7	36,0	38,9	31,7	27,2	34,8	36,0	30,6	27,5	36,0	29,8	41,5	34,3	36,0	27,2	33,0	22,2	24,4	22,2	36,0
5.000.000 €	32,9	29,2	28,7	35,3	37,9	41,0	33,0	28,4	36,8	37,9	32,0	28,8	37,3	30,8	42,9	35,9	37,9	27,8	34,6	24,0	26,0	24,0	37,9
5.500.000 €	35,2	31,1	31,5	36,5	39,5	41,7	35,0	30,2	38,5	39,5	24,1	30,7	38,4	32,1	44,0	37,1	39,5	28,3	35,9	25,5	27,3	25,5	39,5
6.000.000 €	37,1	32,7	32,9	37,6	40,8	44,2	36,7	31,7	39,8	40,8	35,8	32,3	40,1	33,2	44,9	38,2	40,8	28,7	37,0	26,7	28,3	26,7	40,8
6.500.000 €	38,7	34,0	35,0	38,4	41,9	45,4	38,1	32,9	41,0	41,8	37,3	33,6	41,6	34,1	45,7	39,1	41,9	29,0	38,8	28,5	30,0	28,5	41,9
7.000.000 €	40,1	35,1	36,8	39,9	42,8	46,4	39,3	34,0	42,0	42,8	38,6	34,7	42,9	34,9	46,3	39,9	42,8	29,3	40,3	30,0	31,4	30,0	42,8

M.Arrazola/ej-gv

-BINGOAK JOKOAREN GAINEKO ZERGA, ZERGA OINARRIAK ETA ZERGA TASAK ERKIDEGOAREN ARABERA (%)

	KANARIAR UHARTEAK											GALIZIA									ERRIOXA			
	ANDALUZIA	ARAGOI	ASTURIAS	BALEARRAK		Enplegua mantentzea	KANTABRIA	GAZTELA ETA LEON	GAZTELA MANTXA	KATALUNIA	EXTREMADURA		Mantenimiento empleo	MADRIL	MURTZIA	NAFARROA	EUSKADI	ALAVA	GIPUZKOA	BIZKAIA		Mantenimiento empleo	VALENTZIA	CEUTA ETA MELILLA
ENPRESAREN KONTURA																								
KARTOIEN BALIOAREN GAINEAN (%)																								
Bingo tradizionala																								
Aretoak erositako balio izendatuaren baturaren gainean	20,00			19,00	20,00				20,00	25,00	18,00	20,00	15,00	15,00			3,60	18,40	18,40	18,40				20,00
Eskalan																								
otik 400.000ra																							2,00	
400.001etik 3.000.000ra																							15,00	
300.000.001etik 8.000.000ra																							16,00	
8.000.000tik gora																							18,00	
otik 3.500.000ra						16,00																		
3.500.000tik gora						20,00																		
Bingo amerikarra(%)										15,00		20,00	15,00											
Bingo Plusa (%)										15,00		20,00	15,00											
JOKATUTAKO KANTITATEEN GAINEAN KEN SARIAK																47,00					58,82(**)	50,00		
Bingo tradizionala (%)		50,70	56,00				45,00																	
Aretoan erositako kartoien arabera																								
otik 7.500.000ra															40,00									
7.500.001etik 15.000.000ra															50,00									
15.000.000tik gora															55,00									
Sariaren zenbatekoaren arabera							11,00																	
otik 5.000.000ra								50,00																
5.000.001etik 10.000.000ra								52,50																
10.000.000tik gora								55,00																
Areto zabaldu berriak edo langile gehiago dituztenak (lehenengo 4 urteaks)								35,00																
Bingo elektronikoa (%)	30,00	20,00	30,00	25,00	30,00		15,00	25,00	30,00	30,00	25,00	30,00	25,00	30,00	30,00			25,00	25,00	25,00	30,00		30,00	
JOKALARIAREN KONTURA (ZERGA AUTONOMIKOA)																								
Bingo tradizionala																								
Kartoien balio izendatuaren gainean (%)												3,5(*)												
Bingo elektronikoa																								
Kartoien balio izendatuaren gainean (%)													5,25											
																8 Pamplona								
																4 Tudela								
Sariaren zenbatekoaren gainean (%)			10,00												6,00	4,58 Estella								

(*) Galiziako zerga honakoa da: jokalariek bingoko txartelak erostean ordaindutako kopuruen gaineko % 5, zerga oinarriaren % 70eko likidazio oinarriarekin.

(**) Zerga oinarriaren % 50era murriztutako tasa, 2012an langileen kopurua murriztu ezik.

-"B" MOTAKO MAKINAK. JOKOAREN GAINEKO ZERGA, ZERGA OINARRIAK ETA ZERGA TASAK ERKIDEGOAREN ARABERA (%)-

	Makina mota	1 jokalari	2 jokalari	Bi jokalari baino gehiago				Igoera, gehieneko prezioa 0,20 partidako		
			(Kuota bikoitza)		A formula (*)	B formula (**)	Beste formula batzuk	0,20tik gorako kopuruagatiko kuota		
				Oinarrizko kuota						
				Bi jokalariz bestelako	Gehitzen den jokalari bakoitzeko kuota (*)	Gehitzen den jokalari bakoitzeko kuota (*)		0,10	0,04	0,05
					Kuota= Cb+(CjxJ)	Kuota= Cb+(CjxJ+Pr)				
Estatua (Ceuta eta Melilla)						2235,00	%50 gehitzen den jokalari bakoitzeko		65,45	
		3531,00	7062,00							
Andaluzia (1)		3700,00					Banakako kuota + (gehitzen den jokalari bakoitzeko % 10 = 370xNj)		37,64	
Aragoi		3500,00	7000,00			1570,00		21,00		
Enplegua mantentzea		3290,00	6580,00							
Asturias		3500,00	7000,00			2600,00			65,00	
Balear Uharteak (2)	Ostalaritza	3467,00	5660,00	3467,00	866,75 (tarifaren % 25) gehitzen den jokalari bakoitzeko		Interkonektatutako makinetan % 25eko igoera			
	Joko aretoak (> % 10)	3813,70	6116,00	3813,70	953,43 (tarifaren % 25) gehitzen den jokalari bakoitzeko		Interkonektatutako makinetan % 25eko igoera			
Kanariar Uharteak		3487,34	6974,68	6245,07		2445,00			80,20	
Kantabria		3600,00	7200,00	7500,00		2500,00			70,00	
Gaztela eta Leon(3)		3600,00	7200,00				8 jokalaritik gora: 600 gehitzen den jokalari bakoitzeko			
Gaztela-Mantxa		3700,00	7400,00	7500,00		2500,00				80,00
Katalunia		3656,00	7312,00			2280,00				17,00
Extremadura		3400,00	6800,00	6700,00		2468,00			69,00	
Galizia		3740,00	7480,00	7640,00		3080,00		18,80		
	B mota berezia	2805,00	5610,00	5730,00		2310,00				
Madril		3600,00	7200,00			1920,00			70,00	
	Sistema zentralari konektatuta	15% GGR								
Murtzia										
*Saria dirutan		3620,00		3620,00			905 (% 25eko kuota jokalariko) gehitzen den jokalari bakoitzeko			
*Gauzazko sariarekin		3620,00								
Enplegua mantentzea		3000,00								
Nafarroa		3000,00			900,00					
Euskadi	Kuotaren % 12	330,00	660,00				Kuotaren % 12			
	Araban	2750,00	5500,00				825 (kuotaren % 15)			
	Gipuzkoa	2750,00	5500,00				825 (kuotaren % 15)			
	Bizkaia	2750,00	5500,00				825 (kuotaren % 15)			
Errioxa					(Oinarrizko kuotaren % 25, bigarren jokalaritik gora)					
Ostalaritza arrunta		3600,00		3600,00	900,00			15,00		
*B1 mota: Ostalaritza. Murriztua		3500,00			875,00					
*B1 mota: Ostalaritza. Supermurriztua		3080,00			770,00					
*B2 mota: joko aretoetarako bereziak		3600,00		3600,00	900,00					
Valentzia (Erkidegoa)		3200,00	6400,00	5839,44	320,00				69,00	

Cj: Gehitzen den jokalari bakoitzeko kuota

J: Jokalari kopurua

Pr: Gehieneko prezioa

(*) A formula: Oinarrizko kuota + (jokalari bakoitzeko kuota x jokalari kopurua)

(**) B formula: Oinarrizko kuota + (kuota x jokalari kopurua x baimendutako gehieneko prezioa

- ZOZKETAK, TONBOLAK ETA APUSTUAK. JOKOAREN GAINEKO ZERGA, ZERGA OINARRIAK ETA ZERGA TASAK ERKIDEGOAREN ARABERA 2012an-

JARDUERA ZERGA OINARRIA	unitatea	ESTATUA (Ceuta eta Melilla)	ANDALUZIA	ARAGOI	BALEARRAK	KANTABRIA	GAZTELA ETA LEON	KATALUNIA	EXTREMADURA	GALIZIA	MADRIL	MURTZIA	NAFARROA	ERRIOXA	EUSKADI	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Apustuak, tasa orokorra																		
Saldutako txartel guztien zenbatekoa (stakes)	(%)	10,00	10,00	10,00	10,00	10,00		13,00		8,50	13,00	15,00		10,00				
Kirol apustuak																10,00	10,00	10,00
Saldutako txartelen zenbatekoa ken sariak (GGR)	(%)			10,00				10,00		10,00	10,00	10,00	10,00	10,00				
Zaldi lasterketetako apustuak, kanodromoak, etab.																		
Saldutako txartelen zenbateko globala (stakes)	(%)		3,00	3,00	3,00			10,00						10,00				
Saldutako txartelen zenbatekoa ken sariak (GGR)	(%)											10,00						
Apustu trabesak (jokalarien artean)																		
Saldutako txartelen zenbateko globala (stakes)	(%)	1,50		1,50							1,50	1,50						
Partidako	partido													150,00				
Ordainetako apustuak edo gurutzatuak																		
Saldutako txartelen zenbatekoa ken sariak (GGR)	(%)						12,00		12,00									
Ordainetakoak edo gurutzatuak ez diren apustuak																		
Saldutako txartelen zenbateko globala (stakes)	(%)						10,00		10,00									
Pilota eta estropada jardunaldietako apustuak																		
50 jardunaldi baino gutxiago	jornada															100,00	100,00	100,00
50 jardunaldi baino gehiago	jornada															150,00	150,00	150,00
Apustu tradizionalak														100,00				
50 jardunaldi baino gutxiago	jornada															20,00	20,00	20,00
50 jardunaldi baino gehiago	jornada															30,00	30,00	30,00
Zozketak eta tonbolak																		
Salmentan dauden txartelen zenbatekoa	(%)	15,00		20,00	15,00		15,00		15,00	10,00	45,50	15,00		15,00		15,00	15,00	15,00
Saldutako txartelen zenbatekoa		15,00						13,00										
Eskainitako txartelen zenbatekoa	(%)		20,00				10,00											
Herri onurarako zozketak	(%)	5,00	10,00	5,00	7,00		5,00		5,00		19,50			5,00				
Salbuetsitako gutxieneko erakunde ongileak/salbuetsitako erakundeak						90%< 100.000	sariak >3000					99% Gota de Leche Cartagena y Murcia	100% ongintzakoak			DYA	DYA	DYA/JAED(*)
15 egunetik beherako iraupeneko tonbolak, lokalak eta mugatutako sariekin																		
Gehieneko balioa					<3000 /prem.													
Herri motaren arabera																		
Tributazio unitatea		(%)	(X/día)	(%)	(X/día)		(%)		(%)	(X/día)	(%)							
Probintziako hiriburuak		6,01	100,00	7,00	200,00		6,00		6,00	300,00	6,00							
>1.000.000 biztanleko hiriak		3,01	70,00	4,00	200,00		3,00		6,00	300,00	6,00							
75.000 - 100.000 biztanleko hiriak		1,50	30,00	1,70	200,00		1,50		3,00	300,00	3,00							
50.001 - 75.000 biztanleko hiriak		1,50	30,00	1,70	200,00		1,50		3,00	210,00	3,00							
20.001 - 50.000 biztanleko hiriak		1,50	30,00	1,70	130,00		1,50		3,00	210,00	3,00							
15.001 - 20.000 biztanleko hiriak					130,00				1,50	210,00	1,50							
<15.000 biztanleko hiriak					60,00				1,50	90,00	1,50							
Ongintzako zozketak																		
Salmentan dauden txartelen zenbatekoa (%)		1,50		1,50							1,50			1,50				
Ausazko konbinazioak																		
Eskainitako sarien balioa (%)	(%)	10,00	12,00	12,00	12,00	12,00	10,00		10,00	12,00	13,00			10,00		15,00	15,00	15
Komunikabideetan egindako lehiaketak														20,00				

-JOKOAREN GAINEKO ZERGA, "C" MAKINA MOTENGATIKO TARIFA ERKIDEGOETAN 2012an

	Makinako	Jokalari kopuruaren arabera				
		1,00	2,00	>2	2 a 8	>8
Estatua (Ceuta eta Melilla)	4027,00					
Andaluzia	5300,00					
Aragoi		5460,00	10920,00	10920+(1536xNJ)		
Asturias	5400,00	5400,00	10800,00	10800+(380xNJxPr)		
Balearrak		4946,00	9892,00	9892+(4946xNJx0,123)		
Kanariar uharteak	4207,08					
Kantabria		5600,00	11200,00	11200(1600xNJ)		
Gaztela eta Leon		5265,00			10530,00	10530+(877 x jok.
Gaztela Mantxa	5300,00					
Katalunia		5264,00	10520,00	10520+(1580xNJxPr)		
Extremadura		4700,00	9400,00	9660+(1520xNJ)		
Galizia	5460,00					
Madril	5400,00					
*Konektatuak	15 % GGR					
Murtzia		5300,00		5300+(1325xNJ)		
*Enplegu mantentzea		4400,00		4400+(660xNJ-1)		
Nafarroa		4020,00				
Euskadi		Kuotako % 12				
Araba		4025,00	8050,00	1207,5xNJ		
Gipuzkoa		4025,00	8050,00	1207,5xNJ		
Bizkaia		4025,00	8050,00	1207,5xNJ		
Errioxa		4600,00		1150xNJ(Kuotako %25)		
Valentzia		4600,00	9200,00	8394,08+(460xNJ-2)		

-JOKO JARDUEREN GAINEKO ZERGAK. (13/2011 LEGEA, JOKO JARDUERA ARAUTZEARI BURUZKOA (%)

Estatua	Zerga oinarria	**Sarrera gordinak (1)**	**Sarrera garbiak (2)**		**Eskainitako sari edo zerbitzuen merkatuko balioa**
	Apustu mota	Elkarrekikoak (3)	Partekatuak (4)	Gurutzatuak (5)	
	Apustuak				
	Kirol arlokoak	25,00	25,00	25,00	
	Zaldi lasterketetakoak	15,00	25,00	25,00	
	Beste batzuk	15,00			
	Zozketak	20,00			
	Onura publikoaren deklarazioa jaso dutenak	7,00			
	Lehiaketak	20,00			
	Bestelako jokoak		25,00		
	Publizitate edo sustapenetako ausazko konbinazioak				10,00
	Jokoaren Batzorde Nazionalaren tasa				
	Gehiengo muga/gutxieneko muga	1/0,75			
	2013an indarrean dagoen tasa	0,75			
Internet bidez egindako jokoaren gaineko zerga autonomikoak					
Katalunia	Internet bidez edo bitarteko telematikoen bidez egindako jokoak		10,00		
Madril	Internet bidez edo bitarteko telematikoen bidez egindako jokoak		10,00		
Valentzia	Internet bidez edo bitarteko telematikoen bidez egindako jokoak		25,00		

(1) Jokatutako kopuruak eta antolaketatik zuzenean eskuratutako beste sarrera batzuk.

(2) Sarrera gordinak ken saritarako kopuruak

(3) Asmatu dutenen artean, bildutakoaren ehuneko bat sari moduan banatzen dena.

(4) Apustu egiten duenak operadorearen kontra jokatzen du. Saria honetan datza: apustuaren zenbatekoa operadoreak markatutako koefizientearekin biderkatzea.

(5) Operadorea bitartekaria da, eta kudeaketagatik komisio bat kentzen du.

C. Euskadin Jokoaren Sektoreak Dituen Erronkak

M.Arrazola/ej-gv

1. Sarrera

Atal honetan azalduko da zer erronkari egin behar dion aurre jokoaren sektoreak Euskal Autonomia Erkidegoan.

Horretarako, sektorearen arlo guztiak aztertu dira AMIA analisiaren bidez; hau da, sektorearen ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak sakon aztertuz.

Analisian arlo hauek hartu dira kontuan: araudia; zergak; joko eskaintza, eta horren barruan online modalitatea eta teknologia berriak; sektoreko bezeroak; joko arduratsua eta herritarraren babesa; elkarteak; publizitatea eta marketina; fabrikatzaileak eta hornitzaileak; eta sektoreko baliabideak.

Azterketa egiteko, proiektua aurrera eramatean identifikatu diren erronkez gain, banakako elkarrizketak egin dira sektoreko eragile nagusiekin eta *workshop* bat egin da Eusko Jaurlaritzaren eta sektoreko enpresa eta elkarte nagusien artean, ondoriorik garrantzitsuenak ezagutzeko.

2. Euskadin sektoreak dituen erronken xehetasunak

2.1 Araudia

Ahuleziak

- Legeria ez da malgua, eta asko aldatzen da azpisektore batetik bestera.
- Komunikazio falta dago Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzaren, Zerga Administrazioaren eta operadoreen artean.

Mehatxuak

- Eskumenak estatuan birzentralizatzeko joera. Horrek arautzeko aukerak murrizten dizkio Euskadiri.
- Online modalitatearen arautze eta kontrol ez erabatekoa. Horren ondorioz, legez kanpoko operadoreak daude.

Indarrak

- Euskadiren eskumen eremua indartsua da jokoaren arauketan.

Aukerak

- Agintariek gero eta argiago dute araudiak batu, sinplifikatu eta moldatu beharra dagoela.
- Eusko Jaurlaritzak onartu duen Mendekotasunei buruzko Lege Proiektuak joko patologikoa arautzen du lehen aldiz, herritarren osasun publikoa babesteko ikuspegitik.

2.2 Zergak

Ahuleziak

- Desberdintasunak erkidegoen eta joko modalitateen artean.
- Sektoreko enpresek zerga bikoitza dute (enpresa jarduerari dagokiona eta jokoari dagokiona).

Mehatxuak

- Arautu gabeko online jokoetan kapital ihes esanguratsua gertatzen da.
- Gehiegizko zergek legez kanpoko jokoak indartzea edo berriak sortzea ekar dezakete.

Indarrak

- Jokoa sektore garrantzitsua da aisiaren sektorearen barruan. Zerga karga handia duela ere kontuan hartuta, dirua biltzeko iturri garrantzitsua izan liteke.

Aukerak

- Oreka bilatzea sektoreko zerga bilketaren eta garapenaren artean.
- Joko operadoreen jarduerak monitorizatzea, jarduera zergapetzeko eta sektoreari gardentasun handiagoa emateko.
- Jokoaren zergak normalizatzea aisiako jarduera arrunt moduan: BEZa ezarri eta jokoaren gaineko zerga bereziak kendu.
- Azpisektoreen tratamendu fiskala berdindu.

2.3 Eskaintza: produktuak, zerbitzuak eta berrikuntza

Ahuleziak

- Jokoen eskaintzak ia ez du aldaketarik izan azken urteetan eta horrek zaildu egiten du bezero berriak erakartzea.
- Sektoreko operadoreak hainbat enpresa txikitan sakabanatuta daude.
- Jokoaren azpisektoreetan ez dago sektore osoaren ikuspegirik.

Mehatxuak

- Modalitate berriak, online jokoa kasurako, mehatxu dira joko tradizionalentzat.
- Online jokoak arriskuak dakartza pertsona ahulentzat, adingabeentzat esaterako.
- Legez kanpoko jokoak daude.
- Sektoreko enpresari batzuengan profesionaltasun falta nabari da eta ez dute ekimenik sektorearen hazkundea bultzatzeko (berrikuntza, etab.).
- Jokoen fabrikazioan eta ustiapenean, bietan, diharduten enpresa handiak mehatxagarri dira operadore txikientzat; izan ere, eskalako ekonomiak lortzen dituzte eta negoziaziorako ahalmen handia dute, enpresa operadore txikien joko hornitzaileak ere badirelako. Hortaz, operadore txikiak nekez lehiatu daitezke haiekin.

Indarrak

- Euskadik Estatuan eskaintzen diren joko guztiak ditu bere eskaintzan.

Aukerak

- Jokoa aisiako beste jarduera batzuekin konbinatzea.
- Berrikuntza teknologikoak lagundu dezake joko arazoak gutxitzen, kontrol gehiago jarriz; horrela, errazago detekta daitezke halako profilak.
- Joko patologikoari aurrea hartzeko neurriak jartzea araudian, joko eskaintza orekatu eta koherentea egiteko.

2.4 Fabrikatzaileak eta hornitzaileak

Ahuleziak

- Fabrikatzaile eta hornitzaile gutxi daude eta produktu eskaintza txikia dute.
- Enpresa operadore batzuen akziodunen artean fabrikatzaileak daude eta, horren ondorioz, babesten den joko eredua gainerako operadoreen interesen aurkakoa izan liteke, tokiko merkatuan lehiakideak direnez gero.

Mehatxuak

- Lehia txikia dagoenez, eskaintza berritzeko behar gutxiago egon daiteke, eta prezioetan lehiatzeko aukera gutxiago ere bai.
- Hornitzaile gutxi daudenez, haien edozein aldaketak eragin handia izan dezake merkatuan.

Indarrak

- Fabrikatzaileek ondo ezagutzen dute sektorea eta esperientzia handia dute.

Aukerak

- Teknologia berriak aukera ona izan litezke hornitzaile berriak sortzeko.
- Araudian joko sektorearen gizarte erantzukizuna jaso daiteke joko patologikoari aurrea hartzeko.

2.5 Bezeroak

Ahuleziak

- Krisi ekonomikoak jokatzen den diru kopurua murriztea ekarri du.
- Herritarrek jokoaren sektoreari buruz duten iritzia ez da ona.
- Tabakoaren Legea indarrean sartzeak bezero gutxiago sartzea eta diru gutxiago jokatzea ekarri du.
- Publizitaterako dauden mugek eta eskaintzan berrikuntza gutxi egoteak bezeroak erakartzea eta mantentzea zailtzen du.

Mehatxuak

- Adineko bezeroak egotea eta bezero berriak erakartzeko zailtasunak egotea.

Indarrak

- Jokoan egiten den gastua aisian oro har egiten den gastuaren zati garrantzitsua da.
- Azpisektoreek ondo ezagutzen dituzte bezeroak.
- Hainbat elkartek eta erakundek egiten dute lan herri administrazioarekin batera ludopatien prebentzioan eta halako arazoak dituzten pertsonei eta familiei laguntzen.

Aukerak

- Eskaintza berritzea bezeroak mantentzeko eta erakartzeko.
- Teknologia berriak baliabide egokia izan daitezke bezeroen aisiazko bizipenak hobetzeko.

2.6 Joko arduratsua eta herritarren babesa

Ahuleziak

- Legez kanpoko online jokoak ez daude behar bezala kontrolatuta.
- Online jokoak kontrolatzeko aparteko zailtasuna, adingabeak eta bestelako pertsona ahulak babesteari begira bereziki.
- Azpisektoreen artean ez daude berdinduta sartzeko kontrolak.
- Administrazioak ez dio behar duen arreta ematen.
- Jokalariek jokoa, online jokoa bereziki, behar beste ez ezagutzeak legez kanpoko jokoan ari diren operadoreen eskuetara eraman ditzake.

Mehatxuak

- Online jokoak azkar ari dira hedatzen eta, ondorioz, administrazioek babesteko legeak sortu behar dituzte eta elkarteek adi egon behar dute joko arazoei aurrea hartzeko.
- Bezeroak hurbilen dituen jokoak dira mendekotasuna errazen sortzen dutenak; beraz, halako jokoak ez kontrolatzea mehatxagarria da kontsumitzaileentzat.
- Zenbat eta zabalagoa eta eskuragarriagoa izan joko eskaintza, hainbat eta errazago gal dezakete kontrola jokalariek.

Indarrak

- Sektoreak boluntarioen sistema dauka joko arazoak bideratzeko.
- Aurrez aurreko jokoan bezeroa hurbil dago, begien kontrolpean, eta errazagoa da jokabide patologikoei sasoiz aurrea hartzea.

Aukerak

- Teknologia berriei esker, kontrolerako neurri aurreratuagoak jar daitezke (sarbidea, jarduera, etab. kontrolatzekoak).
- Herritarrei joko arduratsuari buruzko informazio gehiago ematea.
- Mendekotasunei buruzko Lege Proiektuak ezarri du joko arduratsua dela joko patologikoa saihesteko bide nagusia eta, ondorioz, herritarrak informatzeko eta sektoreko profesionalak prestatzeko neurriak bultzatzen ditu.

2.7 Publizitatea eta marketina

Ahuleziak

- Jokoaren publizitatea mugatuta dago, sektoreka.
- Gizarteak administrazioaren kontrola eskatzen du publizitate kontuetan.

Mehatxuak

- Publizitatea egiteko dauden mugek zaildu egiten dute sektorearen irudia hobetzeko ekintzak egitea.
- Online jokoek eta Estatuaren eskumeneko jokoek ez daukate hain mugatuta publizitatea,

gainerako modalitateen lehiakortasunaren kaltetan.

Indarrak

- Administrazioek sortutako kontrolak eta jokabide kodeak.
- Sektoreko operadoreek zorrotz betetzen dituzte publizitate arloko arauak.

Aukerak

- Euskadin publizitate arloa arautzen denean, oraingo egoera normalizatzeko aukera egongo da.
- Publizitatea egiteko baimena joko arduratsuaren aldeko mezuak txertatzearekin lotu daiteke.

D. Jokoaren Sektoreko Enpresen Jardunbide Egokiak

1. Sarrera

Aurreko ataletan aztertu denez, jokoaren sektoreak erronka hauek ditu gaur egun: batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko operadoreen lehiakortasuna jaitsi egin da, zenbait arrazoirengatik: krisi ekonomikoak joko eskariaren beherakada ekarri duelako, Tabakoaren Legeagatik eta nazioarteko operadore berriak agertu direlako. Bestetik, Euskadiko herritarrek jokoaz, oro har, eta enpresen jardunaz, bereziki, iritzi txarragoa dute. Eta, azkenik, herritarrek eta Administrazioak gero eta ardura handiagoa dute joko arduratsua bultzatzeko.

Gauzak horrela, Administrazioa sektoreko hiru arlo horietaz kezkaturik agertzen da. Horregatik, egoerari aurre egiteko eta sektorearen lehiakortasuna hobetzeko, operadoreentzako gomendioak edo jardunbide egokiak planteatzen dira, herritarren iritzia hobetzeko eta lehiakortasun handiagoa lortzeko.

2. Gizartearen iritzia hobetzeko

1) Enpresa bakoitzari joko modalitate bakoitzean aplikagarri zaizkion lege eta araudiak bete, enpresaren dinamika osatzen duten interes talde guztien ongizatea zainduz, bai jokalariena, bai gizarte osoarena.

2) Enpresaren zintzotasuna, zuzentasuna, konpromisoak bete eta gardentasuna aitortu, sinesgarritasuna eta sendotasuna lortzeko eta, horrekin batera, enpresaren irudia hobetzeko.

3) Administrazioak ezarritako kontrolak bete eta informazio eta publizitate ekintzak sustatu, publizitatea egiteko ez ezik, baita jokalariei kontrolen arrazoiak eta helburuak aditzera emateko eta, horrela, jokoaren iritzi hobea izateko ere.

4) Operadore bakoitzak duen joko jardueraren kontrola erraztu denbora errealean, joko arduratsuaren aldeko ekintzak eta operadoreen aldekoak azkarrago egiteko eta berehalako eraginkortasuna edukitzeko.

5) Joko modalitate eta azpisektore guztietan kontrol zorrotzagoak egiteko neurriak edo tresnak ezarri, esaterako:

   a. Autodebekua. Tresnak sortu, jokalariak jokoan duen jokabidea kudeatzeko modua izan dezan. Adibidez, tresna bat izan liteke operadoreek aukera ematea jokalariei aparteko kontu bat edukitzeko jokorako funtsekin, beren gastua mugatu dezaten.

   b. Jokatzeko denbora mugatu.

   c. Jokatzeko diru kopurua mugatu.

   d. Informazio etiketa argiagoak ipini, jokalariek jakin dezaten zer arrisku dagoen eta beren kontsumoaz jabetu daitezen.

6) Bide teknologikoak ezarri, adibidez NANaren bidez identifikatu beharra B makinetan edo apustu lokaletako aurrez aurreko makinetan, modu tradizionalean debekatzeko modurik ez dagoen establezimenduetan, adingabeak jokoan aritu ez daitezen.

7) Sektoreak enplegua eta aberastasuna sortzen daukan garrantzia nabarmendu sektoreko komunikazio ekintzen bidez eta argitalpenen bidez.

3. Operadoreen lehiakortasuna hobetzeko

1) Aisia integraleko zerbitzua sustatu joko establezimenduetan: jatetxeak, era askotako jokoak, ikuskizunak, etab. Negozio ereduaren aldaketa horrek bertako herritarra eta aisiako turismoa erakartzeko balioko du. Gainera, hartara, beste aisia arlo batzuetara erakarritako turistak establezimendu horietara ere joango dira eta horrek eskariaren igoera ekarriko du.

2) Euskadiko enpresen kontzentrazioa bultzatu, lankidetzari eta koordinazioari esker negoziatzeko eta berritzeko ahalmen handiagoa izan dezaten. Izan ere, elkartuta, enpresek baliabideak bilduko dituzte eta, hala, lehiakorrak izateaz gain, joko eskaintza zabaldu eta hobetu ahal izango dute.

3) Sektoreko berrikuntzan inbertitu (teknologikoan eta gainerakoan), bezeroei euren nahietara moldatutako eskaintza egiteko eta, horrela, oraingo bezeroak mantentzeko eta berriak erakartzeko.

4) Baliabideak dituzten enpresei nazioartera zabaltzeko aukera aztertzea gomendatzen zaie. Enpresaren joko eskaintzaren mugak zabaldu eta sektore honen eskari handiagoa, operadore gehiago, jokoaren gaineko iritzi hobea eta jokatzeko ohitura handiagoa duten merkatuetara jo.

5) Estrategia komertzial egokiena diseinatu Administrazioak publizitate eta marketinerako ezarritako mugen barruan.

4. Joko arduratsua sustatzeko

1) Informazio eta publizitate ekintzak sustatu, ez bakarrik eskaintzaren berri zabaltzeko, baita joko arduratsuaren aldeko ekintzak ezagutzera emateko ere, betiere engainagarria izan barik eta giza duintasuna errespetatuz.

2) Enpresaren publizitatea eta marketina gizarte erantzukizunaren ikuspegitik egin, kontsumitzaileek hobeto ezagut ditzaten jokoa eta beraren arriskuak.

3) Informazio ekintzak egin joko mota bakoitzean gehien aritzen diren bezeroei zuzenduta, mezua zuzen irits dakion xede bezeroari.

4) Operadoreen eskaintza iragartzeko ekintzek ez diote jokalariari pentsarazi behar bizi kalitatea hobetuko zaionik.

5) Erabiltzaileei sariei buruz eta sariak lortzeko probabilitateaz eskaintzen zaien informazioak guztiz argia izan behar du.

6) Jokalariek erraz eskuratzeko moduan eduki behar dituzte jokoen pribatutasun politikak.

7) Jokatzeko erabiltzailea erregistratzea beharrezkoa denean, jokalariak aukera izan behar du bere informazioa ezabatzeko erabiltzaile izateari utzi nahi izanez gero.

8) Izaera sozialeko jokoetan, hau da, beste jokalari batzuekin jokatzen denean joko interkonektatuen bidez edo online jokoetan (pokerrean, esaterako), beste erabiltzaileei benetako profila ez erakusteko aukera eman beharko litzaioke erabiltzaileari. Hala gomendatzen zaie enpresei.

9) Langileei informazioa eta prestakuntza eman lanean joko arduratsua nola bultzatu eta joko arazoak dituzten erabiltzaileak nola identifikatu eta lagundu jakin dezaten.

10) Joko lokaletan eta makinetan adingabeak babesteko informazioa jarri, adingabeak jokoan aritu ez daitezen, mendekotasunean erortzeko arrisku handia dute eta.

11) Jokoak online eskaintzeko lizentzia duten operadoreei behean zerrendatzen diren jardunbideak gomendatzen zaizkie, zaila baita modalitate horretan joko arduratsurako neurriak jartzea. Aurrez aurrekoetan ere (apustu lokaletako makinetan) kontrol hauek aplikatzea gomendatzen da:

   a. Jarri argi arazoak dituzten jokalariei laguntzeko elkarteen eta joko arduratsuan espezializatutako erakunde publikoen estekak.

   b. Jarri gurasoen kontrolerako estekak.

   c. Ezarri erabiltzaileak erregistratzeko nahitaezko kontrolak, jokalarien identitatea eta adina egiaztatzeko.

   d. Ez eman mailegurik jokalariei.

E. Laburpen Exekutiboa

M.Arrazola/ej-gv

1. Jokoaren sektorearen egoera ekonomikoa Euskadin

Jokoaren sektorea Euskadin aisiako sektorearen atal garrantzitsua izan da betidanik. Azken urteetan bilakaera bat ikusi da bai eskaintzan, operadore berriak eta online jokoa agertu baitira; bai eskarian, ondoren azalduko diren faktoreak direla eta.

Oro har, eskaintzan gertatu den aldaketa nagusia online jokoa arautzea izan da, Estatuan lehenengo eta Euskal Autonomia Erkidegoan 2011n. Horrek zerbitzuak euskarri digitalen bitartez ematen dituzten operadore berriak ekarri ditu merkatura. Bestalde, eskaintza gehiena, modalitate berri hori kenduta, lehengoa da, aldaketa edo hobekuntza txikiren bat gorabehera. Gaur egun, Euskadin joko hauek osatzen dute sektoreko eskaintza: kasinoak, B makinak, bingoak, zaldi lasterketetako eta kiroletako apustuak, Estatuaren loteriak eta apustuak eta ONCE.

Eskarian, aldiz, aldaketak egon dira azken urteetan, neurri handi batean 2008ko krisi ekonomikotik merkatuak duen likidezia faltaren ondorioz. Horrek ez du eragin handirik izan jokalari kopuruan; bai, ordea, jokatutako diru kopuruaren beherakadan (% 6,1 urtean 2006tik 2013ra bitartean). Dena dela, 2012ko eta 2013ko datuetan hobekuntza txikia ikusten da fakturazioan (881 milioi euro guztira), online jokoa arautzearen ondorioz batez ere.

Joko mota bakoitzak bere berezitasunak dituenez eskaintzari eta eskariari dagokienean, jarraian azpisektore bakoitzaren egoera ekonomikoa laburbilduko dugu:

Kasinoen kasuan, **ez da egon aldaketarik kasinoen kopuruan** eta bi kasino daude: Donostiako Gran Casino Kursaal eta Bilboko Gran Casino. Akziodunen aldaketa egon da Bilboko kasinoan 2014an eta, orain, Egasa da bi kasinoetako akziodun nagusia. Kudeatzaile berriek estrategia berria ezarri nahi dute aisiako guneak sortzeko joera berrira moldatzeko; hau da, jokoarekin batera, entretenimenduko beste jarduera batzuk eskaintzeko.

Aldaketa hori beharrezko estrategiatzat hartzen da Euskadin jokatutako diru kopuruetan gertatu den jaitsierari aurre egiteko. Izan ere, 2006-2013 bitartean % 10,1 jaitsi da jokatutako zenbatekoa eta % 7,9 gastu erreala.

B makinei dagokienez, nahiz eta Euskadiko jokoaren sektorean pisu handia duten, eboluzio negatiboa izan dute bai eskaintzan, bai eskarian. Azken urteetan, Euskadiko B makinen kopurua pixka bat jaitsi da (batez beste % 0,43 urtean 2006tik 2013ra), nabarmenago 2009 eta 2011 bitartean, krisi ekonomikoarekin bat urte horietan ostalaritzako hainbat establezimendu (% 3,4) itxi baitziren Euskadin. EAEn, halako makinen % 80,7 ostalaritzako establezimenduetan daude eta 3 enpresa handi dira hornitzaile nagusiak, halako makinen fabrikatzaileen merkatuaren % 95,7 haien esku dago eta. Joko aretoetako BS eta BS+ makinei dagokienez, eskaintza oso kontzentratuta dago; fabrikatzaile gutxi daude eta, ondorioz, erabiltzaileek modelo gutxi dituzte aukeran. Eskariari erreparatuta, urtean % 12,6 jaitsi da batez beste, eta beherakada handiagoa izan zen ostalaritzako establezimendu gehien itxi ziren epean.

Bestalde, bingo jokoan aldaketa handia gertatu da bingo elektronikoa agertzean. Areto gehienek ekarri dute modalitate berria, eta beste makina mota batzuk ere bai, eskaintza zabaltzeko asmoz. Modalitate berriak, ohiko bingoan zeuden sari guztiez gain, joko bonuak eta sustapenak eskaintzen ditu, pribatutasun handiagoa ematen du eta errazagoa da jokatzeko orduan. Joko mota berrira egokitzeko, aretoek beren antolaketa aldatu dute eta, horren ondorioz, aretoen edukiera % 3,43 txikitu da urtean batez beste 2007-2013 bitartean.

Hala, gaur egun bi bingo mota daude jardunean Euskadin: bingo elektronikoa eta e-plus bingoa, ohiko bingoa ordezkatu duena. Gainera, Estatuan joera berriak ageri dira: bingo dinamikoa, zeinak, bingo elektronikoaren aldaera izanik, aukera ematen duen tresna elektronikoetan jokatzeko zein kartoiak inprimatzeko, eta gaueko bingoa. Eskariari dagokionez, bingo tradizionalak beherakada nabarmena izan du jokatutako zenbatekoan; hain zuzen ere, 2006ko 142 milio eurotik 2012ko 69

milioi eurora jaitsi da. Aipatu beharrekoa da, berriz, 2012an nolabaiteko igoera gertatu zela bingo elektronikoaren etorrerarekin.

Estatuaren Loteriak eta Apostuak sozietateak kudeatzen dituen jokoei dagokienez, B makinen eskaria gainditu zuten 2011n eta merkatu kuotaren % 54ra iritsi ziren 2013an. Joko hauek dira azken urteetan jaitsierarik txikiena izan dutenak (% 2 Euskadin zein Estatuan). LAEren eskaintza askotarikoa da eta ez du aldaketa handirik izan 2006tik. Berrikuntzen artean, nabarmendu beharrekoa da gaur egun eskaintza guztian joka daitekeela online.

ONCEk du banaketa sarerik handiena Euskadiko loterien esparruan, nahiz eta 2010-2012 urteetan % 4,81 jaitsi den. Modalitate gehienen ildotik, online salmenta ezarri du. ONCEk nabarmen aldatu du eskaintza urteetan zehar: joko berriak sortu dira eta beste batzuk desagertu. Eskariari dagokionez, apenas jaitsi den 2006-2013 bitartean (urtean % 2,2 batez beste). Modalitate honen marjina, aldiz, handitu egin da, sariak murriztu egin direlako.

Apustu etxeei dagokienez, 2007an hasi ziren zabaltzen, Eusko Jaurlaritzak apustu lokalak ustiatzeko hiru baimenak eman zituenean, Reta, Kiroljokoa eta Codere enpresei hain zuzen ere. Gainerako joko modalitateetan ez bezala, apustu kopurua igo egin da hasieratik hona. Modalitatea hedatzen ari da: jokatutako zenbatekoak gora egin du (% 53 urtean batez beste 2010-2013 epean) eta espezializatutako lokal gehiago dago (% 17 2011-2013 bitartean). Online jokoa arautzea aukera ona izan da sektorearentzat eta hala adierazten dute kopuruek: Euskadin 9,3 milioi jokatu ziren apustuetan 2010ean eta 26,7 milioi 2013an.

Azkenik, zaldi lasterketetako apostuek tradizio luzea dute Euskadin, 100 urte baino gehiagokoa, eta esan liteke bera dela diru gutxien biltzen duen modalitatea, egun hipodromo bakarra dagoelako Euskadin eta, ondorioz, gainerako jokoetan baino eskaintza mugatuagoa dagoelako. Donostiako hipodromoan biltzen da eskaintza guztia eta bera da erreferentziazko hipodromoa Estatuan udako zaldi lasterketetan. Bertan 5 lasterketako 15 jardunaldi egiten dira uztailean, abuztuan eta irailean. Bi apustu modalitate ditu: barne apustuak, hipodromoko zaldi lasterketen gainekoak; eta kanpoko apustuak, nazioarte lasterketen gainekoak. Lehenengo modalitateko zenbatekoek % 8,8 egin dute gora 2013-2014 urteetan eta bigarrenekoek, ordea, %3,8 egin dute behera epe berean.

2. Jokoaren sektorea Euskadin 2013an, begi kolpe batez

KASINOAK	Zenbat jardunean	2 kasino
	Makina kopurua	103 C motakoak
		4 kirol apustukoak
		2 zaldi lasterketetako apustuak egitekoak
	Langileak	205
	Jokatutako diru kopurua	49.000.000 €
BINGOAK	Zenbat jardunean	17 areto
	- *Bingo elektronikoa eta ohikoa dituzten aretoak*	*12 areto*
	- *Ohiko bingoa duten aretoak*	*4 areto*
	-	
	- *Bingo elektronikoa duten aretoak*	*Areto bat*
	Jokatutako diru kopurua	76.000.000 €
B MOTAKO MAKINAK	Makina kopurua	11.421 makina
	- *Ostalaritzan*	*9.213 makina*
	- *Joko aretoetan*	*2.208 makina*
	Jokatutako diru kopurua	213.000.000 €
APUSTU LOKALAK	Lizentzia kopurua	3 lizentzia
	Apustu lokalen kopurua	30 lokal
	Baimendutako gehieneko lokal kopurua	75 lokal (25 lizentziako)
	Baimendutako terminal kopurua	1.500 terminal (500 lizentziako)
	Jokatutako diru kopurua	210.000.000 €
• ***ONLINE***	- *Online jokatutako diru kopurua*	*25.540.000 €*
HIPODROMOAK	Hipodromo kopurua	Hipodromo 1
	Jokatutako diru kopurua	971.000 €
	- *Barneko apustuak*	*506.000 €*
	- *Kanpoko apustuak*	*465.000 €*
ESTATUAREN LOTERIAK ETA APUSTUAK	Salmenta puntuen kopurua	566 salmenta puntu
	Jokatutako diru kopurua	462.000.000 €
ONCE	Salmenta puntuen kopurua	512 salmenta puntu
	Saltzaile kopurua	628 saltzaile
	Jokatutako diru kopurua	56.000.000 €

3. Euskal herritarren joko ohiturak

Euskadiko biztanleriaren lagin adierazgarri bati egindako inkesta soziologikoak gizarteak jokoaren inguruan dituen ohiturak eta iritziak ezagutzeko modua ematen digu. Jokoaren lehenengo liburu zuria egin zela zazpi urte badira ere eta tartean atzeraldi ekonomikoa egon bada ere, ez da aldaketa handirik gertatu jendearen ohituretan. Nahiz eta egoera ekonomiko berriak nolabaiteko eragina izan jarduera honen motibazioan, balioespena ez da askorik aldatu.

Gaur egun **uste zabala da jendeak gehiago jokatzen duela dirua irabazteko ondo pasatzeko edo mendekotasuna duelako baino.** Izan ere, itaundutakoen % 56k uste du jendeak dirua irabazteko jokatzen duela, 2007an baino % 13,3 gehiagok. Krisia izan daiteke horren arrazoia, zeren diruagatik jokatzea arrisku faktoretzat hartzen baita, jendea hondamendira eramateko modukotzat.

Gainera, **2007an jokoari buruzko iritzia positiboa ez** bazen (% 52,1ek arriskutsua zela eta ondorio larriak izan zitzakeela uste zuen), **2014an jende gehiagok du iritzi hori**, %62k hain zuzen ere.

Herritarren ohituretan ez da aldaketa handirik egon, jokatzeko maiztasunean izan ezik. Gaur egun, astean behin edo batzuetan jokatzen dutela diotenak % 7,4 gutxiago dira, eta urtean batzuetan jokatzen dutela diotenak % 20 gehiago. Izan ere, egoera ekonomiko zailetan jendeak diru kopuru txikiagoak jokatzen ditu eta maiztasun gutxiagoz; hortaz, sari handiak eskaintzen dituzten modalitateak hautatzen ditu noizean behin apustu egiteko. Ildo horretan, aipatzekoa da LAEren eta ONCEren jokoetan jaitsi duela gutxien azken urteetan jokatutako diru kopurua.

Jokalarien profil orokorrak esaten digu gizonezkoek emakumezkoek baino gehiago jokatzen dutela. Gainera, jokalari gehienak ezkonduak dira eta ezkongabeek baino sarriago aritzen dira jokoan. Aipatzekoa da, halaber, unibertsitarioak direla diru gutxien eta gutxienetan jokatzen dutenak; erdi mailako edo oinarrizko ikasketak dituztenek baino gutxiago eta gutxiagotan, alegia.

Oro har, jokoaren gizarteko osagaiak garrantzia galdu du eta jendeak gero eta sarriago jokatzen du bakarrik. Horren arrazoia izan liteke sektoreak duen irudi negatiboa eta, horren ondorioz, jarduera hori partekatu nahi ez izatea. **Lagunduta jokatu nahiago dutenen artean, normalean senitartekoekin edo lagunekin jokatzen dute**. Joera hori berria da; izan ere, 2007an lankideen arteko jokoa zen ohikoena.

Teknologia berriei dagokienez, Euskadiko jokalari gehienek nahiago dute ohiko eran aritu jokoan. Hala ere, datuek erakusten dutenez, **teknologia berriak erabiltzeko joera haziz doa. 2007tik hona, ohiko jokoa edo aurrez aurrekoa online jokoarekin tartekatzen duten inkestatuen kopurua % 13,4 igo da.** Online modalitatean, Pokerra, kirol apustuak eta kasinoa dira eskaririk handiena dutenak. Badirudi joera hori hedatuz joango dela online jokoaren arauketarekin (2011) eta operadore berrien etorrerarekin.

Sektorearen gaineko iritziari dagokionez, irudi txarra du eta, gainera, % 68,7k uste du ausazko jokoetan amarruak eta iruzurrak daudela. Nahiz eta Administrazioak jokoak arautu eta kontrolatu, oraindik ere mesfidantza sortzen dute herritarrengan. % 31,7k uste du joko guztietan daudela tranpak eta % 17,2k pentsatzen du Administrazioaren kontrolpeko jokoetan tranpak daudela.

Administrazioak sektorearen arauketan duen erantzukizunari dagokionez, herritarrek uste dute azken urteetan ez dela aldaketa handirik egon, nahiz eta Administrazioari protagonismo handiagoa ematen zaion jokoaren sektorea kontrolatzeko eta ikuskatzeko.

Azkenik, babesteko joera ikusten da sektoreko publizitate politika eta arauetan. Izan ere, publizitate askearen aldekoen ehunekoa % 11ra jaitsi da (2007an baino % 5,2 gutxiago).

4. Jokoaren araudiaren egoera Euskadin

LEGE ERREGIMENA

Euskal erakundeek dute joko, apustu eta kasinoen arloko eskumen esklusiboa. Beste era batera esanda, eskumen osoa dute jokoaren sektoreari lotutako legegintza eta betearazpen funtzioa garatzeko. Hala ere, esklusibotasun hori lotu eta mugatu egiten du Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuak bertan ematen diren EBren helburu eta politikekin, jokoa EBren erakundeek eta estatu kideek partekatzen dituzten eskumenen barruan baitago. Eta eskumen horiek baliaturik, EBko erakundeek egoki ikusten dituzten neurriak har ditzakete, estatu kideetako araudiak tratatua urratzen badu edo nahikoa ez bada, EBren helburu eta oinarriak iristeko.

Eskumen esklusibo horretan oinarriturik, euskal erakundeek lege estaldura zabala ezarri dute jokoaren sektorerako. Horrela, izaera orokorreko arauak eta sektorialak ere onartu dira. Hartara, araudi orokorra garaturik, jokoaren sektorearen barruko negozioetako bakoitzerako berariazko arau esparrua eratu dute. Araudia bere osoan zortzi elementutan laburbil daiteke, eta elementu horiek ematen digute Euskal Autonomia Erkidegoaren jokoaren sektorearen araudiari buruzko diagnostikoa.

1) Esparru materiala

Jokoaren arloko euskal araudiaren abiapuntuan jardueraren legezkotasuna aipatu behar dugu; hau da, jokoa legezkoa da Euskadin. Hala ere, jokoaren jarduera antolatu edo kudeatzen duena profesionaltasun maila batekoa bada, eta irabazi-asmoa badago bere kudeaketan eta sarien balioak ekonomia atalase jakin bat pasatzen badu (lanbide arteko gutxieneko soldata), jokoak aurretiaz baimendua eta Administrazioak kontrolatua izatea eskatzen du.

Berez, Euskadiko Jokoen Katalogoan ageri diren eta araututa dauden jokoak baino ezin dira baimendu. Nolanahi ere, Jokoen Katalogoan joko aukera zabala aurreikusten da eta bat dator gizarteko errealitatearekin eta bertako eskariarekin; bestela esanda, herritarrek ezagutzen eta praktikatzen dituzten ia joko guztiak daude baimenduta. Ez daude baimenduta beste esparru materialen bateko araudiek debekatzen dituztenak edo herritarren oinarrizko eskubideak urratzen dituztenak. Zehazki, baimendutako jokoen aukera bost negozio motatan sailka daiteke: (i) joko makinak, (ii) bingoa, (iii) kasinoak, (iv) apustuak, (v) txartel eta loteria jokoak eta (vi) zozketak, tonbolak eta ausazko konbinazioak.

Dena den, aipatu behar da azken aldian joko mota berriak garatu direla eta jokoen katalogoan sartu direla. Halakoak lirateke poker jokoaren modalitate ugariak, kasinoen kasuan.

Debekatuta daude, ordea, EAEko Katalogoan ageri ez diren jokoak, baimenik gabe, lokaletatik kanpo eta baimenik ez duten pertsonek burutzen dituztenak. Muga horiek aplikatzen zaizkie Internet bidez edo urrutiko komunikazioko gailuen bidez egiten direnei ere.

2) Baimenak ematea

Joko jardueren ustiapenak Administrazioaren aldez aurretiko baimena eskatzen du. Are gehiago, negozio jakin batzuetan baimen batzuk behar izaten dira joko jarduera ustiatzeko. Hala, baimena emateko bi prozedura daude. Alde batetik, bada araututako baimen prozedura, hau da, araudian aurretiaz ezarritako baldintzak betetzen dituztenek eta garaiz eta behar bezala eskatzen dutenek baimena jasotzekoa (esaterako, joko makinen edo bingoaren kasua, nahiz eta ez den aurretiazko baimenik eskatu behar ausazko konbinazioak egiteko; halakoetan, nahikoa izaten da erantzukizuneko aitorpena). Bestetik, badago prozedura kontrolatuagoa ere, Administrazioari diskrezionaltasun maila handiagoa ematen diona. Azken prozedura hori aplikatzen zaie kuantitatiboki mugatuta dauden jarduerei (esaterako, kasinoen, apustuen eta txartel jokoetan).

Nolanahi ere, azpimarra dezagun euskal araudiak ez duela jarrera babeslea hartzen joko arloan: ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko eta juridiko guztiek eska dezakete joko ustiapenerako baimena, aukera berdinetan, mugarik ezarri gabe, esaterako, nazionalitateagatik. Dena dela, une jakin batzuetan interesdunari eskatzen zaio EBko estatu kide batean bizi dela ziurtatzea.

3) Baimendutako lokalak

Joko jarduerak ustiatzen diren lokalek segurtasuna eta egokitasuna izan dezaten eta hobeto kontrolatuta egon daitezen, euskal legeak ezartzen du joko jarduerarako erabiliko diren lokal guztiek aurretiazko baimena behar dutela. Horrez gain, negozio bakoitzerako berariazko joko lokalei soil-soilik baimena emateko joera du (kasinoei, bingo aretoei, joko eta jolas aretoei, apusturako lokalei, jolaserakoei, etab.); eta zenbait muga jartzen dizkie ostalaritzako lokalei eta edonor sartzeko moduan ez dauden espazio publiko isolatu eta itxiei. Ildo horretatik, Apustuen Erregelamenduan ezarritakotik eta Bingoaren Erregelamenduan ageri den aipamen labur batekotik salbu, euskal araudiak ezartzen du nahitaezkoa dela joko jarduerak baldintza eta ezaugarri batzuk betetzen dituzten lokal fisikoetan egitea.

4) Muga pertsonalak, eskaintzarenak, prezioenak eta sarienak

(i) Joko jardueren eragin kaltegarriak saihesteko eta (ii) jarduera horien gaineko kontrola ahalik eta handiena izan dadin, euskal araudiak muga pertsonal batzuk ezartzen ditu jokalari eta kudeatzaileentzat (adinez nagusi izatea, kasurako), baita eskaintzan, apustuen prezioan eta apustuetatik atera daitezkeen sarietan ere.

5) Fidantzak

Ia negozio guztietan ezartzen da operadoreek aurretiaz fidantza bat edo gehiago jarri beharra, euren jardueraren kudeaketan izan ditzaketen ordaindu beharrak bermatzeko.

6) Publizitatea

Jokoak osasun publikoan izan dezakeen arriskua dela eta, halako jardueren publizitate kanpainetan edo sustapenekoetan kontrol zorrotza ezartzeko hautua egin du euskal araudiak, eta debekatu egin ditu jasotzailearentzat helburu limurtzaile argia duten guztiak. Negozio baterako eta besterako ñabardurak izan arren, Euskadiko araudiak eskatzen du, oro har, aurretiaz publizitate kanpainaren berri ematea Joko Zuzendaritzari. Erakundeak baimena emango du, baldin eta prentsa, irrati eta telebistarako (ordutegian mugak daude ezarrita azken bien kasuetan) informazio emate hutsa bada, adingabeei zuzenduta ez dauden kirol jardueren edo erakunde jardueren babesletza adierazten bada eta sektoreko aldizkari edo prentsa espezializaturako bada. Era berean, baimenduta dago joko lokalen barruan publizitate komertziala egitea, aurretiaz Administrazioari jakinarazi beharrik izan gabe.

7) Zehapen araubidea

Arau hauste eta zehapen administratiboen araubidea ere ezartzen du, oso antzekoa negozio guztietarako. 60,10 eta 600.012,10 euro bitarteko zehapenak aurreikusten ditu, arau haustearen larritasunaren arabera.

8) Zerga araubidea

Zerga esparruaren azterketan jokoaren jarduerak zein zergari eragiten dion jorratzen da eta, aldi berean, arlo horretan zein aldaketa egin diren azaltzen da.

Lurralde historikoek arautzeko eskumenak dituzte joko arloan eta modalitateak arautzen dituzte Foru Arauen bidez. Arau horiek ia berdinak dira, aitorpenak eta autoaitorpenak arautzean izan ezik.

Sektoreko zerga araubideak aldaketa nabarmena izan du 2011z geroztik, Jokoari buruzko maiatzaren 27ko 13/2011 Legea indarrean sartu zenetik. Lege horrek zuzenean eragin zion zerga ordainketari, Joko Jardueraren gaineko Zerga gehitu baitzen. Estatu mailako zerga horrek tonbola, zozketa, apustu eta ausazko konbinazioak zergapetzen ditu; gainerako joko jarduerek, ordea, zorizko, enbidoko edo ausazko jokoen gaineko tasa ordaindu beharko dute. Lege berri horrekin hasi da zergak ordaintzen online modalitatea. Aldaketa hori 2014an normalizatu zen Euskadin, zerga Euskal Autonomia Erkidegoko lege esparruan sartzeko Ekonomia Itunaren aldaketa onartu zenean.

5. Araudien joerak jokoaren esparrua

Araudien joerak

Gaur egun ez dago nazioartean finkatutako araudirik jokoaren sektorean, Estatu bakoitzean araudi bat aplikatzen da. Gauza bera gertatzen da Estatuan, sektoreari buruzko lege esparrua heterogeneoa da, Autonomia Erkidegoek eskumenak dituztelako jardueraren arlo batzuk arautzeko.

Estatuko Autonomiek jokoa arautzeko joera liberala dute, Europako eta nazioarteko beste estatu batzuekin konparatuz. Hala ere, erkidego guztiek onetsita duten Jokoaren Legean badago xedatutako esparru komun bat eta bertan daude definituta lurralde osoan aplikatzeko printzipioak eta esparru arautzailea, baita baimendutako jokoak jasotzen dituen jokoen katalogo nagusia ere. Dena dela, **Autonomia Erkidego bakoitzak arautzen ditu jokoak eta muga espezifikoak ezartzen ditu** ustiatzeko baimenen arloan, iraupenean, zergetan, etab. Aipatzekoa da online jokoa maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen bidez arautu ondoren, autonomia erkidegoek lege hori ezarri dutela beren lurraldean, Euskadin esaterako, modalitate berri hori arautzeko.

Estatuan bezala, Europan ere ez dago jokoaren sektoreari buruzko araudi finkorik. Hori dela eta, Europako Batzordearen helburua da nazioarteko araudiak bateratzea, arautzaileen koordinazioa lortzea eta Europako jokalarien babeserako estandar berdinak ezartzea, Europako mugen barruko jarduera kontrolatu eta zergapetzeko ikuspegi arautzailea erabiliz.

Arlo horretan, araudien helburuen barruan, online jokoaren araudiak lehentasuna du, merkatu hori asko hasi baita azken urteotan. Horregatik Europar Batasuneko gobernuak gero eta kontzientzia handiagoa hartzen ari dira online modalitatea arautzeko beharraz, izan ere kontsumitzaileek mundu guztiko operadoreetara sartzeko aukera dute eta arau komunak jartzea erronka handia da, bai kontsumitzaileak babesteko, bai zergak eta legeria arautzeko.

Joera hori ikusten da **Europan ere, gero eta herrialde gehiagotan ari dira modalitate hori beren mugen barruan arautzen.** 2010. urtean 8 ziren arautua zutenak eta gaur egun 16.

Beraz, araudien zeregina gero eta gehiago izango da estatuen eta lurraldeen arteko online jokoen zerbitzuentzako lizentziak ematea, helburua izanik jokalarien likidezia konbinatzea eta zerga bilketa baimen fiskalen artean adostasunez banatzea.

Publizitateari buruzko araudiari dagokionez, esan beharra dago, Erakundeen eta operadoreen artean oso gai eztabaidagarria eta eztabaidatua dela. Nazioartean aniztasun handia dago gai honetan eta estatu batzuk beste batzuk baino zorrotzagoak dira. Estatuaren barruan ere desberdintasunak daude autonomia erkidegoen artean, irekiak izateko joera nagusi delarik. Euskadin, azaroaren 8ko 4/1991 Legeak arautzen du jarduera hori eta joera Estatukoaren antzekoa da, are irekiagoa.

Zerga arloko joerak

Azken urteotan, krisia dela eta, sektorean diru sarrerak asko gutxitu diren arren, **erakundeetan jokoarekin lotutako zergak gehitzeko joera da nagusi.**

Baina, aldi berean gobernuak hausnarketa egiten ari dira, gehiegizko zergapetzeak sektorearen lehiakortasuna eta iraunkortasuna gutxitu egiten baitu. Horregatik, **ıera bera zergapetu beharrean, jard en irabaziei zergak jartzeko joera has ndarra hartzen**.

Araudietan dauden an gertatzen den bezala, modalitate arautu denez, administrazioak lanean ari dira z finkatzeko. Herrialde batzuetan, Erresuma Batuan esaterako, lege bat ezarri dute kapital ihesa arautzeko eta, hori dela eta, online jokoak eskaintzen dituzten enpresak behartuta daude Erresuma Batuan lizentzia izatera eta kontsumitzaile britainiarrek sortutako irabaziengatik ordainduko dituzte zergak, edozein delarik egoitza fiskala.

M.Arrazola/ej-gv

PERTSONA HELBURU

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD